² EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA, PARLAMENTUA ETA BATZORDEA. EBko Oinarrizko Eskubideen gutuna, EBko Aldizkari Ofizialean argitaratua 2012ko urriaren 26an, 41.4. artikulua.

³ EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA. Eskualdeetako eta Eremu Urriko hizkuntzen Europako Gutuna. Estrasburgon sinatua 1992ko azaroaren 5ean.

Espainiako hizkuntza-aniztasuna 1931ko Konstituzioan⁴ ezarri zen lehen aldiz, aurreko konstituzioek, Lehen Errepublikakoak barne, ez baitzuten gai hori jorratu. Hizkuntza-aniztasunari buruzko aurrekari juridiko-konstituzional bakarra Bigarren Errepublikako Konstituzioan dago, 1978ko Espainiako konstituziogileentzat inspirazio iturri izan zena.

Gaur egungo Konstituzioak 3. artikuluan jaso du hizkuntzen inguruko arauketa⁵. Artikulu hori aztertu aurretik ordea, ezinbestekoa da hizkuntza ofiziala zer den zehaztea. Eztabaida ugari egon dira eta ez dago definizio zehatz bakarra. Oro har, lan honetarako hurrengo definizioa izango da oinarri: “Hizkuntza ofiziala Estatuak bere borondatea eta herritarrena adierazteko araubide gisa aitortzen duena da, askotan Konstituzioan ezarrita dagoena”⁶.

EKaren 3. artikulua Espainiako hizkuntza-aniztasuna kultura-ondare baliotsutzat hartzen du, eta ondare hori babestu eta errespetatu beharrezkotzat jasutzen du. Horrez gain, gaztelania Estatuko hizkuntza ofiziala dela ezartzen du, baita ere herritar guztiek ezagutu behar dutela eta erabiltzeko eskubidea dutela.

Gainera, artikulua adierazten du Espainiako beste hizkuntza batzuk ofizialtzat jo daitezkeela autonomia-erkidegoetan, haien estatutuen arabera. Konstituzio-xedapen hori hainbat eskualdetan aplikatu da, hala nola Euskadin euskararekin, Katalunian katalanarekin eta aranerarekin, Galizian galizierarekin, Valentziako Erkidegoan valentzierarekin, Nafarroan euskararekin eremu zehatzetan eta Balear Uharteetan katalanarekin.

⁴ Espainiako Konstituzioa, *Gaceta de Madril*en 344. zk., 1931ko abenduaren 10ean argitaratua, 4. artikulua.

⁵ 1978ko Espainiako Konstituzioa, EAOn 311. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 3. artikulua.

⁶ GURRERA ROIG, M.: “El pluralismo lingüístico” *Revista de estudios políticos*. 1985, 48. zk. 229. or.

Artikulu horrek, ostera, azterketa zehatzago bat egitea eskatzen du, artikulua interpretazioak eta definizioak arazo ugari sortu ditu eta. Horixe egin du URRUTIA BADIOLAK⁷.

Lehenengo 3.1 artikulua horrela dio: “Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko egin-beharrak eta erabiltzeko eskubidea”⁸.

“Espainiar guztiek” aipatzen denean, oro har, Espainiako nazionalitatea duten pertsona fisikoak edo juridikoak barne hartzen dituela esan daiteke, biak baitira harreman juridikoen subjektuak. Arazoa desberdina da bizilekua Espainian duten atzerritarrentzat. Ildo horretan, BORRAJO INIESTA esandakoari jarraituz, EKren 13. artikulua eta Kode Zibilaren 27. artikulua arabera, atzerritarrei 3. artikulua aplikatu ahal izango zaie⁹.

Atal horren ostean “gaztelania jakiteko egin-beharrak eta erabiltzeko eskubidea” jaso da. Erabiltzeko duten eskubideari dagokionez, harreman juridiko pribatuetan gaztelania ez ezik beste edozein hizkuntza erabiltzeko eskubidea agerian dago, legezko xedapenetan ezarritako salbuespenak salbu. Gaztelania ezagutzeko betebeharrak, ordea, eztabaida ugari ekarri ditu.

Eztabaida horien inguruan VERNETek kontrakoak diren bi tesi doktrinal bereiztu ditu¹⁰: Alde batekoek, gaztelaniaren ofizialtasuna hizkuntza

⁷ URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: *Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas ‘inter privados’: Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea*. Bilbo: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP), 2016. 305-327 orr.

⁸ Espainiako Konstituzioa, EAOren 311. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 3.1 artikulua.

⁹ BORRAJO INIESTA, IG.: “El status constitucional de los extranjeros”. Ondoko lanean: MARTIN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord.): *Estudios sobre la Constitución Española: Homenaje al profesor García de Enterría*. Bigarren liburukia *De los Derechos y Deberes fundamentales*. Madril: Civitas argitaletxea, 1991, 697-766 orr.

¹⁰ VERNET, J.; PUNSET, R.: “Lenguas y Constitución”. Madril: Iustel, 2007, 29-31. orr.

hori jakin behar izatearekin lotzen dute ondorio zuzen moduan. Ez oste-
ra gainerako hizkuntza ofizialen kasurako. Beste doktrinaren arabera, es-
painiar guztiek gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko duten betebeharrak
ez du gaztelaniaren ofizialtasunaz bestelako edukirik ematen beste hiz-
kuntzen aldean. Ondorioz, uste dute ezin dela baieztatu ofizialtasun-de-
klaraziotik eratorritako Konstituzioaren araberrako status desberdina da-
goenik gaztelaniaren eta beste hizkuntza ofizialen artean.

URRUTIA LIBARONAK honen inguruan adierazi du hizkuntzen ofizial-
tasun partekatua estatusak hizkuntza-berdintasuna dakarrela. Ez dago
hizkuntza bat beste hizkuntza bat baino ofizialagoa denik¹¹.

Bigarren, 3.2. artikulua: “Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak
izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatu-
tuekin bat etorritz”¹².

AEak EKaren 81.1 artikuluan araututako onarpen bereziko lege or-
ganiko mota bat dira¹³. EKren 3.2. artikulua honek, hizkuntza koofi-
zialak gaztelaniaren maila berera ekartzen ditu, hauek erabiltzen diren
Autonomia Erkidegoetan. Horrek esan nahi du Konstituzioak hizkun-
tza-koofizialtasun hori ezartzen duela, eta horren zehaztasunak konsti-
tuzionaltasun-blokeko hurrengo mailara igortzen direla, hau da, autono-
mia-estatutueta¹⁴.

¹¹ URRUTIA LIBARONA, I.: “El nuevo régimen jurídico de las lenguas oficiales en la Ley de Instituciones Locales de Euskadi”. *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 2017, 107. zk. 140. or.

¹² Espainiako Konstituzioa, EAoren 311. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 3.2 artikulua.

¹³ Espainiako Konstituzioa, EAoren 311. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 81.1 artikulua.

¹⁴ SÁNCHEZ AGESTA, L. eta PRIETO DE PEDRO, J.: “Las lenguas de España”. Ondoko lanean: SÁNCHEZ AGESTA, L.; GOIG MARTÍNEZ, J.; PRIETO DE PEDRO, J. eta beste batzuk: *Comentarios*

Azkenik, 3.3. artikulua: “Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du”¹⁵.

Atal horri ez zaio inoiz garrantzi handirik eman. Horren inguruan egindako ekarpenen artean, ARZOZ SANTIESTEBANena dago. Arzozen us-tez, EKaren 3.3 artikulua estatu konstituzionalaren kultura-nortasunaren klausula bat da, eta Espainian dauden hizkuntza guztiak eta haien dialektoak aitortzeko eta babesteko adierazpen bat ere bada¹⁶. Beraz, bai autonomia-erkidegoek bai Estatuko Administrazioak Konstituzioaren printzipioen arabera jardun beharko lukete, Espainiako hizkuntza-aniztasunaren errespetua eta babesa sustatuz eta hiztunen eskubideak bermatuz.

Atal guztiak batuta, EKaren 3. artikulua interpretazio ugari eragin ditu adituaren artean. Gainera, AGUIRREAZKUENAGAK dioen moduan, hasiera hasieratik eztabaida honetan, alderdi juridikoarekin batera ideologiak pisu handia izan du, beti ere oinarritzko printzipiotzat hartuta hizkuntza-gatiko bereizkeriarik ez egitea¹⁷.

Orain arte azaldutako guztia kontuan izanda, argi dago Espainiako hizkuntza-aniztasuna aniztasun kultural eta historiko aberatsaren isla dela, baina nazio-nortasunari, eskualde-autonomiari eta hizkuntza-poli-

a la Constitución Española. Tomo I - Preámbulo y artículos 1 al 9 de la Constitución Española de 1978. Madril: Edersa argitaletxea, 2006, 241-283 orr.

¹⁵ Espainiako Konstituzioa, EAOn 311. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 3.3 artikulua.

¹⁶ ARZOZ SANTIESTEBAN, X.: “Lenguas y modalidades lingüísticas en la Constitución Española: ¿Dos regímenes jurídicos diferenciados?”. Ondoko lanean: MILLAN I MASSANA, A. (koord.): *El plurilingüismo a la Constitución Española*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya, 2009, Col·lecció Institut d’Estudis Autònoms 65. zk. 61-122 orr.

¹⁷ AGUIRREAZKUENAGA, I.: “Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas”. Ondoko lanean: MARTIN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord.): *Estudios sobre la Constitución Española: Homenaje al profesor García de Enterría*. Madril: Civitas argitaletxea, 1991, 678-696 orr.

tikei buruzko eztabaida eta tentsio politikoak ere eragin ditu. Lan hone-tan, katalana eta galiziera albo batera utziko dira, baita Nafarroako kasua ere, EAEn euskararen eta gaztelaniaren egoera aztertzea baita helburua.

II. EUSKARA: HISTORIA ETA ARAUKETA

Euskararen jatorriari dagokionez, Europa mendebaldeko hizkuntzarik zaharrenetako bat da, indoeuroparren aurrekoa. Zenbait ikertzailek euskara, iberiera, berebere eta Kaukasoko hizkuntza batzuen artean loturak daudela baieztatu izan dute, baina euskararen sustraien misterioa argitu gabe dago oraindik¹⁸.

Euskara eta zuzenbideari dagokionez, Euskal Herrian zuzenbidearen eta hizkuntzaren arteko erlazioa gai erakargarria izan da askorentzat luza-roan. 1986. urtean BARANDIARANek hurrengo argitaratu zuen:

“Euskalherriak baditu oraino bizikera bereziak, gure lurralde honek eskaintzen dizkion autu bideai eta bere lehendikako joerai erantzunaz eraikiak: batez ere esku langintza, olagintza, nekazaritza, abelzaintza, eiza, arrantza eta merkataritza.

Bizimolde hauen egikera bereziak maiz aipa ditugu gure idazkietan eta beren urratsak usmatu ditugula askotan adierazi degu. Aipa ditzagun orain heuren inguruko zenbait ohikunde eta irizpide: oinpeko legeak eta heuren agerpenak”¹⁹.

Barandiaranen esanetatik ondorioztatu daiteke Euskal Herriak bazituela zenbait ohikunde edo ohitura, bere bizimodua zeozelan arautzeko. Bada,

¹⁸ IGARTUA, I. eta ZABALTA, X.: “Euskara”. Etxepare Euskal Institutoa, BASQUE, 2021, 48-54. orr.

¹⁹ BARANDIARAN, J.M.: “Euskal ohikunde edo legediazaz hitz bi”. RIEV, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1986, 31. zk. 523-525 orr.

historian zehar, euskararen presentzia arlo juridikoan aldatzen joan da, eta lurraldez lurralde oso ezberdina izan da. LARRAZABALEK egindako banaketari jarraituta²⁰, gaur egun, Euskal Herrian hiru lege eremu bereiz daitezke.

Batetik, erdiko gunean Nafarroa, bere sistema juridikoa daukana, Aragoiko sistemaren eta *dreyto*²¹ erakundeen antzekoagoa. Bestetik, mendebaldeko lurraldeen artean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, gaztelako sistema juridikotik eta zuzenbideko erakundeetatik edaten duena. Azkenik, ekialdeko gunea, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereak osatzen dutena, ohi-turazko zuzenbidea da, gaskoien eta okzitaniarren eragina hartu duena²².

Hala ere, denen artean hainbat erakundeetan badute bateratasuna, zuzenbide pribatuan batez ere; kasurako tronkalitatea, jaraunseak erabakitze-askatasuna, ezkontza bidezko erregimen ekonomikoak, merkataritza-askatasuna eta zerga-salbuespena²³.

Hizkuntza- eta lege-ikuspegitik, egoera elebidun disglosiko gisa defini daiteke, baina ez ordezkapen-disglosia gisa, baizik eta izaera egonkorreko disglosia gisa. Lurralde hauetan, idatzizko hizkuntza juridiko formal bat (latina, gaztelania, gaskoia edo frantsesa, edo nafar-aragoierazko erromantzea) eta ahozko hizkuntza juridiko bat (euskara) aldi berean erabili izan dira. Ondorioz, hainbat egoeratan, hizkuntza eta kultura biak bitartekari izan dira.

²⁰ LARRAZABAL BASÁÑEZ, S.: “Derecho Público de los Territorios Forales. De los orígenes a la abolición foral”. Oñati: *Administrazio Publikoaren Euskal Institutua* (IVAP), 2004.

²¹ LALINDE ABADÍA, J.: “La ubicación del *Dreyto* de Navarra en el área española del *Directum*”. *Segundo Congreso General de Historia de Navarra*. 1992, 14. zk., 300. or.

²² GOYHENECHÉ, E.: “Les sources du Droit basque. La maison et la famille”. *Le Pays Basque. Soule - Labourd - Basse-Navarre. Société Nouvelle d'éditions Régionales et de Diffusion*, 1979, 245-251. orr.

²³ URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: “El Derecho foral vasco en la Historia”. Ondoko lanean: URRUTIA, A.; ATXABAL, Al. eta beste batzuk: *Practicum de Derecho Civil Foral del País Vasco*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995, 25-30. orr.

Lurralde eremu guztiak bateratasun batzuk izan arren, Erdi Arotik gaur egunera arte izandako bilakaera historiko nahiz juridikoa ezberdina izan da gune bakoitzean. Lan honetan aurrera egiteko mendebaldeko lurraldeak hartuko dira oinarri, hau da, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, Nafarroa eta ekialdeko lurraldeak albo batera utzita, eta historia baino gehiago, arlo juridikoa izango da aztergai.

2.1) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua

EKaren 3.2. artikulua ezarritako agindua betez, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikoek osatutako EAE eratu ondoren, Gorte Nagusiek EAEko Aeri buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa²⁴ onartu zuten, eta, ondoren, EAEaren barruan erreferendumaren xede izan zen; Gernikako Estatutua ere esaten zaio.

Bere artikuluetan, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunari dagokionez, 6. artikulua sartu zen. Artikulu horrek ezartzen du euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza dela, eta herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea bermatzen du, bai eta euskara errespetatzeko betebeharra ere. Era berean, euskal administrazio publikoa behartzen du euskararen ezagutza eta erabilera sustatzera eta herritarrekiko harremanetan erabiltzera, Estatuko oinarrizko legeriaren arabera.

Izan ere, EAeri dagokio euskararen koofizialtasuna arautzea. Beraz, EAEko botere publikoa, politikoa eta berezkoa da euskararen egoera normalizatzeko eta EAEko lurraldeetan euskararen estatusa hobetzeko eskumena duena²⁵.

²⁴ 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa, EAoren 306. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua.

²⁵ URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: “Lengua vasca, cooficialidad lingüística...”, *op. cit.*, 329. or.

Gainera, EKan gaztelania jakiteko betebeharra jaso arren, Aeko 6. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen da: “3. Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua”²⁶.

2.2) Eusko Legebiltzarraren 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legeak²⁷ Aeren 6. artikulua garatzen du eta EAEan euskararen eta gaztelaniaren erabilera arautzea du helburu. EAEko lurraldean euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasun-estatusa ezarri ondoren, lege hori funtsezko tresna da euskararen normalizaziora zuzendutako arau guztiak legez garatzeko.

Atariko tituluaren barruan, euskara eta gaztelania agertzen dira, Euskal Herriko berezko hizkuntza gisa lehena eta ofizialak biak Euskal Herrian.

“2. artikulua. Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara da. 3. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira. 4. artikulua. Botere publikoek neurri egokiak hartu eta zainduko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin”²⁸.

²⁶ 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa, EAoren 306. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 6.3. artikulua.

²⁷ 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa, EHAAren 160. zk., 1982ko abenduaren 16an argitaratua, eta EAoren 100. zk., 2012ko apirilaren 26an argitaratua.

²⁸ 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa, EHAAren 160. zk., 1982ko abenduaren 16an argitaratua, gero EAoren 100. zk., 2012ko apirilaren 26an argitaratua, 2., 3., eta 4. artikulua.

5. artikuluan aitortzen da EAEko herritarrek hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea dutela, bai ahoz, bai idatziz, Administrazioarekin eta EAEn kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea barne.

6. artikulua arabera, herritar guztiek dute eskubidea EAEko Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara edo gaztelania erabiltzeko eta aukeratutako hizkuntzan arreta jasotzeko. Hainbat pertsona dituzten espedienteetan, botere publikoek aldeek adostutako hizkuntza erabiliko dute. Artikuluaren azken atalean esaten zen adostasunik ez badago, espedientea sustatu zuenaren hizkuntza erabiliko zela, eta alderdi guztiei nahi duten hizkuntzan jakinaraziko zaiela bermatuko zela. Hala ere, 10/1982 Legearen 6. artikulua 2. paragrafoa 2012an indargabetu zen²⁹. Aldaketa horrek esan nahi du jada ez dela aplikatzen hizkuntzen erabilerari buruzko xedapena pertsona bat baino gehiagoko prozeduretan, eta hizkuntza ez dela aukeratzen elkarren arteko adostasunez edo espedientea hasi duen pertsonak.

Ondoren, bigarren tituluan, banan-banan zehazten da euskararen normalizazioa zein eremutan garatuko den: herri-administrazioa, justizia-administrazioa, toki-administrazioa, etab. Izan ere, lege honek EAEko administrazio publiko guztiei eragiten die.

Eskema hirukoitz hau —Konstituzioa, AE eta 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarriko Legea— EAEn indarrean dagoen hizkuntza-koofizialtasunaren erregimenaren oinarri izan da urte askoan, 2016. urtean ETEL egin zen arte³⁰.

²⁹ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 169/1983, ekainaren 29koa.

³⁰ 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, EHAAren 70. zk., 2016ko apirilaren 14an argitaratua eta EAOn 105. zk. 2016ko maiatzaren 2an argitaratua.

2.3) Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (ETEL)

EHAak 2016ko apirilaren 14an argitaratu zuen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, EAEko udalerrien funtzionamendu-araubidea jasotzen duen lehen legea.

Lege hori 2016ko apirilaren 15ean sartu zen indarrean, eta, Gernikako Estatutuarekin, Kontzertu Ekonomikoarekin eta Lurralde Historikoen Legearekin batera, Euskadiko barne-arkitektura instituzionala osatzea dakar. Lege hau egitea, ordea, ez zen egun batetik besterako kontua izan. 35 urte baino gehiago behar izan ziren udal-lege bat argitzeko. Ordura arte, EAE toki-araubidearen arloko eskumena berariazko lege arautzaile baten bidez garatu ez zuen autonomia-erkidego bakarra zen³¹.

BAZAKOK eta ETXANOBEK eman zituzten atzerapen horren arrazoi nagusietako batzuk³². Arrazoi horien artean dago euskal legegileak euskal administrazioa arautzeko zuen tarte txikia; izan ere, egitura berezia zuen. Gainera, euskal legegileak lehentasuna eman zion lurralde historikoen posizio instituzionala definitzeari, eta Estatuak, bien bitartean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea³³ eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu batregina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege

³¹ LARRAZABAL BASÁÑEZ, S.: “Zume hauekin...ekin lanari. Reflexiones sobre la génesis, naturaleza e inserción de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi en el peculiar sistema de fuentes del Derecho vasco”. *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 2017, 107. zk., 24. or.

³² BAZAKO ATUTXA, P. eta ETXANOBE LANDAJUELA, E.: “Ley Municipal de Euskadi. ¿Esta vez sí?”. *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria*, 2015, 8. zk. 66-85. orr.

³³ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, EAOn 80. zk. 1985eko apirilaren 3an argitaratua.

Dekretua³⁴ onartu zituen, eta horien edukiek are gehiago mugatzen zuten euskal legegile autonomikoaren eskumen tartea.

Azkenean, 35 urte geroago, lege hau egitea lortu zen, eta Bazako eta Etxanoberen hitzak jarraituz, legea onartzeak aukera eman zuen EAEko legegileak, lehen aldiz, toki-araubideko sistema propio bat egituratzeko, Estatuan, Nafarroako Foru Komunitatean izan ezik, antola daitekeenetik erabat berezia. Azken batean, bi zutabetan oinarritzen den toki-araubideko sistema bat: eskumen-sistema bat eta araubide erkidean indarrean dagoenaz bestelako finantzaketa-sistema kualitatibo bat³⁵.

Izan ere, RAZQUINEK argudiatu zuen bezala, oso beharrezkoa zen lege hau egitea, toki erakundeei dagokien lekua emateko eta EAEn berezko marko instituzionala ezartzeko besteak beste³⁶. Legeak berak, zioen azalpenaren barruan jaso zuen ETEL funtsezko pieza bat dela, euskal erakunde-sistemaren muina, eta, beraz, Lurralde Historikoen Legearekin batera, Euskadiko barne-instituzionalizazioaren prozesua ixten duen legetzat hartu behar dela³⁷.

URRUTIA LIBARONAK ere jardun zuen lege horren inguruan. Bere esanak jarraituz, Toki Erakundeei buruzko Legeak bere gain hartu duen ardura udalen autonomia indartzea izan da, baita hizkuntzari dagokionez

³⁴ 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen, EAoren 96. zk. 1986ko apirilaren 22an argitaratua.

³⁵ BAZAKO ATUTXA, P. eta ETXANOBE LANDAJUELA, E.: “Ley Municipal de Euskadi...”, *op. cit.*, 69-70. orr.

³⁶ RAZQUÍN LIZARRAGA, M.M.: “La Ley de Instituciones Locales de Euskadi: visión general y encuadre del nivel institucional”. *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 2017, 107. zk. 58. or.

³⁷ 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, EHAAren 70. zk., 2016ko apirilaren 14an argitaratua eta EAoren 105. zk. 2016ko maiatzaren 2an argitaratua, Zioen azalpenaren V. atala.

ere. Horri esker, udal hizkuntza-politika bere errealitate soziolinguistiko berezira eta bere ezaugarri eta behar zehatzetara egokitu ahal izango da³⁸.

ETELek aldaketa nabarmenak egin ditu toki-erakundeetan hizkuntza ofizialak erabiltzeari dagokionez. Euskararen erabilera normalizaturako oinarri berriak nabarmentzen dira, guztion hizkuntza aukeratzeko eskubideak bermatuz. Halaber, “euskararen bizi-guneak” edo “arnasguneak” bezalako kategoria berriak sartzen dira, definizio zehatza behar dutenak. Gainera, tresna berriak ezartzea aurreikusten da, hala nola plan eta proiektuetan hizkuntza-inpaktua ebaluatzea, funtzionario hautetsien artean euskararen ikaskuntza sustatzeko neurriak eta kontratuetako hizkuntza-klausulak.

Zalantza barik, LARRAZABALEK bere lanean jaso zuen lez, ETEL honela defini daiteke: Lege integral gisa, estatuaren toki-arloko oinarrizko legeria modu orokorrean garatzen duen lege gisa, euskal eskubide historikoak eguneratzen dituen lege gisa eta euskal erakundeen arteko eskumen-zedarritzea osatzen duen lege gisa³⁹.

2.4) 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa

Behin ETEL indarrean sartuta, 3 urte geroago, 179/2019 Dekretua egin zen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea garatzeko asmoarekin. Dekretu horrek, Euskadiko toki-erakundeetan gaztelaniarekin batera euskararen erabilera normalizatzeko arauak ezartzen ditu. Herrita-

³⁸ URRUTIA LIBARONA, I.: “El nuevo régimen jurídico de las lenguas oficiales...”, *op. cit.*, 131. or.

³⁹ LARRAZABAL BASAÑEZ, S.: “Zume hauekin...ekin lanari. Reflexiones sobre...”, *op. cit.*, 36. or.

rrren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta administrazio-eremuan gaztelaniaren erabilerarekin orekatzeko sortu zen. Hizkuntza-arloko udal-eskumenak artikulatzen ditu, eta berdintasuna, diskriminaziorik eza eta tokiko hizkuntza-autonomia bezalako printzipioak ezartzen ditu.

Dekretuak zazpi kapitulu ditu: xedapen orokorrak, hizkuntza-gaitasunak, hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa, seinaleak eta toponimia, eta hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa. Gainera, kontrol- eta jarraipen-neurriak jasotzen ditu, betetzen direla ziurtatzeko. Artikuluek hainbat alderdi arautzen dituzte, hala nola herritarrek administrazioarekiko komunikazio-hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea, euskararen erabilera udal-dokumentazioan eta -zerbitzuetan, eta euskararen sustapena publizitate aktiboan eta erakunde arteko harremanetan.

Aurrerago aztertuko den epaiari dagokionez, dekretu honen 18. artikuluari berebiziko garrantzia eskeini behar zaio. 179/2019 Dekretuaren 18. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak eta gainerako dokumentazioa euskaraz idatzi daitezkeela, tokiko araudiaren arabera. Gainera, euskara edo gaztelania erabiltzeak kideren baten eskubideak kaltetu baditzake hizkuntza ez jakiteagatik, itzulpen bat emango da beste hizkuntza ofizialera⁴⁰. Bada, artikulua hau partzialki deuseztatu zen. Horren arrazoiak aurrerago azalduko dira.

Arau guzti hauek kontuan izanik, euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da EAEan, eta bertako biztanleek euskaraz bizitzeko eskubidea dute. Beraz, biztanle orok bere harreman publiko zein pribatuetan eskubidea du euskaraz jarduteko, bai eta idazki ofizialak zein

⁴⁰ 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. EHAA, 2019ko azaroaren 22a, 179. zk. 18. artikulua.

epaiak euskaraz jasotzeko. Betebehar bat da gaztelania ezagutzea, baina betebehar hori beteta, euskara eta gaztelania maila berean geratzen dira, eskubide eta betebehar berberekin. Errealitatean ordea, horrela al da? Benetan euskara gaztelaniaren maila berean al dago?

Azkenaldian sententzia batzuk euskararen aurkako jarrera agertu dute, euskararen ofizialtasuna zalantzan jarri dute. Eredu nagusitzat Konstituzio Auzitegiaren (KA) 85/2023 epaia hartuta, horren azterketari ekingo zaio hurrengo atalean.

III. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 85/2023 EPAIA, 2023KO UZTAILAREN 5EKOA

Epaia honen jatorria 2020ko urtarrilaren 21ean dago. Egun horretan, Vox eta PP alderdi politikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuten EAEko JANko Administrazioarekiko Auzien Salan, EAEko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren aurka. Errekurtsoetan, ETELen hainbat artikuluren eta 179/2019 Dekretuaren zenbait termino deuseztatzeko eskatu zuten, EKren aurkakoak zirela argudiatuz.

Egoera ikusita, EAEko Auzitegi Nagusiko Auzitegi Judizial Administrazioaren Salaren Hirugarren Sekzioak erabaki zuen konstituzio aurkakotasun arazoa planteatzea Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 6.2 artikuluari dagokionez, Konstituzioaren 3., 9.3., 14. eta 23. artikulua urra zitzaizkelakoan.

Eskaera horri erantzunez, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko nagusiko letradua konstituzio kontrakotasun-arazoa planteatzearen aurka agertu zen, Legearen tarteki eztabaidatuak ekainaren 26ko 86/1986 KAEak hitzez hitz jasotzen dituela alegatuz. Baina, zenbait prozeduraren ondoren, 2021eko irailaren 7ko autoaren bidez, EAEko JANko Admi-

nistrazioarekiko Auzien Salak ETELen 6.2 artikuluari buruzko konstituzio-kontrakotasuneko arazoa planteatu zuen. Artikulu horren interpretazioan eta aplikazioan desadostasunak egon ziren, batez ere EKan ezarritako hizkuntza-eskubideei eta berdintasunari dagokienez. ETELen 6. artikulua ezartzen du euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla Euskal Autonomia Erkidegoan. Toki-erakundeek bermatu behar dute herritarrek eskubidea dutela haiekin harremanetan jarri eta hizkuntza horretan artatu nahi duten hizkuntza aukeratzeko. Gainera, dokumentu ofizialak euskaraz idatz daitezke, baldin eta ulertzen ez dutenen eskubideei eragiten ez bazaie. Dokumentu horiek euskaraz bidali behar zaizkie Autonomia Erkidegoko eta Estatuko administrazioei⁴¹.

Epaian, artikulu honen bigarren atala eztabaidatu zen gehienbat. KAEn adierazten da 6.2 artikulua konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela, EKaren 3. eta 14. artikulua urratzen direlako, gaztelaniaren erabilera mugatzen baitu interesdunak euskara ezagutzen ez duen kasuetara, eta eragotzi egiten baitio gaztelania askatasunez erabiltzeko konstituzio-eskubidea baliatzea.

Bada, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen partzialki onartzea EAEko JANko Administrazioarekiko Auzien Salaren Hirugarren Atalak planteatutako konstituzio-kontrakotasuneko arazoa. Ondorioz, Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 6.2 artikuluan jasotako “que pueda alegar válidamente el desconocimiento del euskera” zatiaren konstituzio-kontrakotasuna eta deuseztasuna deklaratu zituen. Epaian, ordea, epaile guztiak ez ziren ados egon, epai horrek doktrinaren erabateko aldaketa baitzekarren.

⁴¹ Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. EAOn 105. zk., 2016ko maiatzaren 5a.

3.1) Epaiaurreko egoera juridikoa

ETELen 6.2 artikularen konstituzio aurkakotasuna ulertzeko ezinbestekoa da denboran atzera egin eta ordura arte doktrinak gaiaren inguruan esan duena aztertzea. Aurretik aipatu izan den bezala, arazoa planteatu aurretik, LARBURU AIZPURUA, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko nagusietako abokatua, EAEko administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz konstituzio aurkakotasunaren kontra agertu zen, legearen tarteki eztabaidatuak ekainaren 26ko 86/1986 KAEak hitzez hitz jasotzen dituela alegatuz.

Behin arazoa planteatuta, epaileen artean ere, desadostasunak egon ziren eta DIEZ BUESO magistratuak bere desadostasuna agertu zuen gehiengoaren iritziaurrean boto partikularra emanaz. Boto horretara ekarri zuen aurretik LARUBURAK aipatutako KAREN epaia.

Izan ere, KAREN 85/2023 epaian zehar askotan aipatzen da aurretik gai honen inguruan zegoen doktrina eta jurisprudentzia, bereziki, 82/1986 KAE hau, ekainaren 26koa. Epaia horretan hizkuntza koofizialei buruzko doktrina garrantzitsua ezarri zen, batik bat, 9. zuzenbide oinarrian: “Las alegaciones del Abogado del Estado de que la posibilidad de utilización de una única lengua oficial por parte de los poderes públicos (...) significa la exclusión en tales casos de un idioma de uso oficial en la Comunidad Autónoma, (...) no tienen en cuenta que la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente (...) siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada, lo que sólo puede hacerse respecto de lengua distinta del castellano”⁴².

Bada ETELen 6.2 artikulua guztiz bat dator zuzenbide oinarri honetan datorren doktrinarekin, doktrina horren arabera berezko hizkuntza ez ezagutzea delako komunikazioak gaztelaniaz jasotzeko eskubide kons-

⁴² Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 82/1986, ekainaren 26koa, 9. Z.O.

tituzionala justifikatzen duen arrazoia. Beraz, hainbeste aldiz aipatutako epai hau, berez, kontuan izan zen ETEL egin zenean, inolako konstituzio kontraktotasunik ez sortzeko helburua betez.

Horrez gain, KAren 85/2023 Epaia 4. oinarri juridikoaren arabera, ETELen 6.2 artikuluan “que pueda alegar válidamente el desconocimiento del euskera” tartekia EKren aurkakoa eta baliogabea da. Baldintza horrek hizkuntza-oreka hausten duela argudiatzen da, gaztelaniaren erabilera euskara ez jakitearen baldintzapean geratzen baita, eta horrek toki-korporazioko kideen hizkuntza-eskubideak arrazoirik gabe murriztea dakar. Justifikazio horrek, ordea, ez ditu kontuan hartzen zenbait gogoeta garrantzitsu.

Lehenik eta behin, doktrina konstituzionalak ez du baieztapen hori babesten duen aurrekaririk. Izan ere, jurisprudenzia ezartzen du gaztelania jakiteko betebeharra nahitaezkoa dela botere publikoen arauak eta jarduerak ulertzeko, baina ez du bazterten beste hizkuntza koofizial batzuk erabiltzea. Ondorioz, “El deber constitucional de conocimiento de castellano (...) es en realidad el contrapunto de la facultad del poder público de utilizarla como medio de comunicación normal con los ciudadanos sin que éstos puedan exigirle la utilización de otra (...) para que los actos de *imperium* que son objeto de comunicación desplieguen de manera regular sus efectos jurídicos”⁴³. Horrela jaso du ekainaren 28ko KAren 31/2010 Epaia bere 14. zuzenbideko oinarrian.

Jurisprudenzia hori guztiz koherentea da aipatutako 82/1986 KAErekin, honako hau adierazi baitzuen: “la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente, por propia iniciativa o incluso a elección de los interesados, cuando así se regule, siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada, lo

⁴³ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 31/2010, ekainaren 28koa, 14. Z.O.

que solo puede hacerse respecto de lengua distinta del castellano. El que todo el procedimiento pudiera realizarse en euskera es consecuencia natural del carácter oficial de esta lengua en la Comunidad Vasca, que conlleva la eficacia, en su ámbito, de las actuaciones realizadas en la misma”⁴⁴.

Epai horrek berak aitortzen du gaztelania baztertzeak kalte egingo liekeela beste hizkuntza koofizial bat ez jakitea baliozkotasunez alegatu dezaketen herritarren eskubideei. Horrek iradokitzen du gaztelania jakitea funtsezko elementua izan dela hizkuntza-koofizialtasunaren araubidea eratzeke eta herritarrek hura erabiltzea eskatzeko duten eskubidean, berriz ere, konstituzio aurkakotasun arazoak ekidituz.

Orain dela gutxiago, 2010. urtean alegia, ekainaren 28ko KAren 31/2010 Epaia 23. zuzenbideko oinarrian hizkuntzen “erabilera normala”ri buruzko doktrina jaso zuen. Epaian, 6.2 artikulua interpretazioa egiterakoan ondorioztatzen da euskarak lehentasuna duela gaztelaniaren aurretik, euskara ez jakitera baldintzatzen delako gaztelaniaz jarduteko aukera eta horrek gaztelania bigarren mailako hizkuntza izateko suposatzen duelako epaileen ustez.

KAren 31/2010 epaiaren 23. zuzenbide oinarriak horrela dio: “Toda lengua oficial es (...) lengua de uso normal por y ante el poder público. También, en consecuencia, lo es el castellano por y ante las Administraciones públicas catalanas, que, como el poder público estatal de Cataluña, no pueden tener preferencia por ninguna de las dos lenguas oficiales”⁴⁵. 31/2010 KAE honetan, egindako aurrerapenak gorabehera, gaztelaniaren eta eskualdeetako hizkuntza ofizialen ezagutzaren betebeharrari buruzko interpretazio argi eta sinesgarria ezarri ez izana kritikatu da⁴⁶.

⁴⁴ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 82/1986, ekainaren 26koa, 9. Z.O.

⁴⁵ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 31/2010, ekainaren 28koa, 23. Z.O.

⁴⁶ LÓPEZ BASAGUREN, A.: “Nación y lengua en el Estatuto de Autonomía de Cataluña”. *Revista general de derecho constitucional*, 2011, 13. extra. zk. 5. or.

Konstituzio Auzitegiak 31/2010 KAEren 23. oinarri juridikoan ezarritako “oreka barkaezinaren” doktrinara jo zuen, konstituzionaltasun-irizpideak nabarmen zabaldu baitzituen. Epai horrek, ordea, ez zuen baztertzeko katalanaren sustapenean eta hedapenean hizkuntza hori gaztelania baino gehiago erabili ahal izatea, baina gaztelania normaltasunez ez erabiltzea debekatzeko zuen⁴⁷. Gainera, aitortzen zuen hizkuntza aukeratzeko eskubideak mekanismoak eska zitzakeela herritarrek komunikazioak gaztelaniaz jaso zituzaten. Hala ere, mekanismo horiek ez zituzten hain formaltasun eta baldintza zorrotzak ezarri behar, herritarrak subjektu aktibo bihurtzeko Administrazio publikoarekiko harremanetan. Auzitegiak baieztatu zuen partikularrek bi hizkuntzen artean aukera dezaketela botere publikoarekin dituzten harremanetan, baldintza berdinetan eta formalitate eta betekizun desberdinik gabe.

Beraz, bi hizkuntza ofizialak, gure kasuan euskara eta gaztelania, erabileran normalekoak dira. Kasu honetan arazoa da lehentasunaren doktrina hau, lehentasunik ezartzen ez duen arau bati aplikatzen zaiola, hizkuntza propioaren “erabileran normala” besterik arautzen ez duen arau bati alegia. ETELen 6.2 artikulua berez, doktrina konstituzionalak etengabe baimendu dituen mugen barruan aplikatzen da, ez baitio inondik eta inora ere euskarari lehentasunik ematen.

Horren harira, Vernetek EKaren 3.1 artikulua inguruan egindako doktrina bien bereizketa berriro aipatzea ezinbestekoa da. Bigarren doktrinaren arabera, aurretik aipatu den moduan, hizkuntza bat jakiteko derrigortasuna ez da ofizialtasunaren ondorio. Beraz, horrek ezinezko

⁴⁷ ARZOS SANTIESTEBAN, X.: “Las consecuencias de la confusa doctrina constitucional sobre el ‘equilibrio inexcusable’ entre las lenguas oficiales: a propósito de la STC 85/2023, de 5 de julio”. Escola d’Administració Pública de Catalunya. *Lengua i Dret Aldizkaria*. 2024ko maiatzaren 16an argitaratua. <https://eapc-rld.blog.gencat.cat/2024/05/16/las-consecuencias-de-la-confusa-doctrina-constitucional-sobre-el-equilibrio-inexcusable-entre-las-lenguas-oficiales-a-proposito-de-la-stc-85-2023-de-5-de-julio-xabier-arzos-santis/> (Azken kontsulta 2024ko maiatzak 18).

egiten du alegatzea hizkuntza horretan emandako egintza eta arauen komunikazio, jakinarazpen edo argitalpenak ez ulertzea. Vernetek bere liburuan jaso zuen argi: “Este último sector doctrinal entiende que los efectos de la declaración de oficialidad son los mismos, tanto para la lengua castellana (art. 3.1. CE) como para el resto de lenguas españolas diferentes del castellano, de conformidad con los respectivos Estatutos de Autonomía (art. 3.2. CE), en la medida que la Constitución no prevé ningún tipo de reserva ni distingue tampoco nociones diferentes para caracterizar la oficialidad de una y otra lengua”⁴⁸.

Horrez gain, epaiak, azalpen gehiagorik gabe, 3. zuzenbideko oinarrian, lehentasunaren doktrina zabaltzen du, beren-beregi ezartzen duten arauetatik haratago, kargak edo betebeharrak partekatzen dituzten formalitateak edo baldintzak ezartzen dituzten arauetara. EAEko legearen 6. artikulua 3. paragrafoak, oster, 31/2010 KAEren 23. oinarri juridikoaren zatiaren amaiera transkribatu besterik ez zuen egiten. EAEko legeak berak dio bermatu egin behar dela herritarrek komunikazio horiek beste hizkuntza ofizialean jasotzeko duten eskubidea gauzatu ahal izatea herritarrei zama edo betebeharra dakarkien formaltasunik eta baldintzarik gabe⁴⁹. Baina epaiak aldarrikatzen du legeak guztiz kontrakoa egiten duela, eta karga edo obligazio bat ezartzen duela defendatzen du.

Gainera, 2018ko otsailaren 8ko 11/2018 KAEak 4. zuzenbideko oinarrian hurrengo jaso du: “La normalidad en el uso constituye un presupuesto de la oficialidad y una propiedad de la lengua que es. Por el contrario, la determinación de la preferencia en el uso de una lengua oficial respecto de otra (u otras) no es compatible con la Constitución”⁵⁰.

⁴⁸ VERNET, J. eta PUNSET, R.: “Lenguas y Constitución”, *op. cit.*, 29-31. orr.

⁴⁹ Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. EAOn 105. zk. 2016ko maiatzaren 5ean argitaratua, 6.3 artikulua.

⁵⁰ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 11/2018, otsailaren 8koa, 4. Z.O.

Baieztapen hori oinarri hartuz, KAEak 85/2023 epaiko 3. zuzenbide oinarrian dio “Cabe indicar a tal efecto que es irrelevante que la atribución de un estatus inferior a cualquiera de las lenguas oficiales se realice de modo expreso declarando de uso preferente de la otra lengua española o a través de la imposición a los ciudadanos de formalidades o condiciones que comporten cargas u obligaciones para poder ejercitar el derecho a la libre opción lingüística”⁵¹. Hori irakurruta, BUESok bere boto partikularrean jaso zuenari jarraituz, gehiengoak ez zuen 11/2018 eta 31/2010 KAEen interpretazio egokia egin.

2013ko irailaren 26ko 165/2013 KAEak ere jaso zuen erabilera normalaren inguruko arauketa: “Desde la perspectiva constitucional, el ejercicio de la potestad legislativa en materia lingüística encuentra sus límites en la necesaria preservación de la garantía de uso normal de las lenguas cooficiales y en la prohibición de medidas excluyentes, peyorativas o desproporcionadas que impliquen un desequilibrio para alguna de las lenguas oficiales”⁵². Baina aurretik aipatutako argudioak mantenduz, ETE-Len 6.2 artikulua bat dator 165/2013 KAEk jasotakoarekin ere.

Hau guztia jakinda ere, epaiaren gehiengoaren iritziak kontrako jarrera defendatzen du, argudiatuz hizkuntza-oreka hautsi egiten dela, gatzelaniaren erabilera euskara ez jakitearen baldintzapean jartzen delako. Normalean, epaiak ebaztean aurretik dagoen doktrina eta jurisprudentzia erabiltzen da oinarri. Hemen ordea, nahiz eta epaian zehar gehiengoak 82/1986 KAE askotan aipatu, bai eta 31/2010 KAE eta beste hainbat, ez zuten doktrina hori oinarri hartu eta haien ebazpena emateko, doktrina erabat aldatu zuten. Efektu hori gizartean *overruling* izenarekin ezagutzen da.

Efektu hori ematen da epaitegiak bere jurisprudentzia albo batera utzi eta doktrina erabat aldatzen duenean ebazpen bat ematerakoan. Zuzenbi-

⁵¹ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 85/2023, uztailaren 5ekoa, 3. Z.O.

⁵² Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 165/2013, irailaren 26koa, 5. Z.O.

dean oso garrantzitsua da jurisprudentzia eta doktrina oinarri hartzea berti antzeko gaiak epaitzerakoan, bereizkeriak edo egoera berean ebazpen desberdinak ez emateko. Batzuetan, hala ere, ezinbestekoa da doktrina horretan aldaketak egitea, gizartea aurrera doan heinean zuzenbidea ere gizarte horretara moldatu behar delako.

Aldaketa horiek, aldiz, aurrerapauso bat izan beharko lukete, esan bezala, gizartean ematen diren ohitura eta usadio aurrerapenetara egokitze-ko. Hemen, ostera, epaiak aurretik zegoen doktrina albo batera uztean izugarritzko atzerapausoa eragiten du euskal hizkuntzaren aurrerapen eta sustatze prozesuan, 1986 aurretik zegoen egoerara itzuliz.

3.2) Ebazpenaren ondorioak

Behin konstituzio kontraktotasun-arazoa ebatzita, EAEko Auzitegi Nagusiak, 2020ko urtarrilaren 21ean Vox eta PP alderdi politikoeek jarritako demandak ebatzi zituen. Bi demandak 2020ko urtarrilaren 21ean aurkeztu ziren, baina prozedurak etenda geratu ziren 2021eko azaroan 45/2020 prozedura arruntean planteatutako konstituzio kontraktotasun-arazoa ebatzi arte.

85/2023 KAEan emandako oinarriek eta argudioek berehala ekarri zuten 2/2016 Legearen arau-garapena berrikusteko beharra, hau da, 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Dekretuaren kontrol horretan, 85/2023 KAEak Eusko Legebiltzarren 2/2016 Legearen 6.2 artikulua deuseztatzeak berarekin ekarri zuen ETEL garatzen duen 2019ko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuko 18. artikuluko lehenengo ataleko bigarren tartekia deuseztatzea, “que pudiera alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada”⁵³.

⁵³ 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. EHAA, 2019ko azaroaren 22a, 179. zk.

Baina 2023ko uztailaren 5eko 85/2023 KAEk konstituzioaren aurkakotzat eta deuseztat jotako erregelamendu-arauaren antzeko tartekiaz gain, lege-aginduren konstituzionaltasun-kontrola sustatu zuen EAEko Auzitegi Nagusiko atal berberak, 179/2019 Dekretuaren beste hamabi manu osorik edo partzialki baliogabetu zituen. Manu hauek ez zuten inolako zerikusirik euskara ez jakitearen alegazioarekin, baina baliogabetu egin zituzten euskararen erabilerari buruzko aipamen oro tratu pribilegiatu baten ezarpenzat jotzen zuelako —2023ko irailaren 28ko 435/2023 KAEren eta 2023ko urriaren 4ko 440/2023 KAEren bidez—.

EAEko ANak 2023ko irailaren 28ko 435/2023 epaiaren⁵⁴ bitartez, Vox alderdi politikoak jarritako demanda partzialki onartu zuen. Horren bidez, EAEko ANak baliogabetu egin zituen, besteak beste, bi artikulua hauek: batetik, toki-erakundeetako eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetako langileak, lehenik eta behin herritarrari euskaraz zuzenduko zaizkiola eta hark aukeratutako hizkuntzan jarraituko dutela ezartzen zuten atalak (27.1.a); bestetik, gailu automatikoen, telefono bidezko informazio-zerbitzuen, bozgorailuen edo antzekoen bidez igorritako hitzezko mezuak, hartzaile jakinik gabe, lehenik eta behin euskaraz egingo direla zioen atala (27.e).

Horiek ez ziren baliogabetutako atal bakarrak izan. 435/2023 epaian 10 manu baliogabetu ziren: 9.2., 11.1., 12., 18.1., 24.3., 27.1.a), 27.e), 36.7., 36.8.b) eta 36.10. artikulua. Hilabete bat geroago, 2023ko urriaren 4ean, EAEko ANaren 440/2023 epaiaren⁵⁵ bidez, PP alderdi politikoak jarritako demanda ere partzialki onartu zen, 2019ko azaroaren 19ko 179/19 Dekretuaren 18.1, 18.2 eta 33.5 artikulua deuseztatuz. 18.1 artikulua izan ezik, beste guztiek ez dute 2/2016ko 6.2. artikulua-

⁵⁴ EAEko Auzitegi Naziolaren 435/2023 epaia, 2023ko irailaren 28koa.

⁵⁵ EAEko Auzitegi Naziolaren 440/2023 epaia, 2023ko urriaren 4koa.

rekin zuzeneko loturarik, baina KAE baliatu zuten euskararen erabilera “sustatzen” zuten manu oro baliogabetzeko.

3.3) Planteamendu berriak

Dagoeneko errekurritu da KAK emandako ebazpena 85/2023 epaian. Bada, arazoa aztertze aldera, Laura Díez Buescok bere boto partikularrean azaldutako planteamenduetaz gain, beste kontu bi ere kontuan hartu beharko dira, bere unean inork egin ez zituenak edo behintzat garatu gabe geratu direnak.

Lehenik eta behin, 6.2. artikuluko tartekari horren interpretazio gramatikala kolokan geratu da. Arau bat behar bezala interpretatzeko, epaileak zenbait elementu hartu behar ditu kontuan, arauaren esanahia eta irismena ulertzen lagunduko diotenak. Elementu horiek Espainiako kode zibilaren 3. artikuluan jasota daude, eta honako hauek dira:

Gramatikala: Araua osatzen duten hitzak aztertu behar dira, arau gramatikalak erabiliz. Era horretan hitzei zentzu bat ematen zaie, beti ere ahalik eta esanahi zehatz, logiko eta egokienera hurbilduz. Hori da interpretaziorik logikoena eta legearen hitz zehatzetan oinarritzen da.

Historikoa: Legearen zentzua argitzeko, legea sortu zen momentuko ezaugarri politiko, juridiko eta sozialak aztertzean datza, hau da testuinguru historikoa ezagutzea. Legearen proiektu eta aurrekariak ezagutu behar dira eta amaierako emaitzaren elaborazio prozesua aztertu.

Soziologikoa: Araua aplikatzen den garaiko errealitate soziala hartzen da kontuan. Horrek esan nahi du kontuan hartu behar direla araua onartzean eragina izan zuten elementu ideologikoak, moralak eta ekonomikoak.

Sistematikoa: Araua interpretatzeko, kontuan hartzen da gainerako ordenamendu juridikoarekin duen lotura, zuzenbidearen printzipio orokorrrak barne.

Teleologikoa: Lege-agindu baten zentzua eta irismena zehazten dira, arau horrekin lortu nahi den helburua kontuan hartuta.

Bada interpretazio gramatikala egitea ezinbestekoa da arauak benetan esaten duena eta esaten ez duena zehazteko. 6. artikuluko bigarren atal horrek argi uzten du edozein kidek euskara ezagutzen ez duela alegatzen badu dena gaztelaniaz egiteko aukera dagoela. Baina ez da inon esaten euskara ezagutzen badu derrigorrez euskaraz egin beharko duenik. Tesuaren literaltasuna aztertzen baldin bada, ahalmen bati buruz ari da, ez derrigortasun bati buruz.

Lehenengo esaldiak argi dio zenbait dokumentu eta testu euskaraz idatzi ahal izango direla. “Ahal” hitz hori gaztelera “poder” aditzarekin itzultzen da. Bada aditz horrek gaitasuna, ahalmena edo ahaltsuna adierazten du, inolaz ere ez inposaketa edo ezarpena. Bigarren esaldiak aditz hau aipatzen du beren-beregi “Ahalmen hori erabili ahal izango da”. Beraz, kideren batek euskara ez badaki gazteleraz egingo da, baina kide guztiek euskara badakite, euskaraz egin ahal izango da.

Ahalmen hori, gainera, 6. artikulua lehenengo atalean argi adierazi da, bermatu egingo da herritarrek toki-erakundeekin harremanetan jartzen diren hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea benetan erabiliko dutela esaten denean. Gramatika araei jarraituz, esaldiak ezin dira modu isolatu batean interpretatu, eta aurretik edo ostean datorrena ere hartu behar da kontuan. Kasu honetan, beraz, artikulua osoa aztertuz gero, lehenengo ataleko berme hori bigarren atalak une oro errespetatzen du eta euskara aukerako hizkuntza da herritar guztientzat, artikulua bere bi ataletan adierazi duen bezala. Ondorioz, epaiak esandakoa ez da guztiz zuzena, testuak ez duelako inolaz ere inor dokumentuak euskaraz egitera edo jasotzera derrigortzen, pertsona horrek euskara jakin ez.

Bigarren, hasieran aipatutako arauen artean, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (2000) dago, Europako Kontseii-

luaren esparruan bultzatua eta Espainiak berretsi egin duena. Gutun horretako zenbait artikulua aplika daitezke epai honetan. Izan ere, 10. artikulua aipatu ere egiten da. Baina edukia ondo aztertuta, ezinbestekoa da 7. artikulua kontuan hartzea, orain arte epaian agertu ez dena.

7. artikulua bigarren zatian esaten denez, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna sustatzeko, ez da gehien erabiltzen diren hizkuntzen hiztunen aurkako diskriminazio-ekintza bat. Artikulu horri jarraituz, eta BUESok doktrinaren inguruan esandakoa gogoratzuz, 2/2016 Legearen 6.2 artikulua euskararen erabilera bultzatzeko neurriak ezartzen ari da, hori baita azken finean Legeak duen helburuetako bat. Testu osoan zehar argi uzten da gaztelania eta euskara maila berean erabili daitezkeela eta herritarrek bietatik edozein aukeratzeko eskubidea dutela. Beraz, gutuna errespetatuz, ez da inolako diskriminaziorik ezarri euskara ezagutzen ez dutenen kontra.

IV. ONDORIOAK

LEHENENGOA.— 85/2023 Epaiak EAEn hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko irizpideak aldatzea ekarri du. Ebazpena ematerakoan, legegileak aurretik zegoen doktrinaren eta jurisprudentziaren interpretazio zabala egin du, 82/1986, 31/2010, 165/2014 edota 11/2018 KAEek esandakotik haratago. Horrek berarekin ekarri du doktrina berritzea, arlo honetako segurtasun juridikoa kolokan jarri duena.

Doktrinaren eraldatze horrek *overruling* kasu bat ekarri du. Legegileak aurreko epaiak esandakoaren interpretazio berri bat eginez ebatzi du epaia. Kasu honetan, dena den, deigarriena da ez dela aparteko egoera aldaketarik egon *overruling* hori justifikatzeko. Gizartea aurrerantz doan heinean, legegileak ezinbesteko du batzuetan aurreko doktrina eraldatzea

egoera berrietara egokitzeko. Hemen, ostera, ez da egoera berri batera egokitu, egoerak berdin jarraitzen duelako. Alderantziz, atzera pauso bat eman du, orain dela 20 urte baino gehiago zegoen egoerarantz atzera egitea ekarri baitu.

Izan ere, oso ondo bermatzen da euskara ez dakitenen eskubidea dokumentu guztiak gaztelaniaz egiteko; alderantziz, ordea, ez dago hain argi. Biztanle guztiak gaztelera ezagutzeko betebeharra dutenez, udaleko kide batek gaztelaniaz egitea nahi izanez gero, nahikoa da beste guztiak gaztelaniaz egitera behartuta egoteko? 2/2016 Legeko 6.2 artikuluko tartekia ezabatzean, gero 179/2019 Dekretuko 18.1 artikuluko tarteki berbera ezabatzea ekarri zuena, gaztelaniaz egiten dutenen alde jardun da, euskaldunek ez baitute aukerarik gaztelania ez dakitela esateko dokumentuak euskaraz egin ahal izateko. Gaztelaniaz egin nahi dutenek, ordea, nahikoa dute euskaraz ondo moldatzen ez direla esatearekin talde osoa gaztelaniaz egitera behartzeko. Ez da inolako ahaleginik egiten euskaldunek agiriak eta beste zenbait dokumentu euskaraz egin ahal izateko, eta zalantzan jartzen da euskaldunen eskubideak bermatzen direla, oso mugatuta geratzen baitira erdaldunen aldean. Epaiak dio euskarak gehiegizko nagusitasuna (supremacía exorbitante)⁵⁶ duela gaztelaniaren aurrean. Aurrekoa ikusita, argi dago hori ez dela horrela errealitatean.

BIGARRENA.— Europako Eskualdeetako eta Eremu Urriko hizkuntzen Europako Gutunak hizkuntza gutxituak sustatzea du helburu. Gaur egungo gizarte globalizatu honetan ez da hain erraza hizkuntza gutxituak mantentzea, errazago da ingelesa edo gaztelania bezalako hizkuntzak ikasi eta mundu osoarekin hizkuntza horiek erabiliz komunikatzea. Euskara ez da hizkuntza global horietan sartzen, kontrakoa baizik. UNESCOk adierazi du euskara hizkuntza gutxitu horietako bat dela, eta ondorioz, mantentzeko lan egin behar da.

⁵⁶ Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 85/2023, uztailaren 5ekoa, 3. Z.O.

Espainiak, EBaren estatukide den aldetik, Europatik datorren gutuna onartu du, Espainiako estatuaren barruan dauden hizkuntza gutxituen alde. Izan ere, EKak 3.3. artikuluan jaso du Espainiako hizkuntza-modalitateen aberastasuna kultura-ondarea dela, eta errespetu eta babes berezia izango duela. Baieztapen hau konstituzioan jaso da, baina errealitatean bete ere egin behar da, eta azken epaiek ez dute horren aldeko ahaleginik egin, alderantziz baizik.

Aurretik aipatu den bezala, 2023ko irailaren 28ko 435/2023 KA Eren eta 2023ko urriaren 4ko 440/2023 KA Eren bidez 179/2019 Dekretuko 12 manu garrantzitsu baliogabetu ziren. Manu horiek EKko 3.3 artikuluan aipatutako euskararen babes berezia ezartzen zuten, Europako Eskualdeetako eta Eremu Urriko hizkuntzen Europako Gutunak hizkuntza gutxituak sustatzeko helburuarekin bat etorriz. Esaterako, baliogabetu zen artikuluetako bat 9.2. artikulua izan zen. Artikulu horrek zioen hizkuntzaplantzaz udal-jarduerak euskaraz egitea ahalbidetuko zuela. Horretarako, udalerriaren funtzionamendua euskaraz sustatzeko neurriak hartuko zirela jaso zuen, bereziki hizkuntza hori ezinbestekoa den guneeetan.

Artikulu horrek ez du inondik inora ere gaztelaniaz jarduten dutenen eskubidea urratzen. Ez da inon esaten gaztelaniaz egiten dutenak euskaraz egitera behartuta egongo direla, ezta baztertuak izango direla gaztelaniaz egiten badute. Dekretuko 9.2. artikulua euskara sustatzeko babes berezia ezartzen du. Gainera, Europako Eskualdeetako eta Eremu Urriko hizkuntzen Europako Gutunak jaso zuenari jarraituz, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna sustatzeko, ez da gehien erabiltzen diren hizkuntzen hiztunen aurkako diskriminazio-ekintza bat. Epaileek, ordea, gaztelaniaz egiten dutenen kontrako diskriminaziotzat jo zituzten bai 9.2. artikulua bai baliogabetuak izan ziren beste 11 artikulua, Europak esandakoari jaramonik egin gabe eta, berriz ere, aurreko doktrina eta jurisprudentziak jasotakoa albo batera utzita.

HIRUGARRENA.— EK da gaur egun Espainiako barne ordenamendu juridikoko arau gorena, baina baita kasu honetarako zalantza gehien sortu dituen ere. Bertan argi jaso da gaztelania dela estatuko hizkuntza ofiziala eta herritar guztiek dutela gaztelania jakiteko betebeharra. Baina bertan jaso da baita Estatuko beste hizkuntzak ere ofizialak izango direla dagokien Autonomia Erkidegoetan, Autonomia Estatutan jasotakoaren arabera. Beraz, gaztelania hizkuntza ofiziala izanik ezagutzeko betebeharra badago, euskara EAEan hizkuntza ofiziala bada, euskara jakiteko betebeharra dagoela ulertu behar da?

Horixe da doktrina askok zalantzan jarri dutena eta urteetan zehar asko eztabaidatu den kontu bat. Hizkuntza bi ofizialak badira, bien egoera berbera izan beharko litzateke bai legean eta bai praktikan. EKak, ordea, ez du hori horrela jaso eta ez dio euskal legegileari ere hori horrela jasotzen utzi. Logikoa, EAEko Autonomia Estatutuan euskara ezagutzeko betebeharra jasotzea dirudi, EKak gaztelaniarekin egin duen bezala. Baina hori Konstituzio aurkakoa izango litzateke, EKak ez baitu inon esaten euskara ezagutzeko betebeharra dagoenik. Beraz, sustraietara jo behar da hizkuntza biak baldintza berberean jartzeko, Konstituzioaren 3. artikulura alegia.

a) *De lege ferenda* proposamenak

Aurreko guztia kontuan izanik, irtenbideetako bat EKko 3. artikulua aldatzea izango litzateke. Gaztelania bada estatuko hizkuntza ofiziala eta gaztelania ezagutzeko betebeharra badago estatu mailan, euskara izanik EAEko hizkuntza ofiziala, berau ezagutzeko betebeharra ere aitortu beharko litzateke, EAE mailan bada ere. URRUTIA LIBARONAK jaso zuen bezala, EKak asimetria bat sartzen du hizkuntza ofizialen artean, gaztelaniari dagokionez bakarrik arautzen baita ezagutzaren betebeharra⁵⁷.

⁵⁷ URRUTIA LIBARONA, I.: “El nuevo régimen jurídico de las lenguas oficiales...”, *op. cit.*, 140. or.

Ondorioz, euskal legegileak lan handia du egoera hau aldatzeko, aldatu beharreko lehenengo gauza konstituzioa bera izan beharko litzatekelako, 3. artikuluan manu berri bat sartuz: “3.2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritz. Ondorioz, autonomia-erkidego horietako biztanle guztiek dute dagokion hizkuntza jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea”.

Konstituzioaren eraldatzeari dagokionez, 2 prozedura ezarri dira aldatu beharreko gaiaren arabera. Kasu honetan, EKko 3. artikulua atariko tituluan kokatuta dago. Ondorioz, prozedura areagotuaren bitartez aldatu beharko litzateke, hau da, EKren 168. artikuluan jasotakoaren arabera. Prozedura hori nahiko zurruna eta konplexua⁵⁸ da. Printzipioz, Konstituzioaren testu osoa eraldatu daiteke, baina EKak ezarritako prozedurak ez dira baxterre lagungarriak, eta are gutxiago prozedura areagotua, ia ezinezko egiten baitu EKren atariko tituluko artikuluren bat aldatzeko ahaleginak aurrera egitea. Historian zehar EKak bi eraldaketa baino ez ditu izan: 1992an Espainiak Europar Batasuneko Tratatu berresteko egin zen eraldaketa eta 2011n defizitaren debekapena ezartzeko 135. artikuluan egindakoa. Beraz, nahiko zaila egiten da imaginatzea 3. artikulua hori aldatuko denik, eta are gutxiago euskara gaztelaniaren maila berera ekartzeko bada.

EK aldatzeko zailtasunak beste konponbide bat bilatzera eramaten gaitu, hizkuntza ofizialen definizioa berrikustera alegia. Berez, bai gaztelania bai euskara hizkuntza ofizialak dira, eta ofizialak diren heinean, baldintza berberak izan beharko lituzkete. Ondorioz, Europatik hizkuntza ofiziala zer den adierazten duen definizio zehatz bat sortzea ez litzateke txarto egongo. Era horretan, argi geratuko litzateke hizkuntza bat ofizial izateak, hizkuntza hori jakiteko betebeharra sortzen duen edo ez.

⁵⁸ LARRAZABAL BASAÑEZ, S.: *Konstituzio zuzenbidearen eskuliburua. I. liburukia: Konstituzio historia. Iturrien sistema. Oinarrizko eskubide eta eginbeharra*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2007, 17 zk., 197. or.

Herritarrak gaztelania ezagutzera behartzeak, euskararekin egiten ez den bezala, nolabait gaztelania euskararen gainetik jartzea dakar. Biak badira hizkuntza ofizialak biak egon behar dira maila berdinean, egoera berean araututa eta baldintza berdinekin. Azken epai hauek ikusita zailantza sortzen da maila berdintasun horren inguruan.

Azken finean, 2/2016 Legeak bidea irekitzen du euskara lan-hizkuntza ere izan dadin, erabilera arruntekoa, betiere herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuz⁵⁹. Legeak ez du bilatzen euskara gaztelaniaren gainetik jartzea. ETELak herritarrak jartzen ditu hizkuntza-sistemaren ardatzean, eta administrazioak sistema horrek adierazten duen hizkuntza-aukerara egokitu beharra jaso du. Ondorioa argia da, bai Europatik datorren gutunak bai EKak hizkuntza gutxituen sustapena bilatzen dute, euskara hizkuntza horietako bat izanik. Gainera, euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira. Beraz, 2/2016 Legea eta hori garatzen duen 179/2019 Dekretua ezinbestekoak dira euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bihurtzeko, gaztelaniaren maila berean, edozein hizkuntza ofizialen mailan.

V. BIBLIOGRAFIA eta ITURRIAK

5.1) Bibliografia

AGUIRREAZKUENAGA, I.: “Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas”. Ondoko lanean: MARTIN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord.): *Estudios sobre la Constitución Española: Homenaje al profesor García de Enterría*. Madril: Civitas gitaletxea, 1991.

ARZOZ SANTIESTEBAN, X.: “Las consecuencias de la confusa doctrina constitucional sobre el ‘equilibrio inexcusable’ entre las lenguas oficiales: a propósito de la STC 85/2023, de 5 de julio”. Escola d’Administració Pública de Catalunya.

⁵⁹ URRUTIA LIBARONA, I.: “El nuevo régimen jurídico de las lenguas oficiales...”, *op. cit.*, 168. or.

Lengua i Dret Aldizkaria. 2024ko maiatzaren 16an argitaratua. <https://eapc-rld.blog.gencat.cat/2024/05/16/las-consecuencias-de-la-confusa-doctrina-constitucional-sobre-el-equilibrio-inexcusable-entre-las-lenguas-oficiales-a-proposito-de-la-stc-85-2023-de-5-de-julio-xabier-arroz-santis/> (Azken kontsulta 2024ko maiatzak 18).

ARZOZ SANTIESTEBAN, X.: “Lenguas y modalidades lingüísticas en la Constitución Española: ¿Dos regímenes jurídicos diferenciados?”. Ondoko lanean: MILLAN I MASSANA, A. (koord.): *El plurilingüisme a la Constitució Espanyola*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya, 2009, Col·lecció Institut d’Estudis Autònomic 65. zk.

AYESTA SAGARDUI, K. “Europar Batasuneko hizkuntz politika, praktikak eta diskurtsoak”. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 2021, 121. zk.

BARANDIARAN, J.M.: “Euskal ohikunde edo legediazaz hitz bi” RIEV, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1986, 31. zk.

BAZAKO ATUTXA, P. eta ETXANOBE LANDAJUELA, E.: “Ley Municipal de Euskadi. ¿Esta vez sí?”. *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria*, 2015, 8. zk.

BORRAJO INIESTA, IG.: “El status constitucional de los extranjeros”. Ondoko lanean: MARTIN-RETORTILLO BAQUER, S. (koord.): *Estudios sobre la Constitución Española: Homenaje al profesor García de Enterría*. Bigarren liburukia *De los Derechos y Deberes fundamentales*. Madril: Civitas argitaletxea, 1991.

EUROPAR BATASUNA. *Lenguas, mutilingüismo, régimen lingüístico*. Europar Batasuneko web orri ofiziala. (Azken kontsulta 2024ko maiatzaren 1ean) https://european-union.europa.eu/principles-countries-history/languages_es

GOYHENECHÉ, E.: “Les sources du Droit basque. La maison et la famille”. Le Pays Basque. Soule - Labourd - Basse-Navarre. *Société Nouvelle d’éditions Régionales et de Diffusion*, 1979.

GURRERA ROIG, M. “El pluralismo lingüístico”. *Revista de estudios políticos*, 48. zb.

IGARTUA, I. eta ZABALTA, X.: “Euskara”. Etxepare Euskal Institutoa, *BASQUE*, 2021.

LALINDE ABADÍA, J.: “La ubicación del Dreyto de Navarra en el área española del Directum”. *Segundo Congreso General de Historia de Navarra*. 1992, 14. zk.

LARRAZABAL BASAÑEZ, S.: “Derecho Público de los Territorios Forales. De los orígenes a la abolición foral”. Oñati: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP), 2004.

LARRAZABAL BASAÑEZ, S.: *Konstituzio zuzenbidearen eskuliburua. I. liburukia: Konstituzio historia. Iturrien sistema. Oinarritzko eskubide eta eginbeharrak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2007, 17 zk.

LARRAZABAL BASAÑEZ, S.: “Zume hauekin... ekin lanari. Reflexiones sobre la génesis, naturaleza e inserción de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi en el peculiar sistema de fuentes del Derecho vasco”. *Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 2017, 107. zk.

LÓPEZ BASAGUREN, A.: “Nación y lengua en el Estatuto de Autonomía de Cataluña”. *Revista general de derecho constitucional*, 2011, 13. extra. zk.

RAZQUÍN LIZARRAGA, M.M.: “La Ley de Instituciones Locales de Euskadi: visión general y encuadre del nivel institucional”. *Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 2017, 107. zk.

SÁNCHEZ AGESTA, L. eta PRIETO DE PEDRO, J.: “Las lenguas de España”. Ondoko lanean: SÁNCHEZ AGESTA, L.; GOIG MARTÍNEZ, J.; PRIETO DE PEDRO, J. eta beste batzuk: *Comentarios a la Constitución Española. Tomo I - Preámbulo y artículos 1 al 9 de la Constitución Española de 1978*. Madril: Edersa argitaletxea, 2006.

URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: “El Derecho foral vasco en la Historia”. Ondoko lanean: URRUTIA, A.; ATXABAL, A.: eta beste batzuk: *Practicum de Derecho Civil Foral del País Vasco*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995.

URRUTIA BADIOLA, Andrés M.: “Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas *inter privatos*: Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea”. Bilbo: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP), 2016.

URRUTIA LIBARONA, I.: “El nuevo régimen jurídico de las lenguas oficiales en la Ley de Instituciones Locales de Euskadi”. *Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 2017, 107. zk.

VERNET, J.; PUNSET, R.: “Lenguas y Constitución”. Madril: Iustel, 2007.

5.2) Legeria

EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUA. Eskualdeetako eta Ereku Urriko hizkuntzen Europako Gutuna (ECRML), Estrasburgon sinatua 1992ko azaroaren 5ean.

EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUA, PARLAMENTUA ETA BATZORDEA. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen gutuna, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratua 2012ko urriaren 26an, 41.4. artikulua.

Espainiako Konstituzioa, *Gaceta de Madril*en 344. zk., 1931ko abenduaren 10ean argitaratua.

Espainiako Konstituzioa, EAOn 311. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua.

3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa, EAOn 306. zk., 1978ko abenduaren 29an argitaratua.

10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa, EHAAren 160. zk., 1982ko abenduaren 16an argitaratua, eta EAOn 100. zk., 2012ko apirilaren 26an argitaratua.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, EAOn 80. zk. 1985eko apirilaren 3an argitaratua.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, EHAAren 70. zk., 2016ko apirilaren 14an argitaratua eta EAOn 105. zk. 2016ko maiatzaren 2an argitaratua.

781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen, EAOn 96. zk. 1986ko apirilaren 22an argitaratua.

179/2019 DEKRETUA, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. EHAAren 179. zk., 2019ko azaroaren 22koa.

5.3) Jurisprudentzia

Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 82/1986, ekainaren 26koa.

Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 31/2010, ekainaren 28koa.

Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 165/2013, irailaren 26koa.

Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 11/2018, otsailaren 8koa.

Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 85/2023, uztailaren 5koa.

EAEko Auzitegi Naziolaren 435/2023 epaia, 2023ko irailaren 28koa.

EAEko Auzitegi Naziolaren 440/2023 epaia, 2023ko urriaren 4koa.

Higiezin gaineko kreditu-kontratuen arazoak. Bereziki, hipoteka-gastuen itzulera*

Galder CALAVIA BARRÓN

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 12/12/2025

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 12/03/2026

Laburpena: Lan honek higiezin gaineko kreditu-kontratuak eta hipoteka-gastuen itzulketa aztertzen ditu ikuspegi juridikotik. 5/2019 Legeak eta Europako zuzentarauek kontsumitzaileen babesa eta merkatuaren gardentasuna indartu dituzte. Gardentasun hori bermatzeko, EINF eta OEF informazio-fitxak eta notarioaren aholkularitza ezinbestekoak dira. Hipoteka-gastuen banaketa zehazten da: bankuak gehienak bere gain hartu behar ditu, eta bezeroak tasazioa. Irekiera-komisioak eta aurretiazko mugaeguneratzeak kontsumitzaileentzat abusuzkoak izan daitezkeen aztertzen da. Arreta berezia jartzen zaio 2024ko EBko Justizia Auzitegiaren epaiari, preskripzio-epeak argitzeko. Epai horren arabera, preskripzio-epea ezin da hasi kontsumitzaileak bere eskubideak benetan ezagutu arte. Erabaki honek erreklamazio berriei bidea irekitzen die, finantza-erakundeen aurreko babesgabetasuna gutxituz.

Gako-hitzak: kreditu-kontratuak; hipoteka-gastuen itzulketa; kontsumitzaileak.

*“Legelari gazteentzako Adrián Celaya Saria”ren IX. Edizioan saritutako lana, Akademia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2024an emana.

Academia Vasca de Derecho
Zuzenbidearen Euskal Akademia
ISSN: 2173-9102
D.L./L.G.: BI-1677-03

Ilustre Colegio Notarial del País Vasco
Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua
Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia
Bizkaiko Abokatu Elkargo Ohoretsua
Boletín *JADO*. Bilbao. Año XX. Nº 33. Enero-Diciembre, 2025, pp. 79-124
JADO Aldizkaria. Bilbo. XX. urtea. 33 zk. 2025, Urtarrila-Abendua, 79-124 or.

**Problemas de los contratos de crédito sobre bienes inmuebles.
Especialmente, la devolución de los gastos hipotecarios**

Resumen: Este trabajo analiza desde el punto de vista jurídico los contratos de crédito sobre inmuebles y la devolución de gastos hipotecarios. La Ley 5/2019 y las directivas europeas han reforzado la protección de los consumidores y la transparencia del mercado. Para garantizar esta transparencia son imprescindibles las fichas informativas EINF y OEF y el asesoramiento notarial. Se detalla el reparto de los gastos hipotecarios: el banco debe asumir la mayoría y el cliente la tasación. Se analiza si las comisiones de apertura y los vencimientos previos pueden ser abusivos para los consumidores. Se presta especial atención a la sentencia del Tribunal de Justicia de la UE de 2024 para aclarar los plazos de prescripción. Según esta sentencia, el plazo de prescripción no puede iniciarse hasta que el consumidor no conozca realmente sus derechos. Esta decisión abre el camino a nuevas reclamaciones, minimizando la desprotección frente a las entidades financieras.

Palabras clave: contratos de crédito; devolución de gastos hipotecarios; consumidores.

**Problems of Credit Contracts on Real Estate. Especially,
the Reimbursement of Mortgage Expenses**

Abstract: This paper analyzes mortgage loan agreements and the reimbursement of mortgage expenses from a legal perspective. Law 5/2019 and European directives have strengthened consumer protection and market transparency. To guarantee this transparency, EINF and OEF information sheets and notarial advice are essential. The distribution of mortgage expenses is detailed: the bank must assume the majority, and the client the appraisal. The paper analyzes whether opening fees and early repayment penalties can be considered abusive for consumers. Special attention is paid to the 2024 ruling of the Court of Justice of the EU to clarify the statute of limitations. According to this ruling, the statute of limitations cannot begin until the consumer is fully aware of their rights. This decision paves the way for new claims, minimizing the lack of protection against financial institutions.

Key words: loan agreements; reimbursement of mortgage expenses; consumers.

Higiezinen gaineko kreditu-kontratuen arazoak.
Bereziki, hipoteka-gastuen itzulera

AURKIBIDEA: I.- LABURDUREN ZERREND A. II.- SARRERA. III.- HIGIEZINEN GAINEKO KREDITU-KONTRATUAK: 3.1) Kontzeptua eta arauketa; 3.2) Oinarrizko osagaiak. IV.- HIPOTEKA-MAILEGUETAKO HARTZAILEAREN BABESA: 4.1) Mailegu-emailearen informazio-betebeharra; 4.2.) Notarioaren aholkularitza; 4.3) Korritu-tasaren aldaketen kontrola. V.- KLAUSULA ARAZOTSUAK: 5.1) Lurzoru-klausulak; 5.2) Hipoteka-gastuak; 5.3) Aurretiaz mugaeguneratzea; 5.4) Irekiera-komisioa. VI.- BEREZIKI HIPOTEKA-GASTUEN ITZULKETARI BURUZKO JURISPRUDENTZIA: 6.1) Arazoaren planteamendua; 6.2) Aurreko ebazpenak; 6.3) Azken epaia. VII.- ONDORIOAK. VIII.- BIBLIOGRAFIA ETA BESTE ITURRI BATZUK: 8.1) Bibliografia; 8.2) Legeria; 8.3) Jurisprudenzia.

I. LABURDUREN ZERRENDA

AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia
Art.	Artikulua
EINF	Europako Informazio Normalizatuaren Fitxaren (“FEIN: <i>Ficha Europea de Información Normalizada</i> ”)
OEF	Ohartarazpen Estandarizatuen Fitxa (“ <i>FIAE: Ficha de Advertencias Estandarizadas</i> ”)
<i>Op. cit.</i>	“ <i>Opere citato</i> ”
Or.	Orrialdea
Zk.	Zenbakia

II. SARRERA

2014. urtean Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak argi adierazi zuten 2014ko otsailaren 4ko 2014/17/EB Zuzentarauko hitzaurrean (hemendik aurrera, “2014/17/EB Zuzentaraua”)¹, finantza-krisiak erakutsi duela merkatuan parte hartzen dutenen jokabide arduragabeak finantza-sistemaren oinarriak ahuldu ditzakeela, eta horrek ondorio sozial eta ekonomiko larriak izan ditzakeela. Baieztapen horren isla da, Zuzentaraua idazterako momentuan, eta baita egun ere, Europar Batasuneko kontsumitzaileek zor-maila handiak dituztela, eta zor horren zati handi bat bizitegi-erabilerako ondasun higiezinekin lotutako kredituetan kontzentratzen dela.

Horren eretzean, ikerlan honetan aztertuko dugu nola askotan mailegu-hartzaileek, informazio faltagatik edo akritikoak izateagatik, higiezin gaineko kreditu-kontratuak harpidetu izan dituzten zinez ulertu gabe banketxeek kontratuetan txertatzen dituzten klausulen ondorio ekonomikoak. Eta, batez ere, azaldu nahi nuke nola egoera horretan daudenen gain Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak emandako epaiek eragina izan duten, batik bat, hipoteka-gastuen inguruan emandako erreklamazioei dagokionez.

¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/17/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 4koa, kontsumitzaileekin bizitegi-erabilerako ondasun higiezinatarako egindako kreditu-kontratuak buruzkoa, zeinaren bitartez aldatzen diren 2008/48/EB eta 2013/36/EB Zuzentarauak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1093/2010 Erregelamendua. Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren 60. zk., 2014ko otsailaren 28koa, 34. or.

Ildo horri ekinez, gairen inguruko eskuliburu, artikulua, arau, Europar zein barne jurisprudentzia eta bestelako iturriak jorratu ostean, Gradu Amaierako lan hau lau atal nagusitan egituratu dut.

Lehenik eta behin, higiezinaren gaineko kreditu-kontratuaren kontzeptuari buruzko hurbilpen bat egingo dut, horren oinarritzko osagaiak jasoz. Bigarrenik, hipoteka-maileguetako hartzaileek daukaten babes bereziari helduko diot, hala nola, informazio-betebeharrari eta notarioaren aholkularitzari buruz hitz eginda. Hirugarrenez, Gradu Amaierako lanaren abiapuntuaren inguruan arituko naiz, hots, hipoteka-maileguetan azkenengo urteetan agertu diren klausula-arazotsuen inguruan. Ostean, bereziki hipoteka-gastuei buruzko eztabaida mahaigaineratuko dut, azkenengo urteetako epai esanguratsuenak azalduz, eta bereziki, 2024ko urtarilaren 25ean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako epaia. Eta amaitzeko, lanaren oinarritzko gakoak baitaratzen dituzten ondorioak aurkeztuko ditut.

III. HIGIEZINEN GAINEKO KREDITU-KONTRATUAK

3.1) Kontzeptua eta arauketa

Lehenik eta behin, eta testuinguruan jartzeko asmoz, higiezinaren gaineko kreditu-kontratuen oinarria ulertzeko, ezinbestekoa da auziaren inguruko legeria mahai gainean jartzea. Oro har, kontsumoaren baitako kreditu-kontratuen arauketa orokorra ekainaren 24ko 16/2011 Legean, kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoan², topa daiteke (hemendik aurrera, “16/2011 Legea”). Izan ere, 16/2011 Legea onetsi zen Europako

² Ekainaren 24ko 16/2011 Legea, kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofizialaren 151. zk., 2011ko ekainaren 25ekoa, 10970. or.

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/48/EB Zuzentarauaren³ transposizioa egiteko asmoz. Ondorioz, Europar Batasuneko Estatu kideen barne legeria homogenea izatea lortuko litzateke.

Lege horren 3 artikuluan, ostera, adierazten da ez dela aplikagarria izango “higiezin-hipotekarekin bermatutako kreditu-kontratueta” (nahiz eta ostean azalduko den moduan, gaur egun indarrean dagoen higiezin gaineko kreditu-kontratuen lege berezian igorpena egiten den 16/2011 Legea), eta horrek ekarri du botere legegileak lege berezi bat eman behar izatea problematika zehatz horri erantzuteko.

Lanaren sarreran azaldu bezala, 2007 eta 2008 urteetako finantza-krisiaren ondorio modura, ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-kreditu bat kontratatu zuten pertsona askok zailtasunak eduki zituzten betebeharrei aurre egiteko. Hori dela eta, botere legegileak neurriak hartu behar izan zituen hipoteka-zordunen egoera arintzeko, hainbat modutan. Neurri horiek indarrean sartu ziren maiatzaren 14ko 1/2013 Legearen bidez⁴ (hemendik aurrera, “1/2013 Legea”).

Besteak beste, kolektibo bereziki kalteberen ohiko etxebizitzaren gaineko kaleratzeak etetea erabaki zen, betekizun ekonomiko konkretu batzuk betez gero⁵. Ohiko etxebizitzara zuzendutako kredituen kasuan be-

³ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/48/EB Zuzentaruua, 2008ko apirilaren 23koa, kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez Kontseiluaren 87/102/CEE Zuzentaruua indargabetzen den. Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren 133. zk., 2008ko maiatzaren 22koa, 66. or.

⁴ Maiatzaren 14ko 1/2013 Legea, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofizialaren 116. zk., 2013ko maiatzaren 15ekoa, 5073. or.

⁵ 1/2013 Legeak 1. artikuluan adierazten du kolektibo horien barnean zeintzuk sar daitezkeen (familia ugariak, adingabeko seme edo alaba duen gurasobakarrak, %33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona dagoen unitate familiarra, hipoteka-zorduna lan-gabezian duen familia-unitatea, besteak beste) eta zein betekizun ekonomiko bete behar

randutza-korrituak mugatu ziren baita ere, ezingo zirela lege-korrituaren hirukoitza baino gehiagokoa izan zehaztuz⁶.

Neurri horiek izan ziren higiezin gaineko kreditu-kontratuen kontsumitzaileak babestu zituzten lehenengoak. Kontratu mota horien araubide juridiko segurua, bizkorra eta eraginkorra egiten saiatu zen araua, ordea, martxoaren 15eko 5/2019 Legea izan zen, higiezin gaineko kreditu-kontratuak arautzeari buruzkoa⁷ (hemendik aurrera, “5/2019 Legea”). Hain zuzen ere, 2014/17/EB Zuzentaraua barne ordenamenduan eransteko xedez indarrean sartzen da 5/2019 Legea, baina kontsumitzaileak babestetik haratago, lege honek bere araubide juridikoa pertsona fisiko guztietara hedatzen du, kontsumitzaileak izan edo ez.

Hortaz, 5/2019ko Legean aurki daiteke lanean zehar aztergai egongo diren higiezin gaineko kreditu-kontratuen definizioa. Jarduera hori modu profesionalean egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek emandako mailegu-kontratuak dira, mailegu-hartzailea, fidatzailea edo bermatzailea pertsona fisikoa denean eta kontratu horren xedea honako haue-
tako bat denean: (i) hipoteka-bermea edo beste berme-eskubide erreala duen mailegua ematea bizitegi-erabilerako higiezin baten gainean (bizite-

dituzten (hala nola: familia-unitateko kideen diru-sarreraren multzoak ez gaintzea urteko hamalau ordainsariko Eragin Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoaren hiru halako, eskaera egin aurreko lau urteetan familia-unitatearen egoera ekonomikoa nabarmen aldatu izana).

⁶ 1/2013 Legearen 3. artikulua Hipoteka Legean zenbait aldaketa onesten ditu: etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguaren eskritoretan, hipotekatzen den etxebizitzari esleitu nahi zaion izaera jaso behar izatea, ohikoa izan edo ez; eta ohiko etxebizitza erosteko maileguen edo kredituen berandutze-korrituak, etxebizitza beraren gainean eratutako hipoteken bidez bermatutakoak, ezin izango direla diruaren legezko korritua baino hiru aldiz handiagoak izan.

⁷ Martxoaren 15eko 5/2019 Legea, higiezin gaineko kreditu-kontratuak arautzeari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofizialaren 65. zk., 2019ko martxoaren 16koa, 3814. or.

gi-erabilera dutela ulertuko da trasteleku, garaje edo etxebizitzak ez diren bestelakoen kasuan funtzio domestiko bat betetzen badute); edo (ii) eraikitako edo eraiki gabeko lurren edo higiezinaren gaineko jabetza-eskubi-deak eskuratu edo mantentzeko helburu duten maileguak ematea, betiere mailegu-hartzailea, fidatzailea edo bermatzailea kontsumitzailea bada⁸.

3.2) Oinarrizko osagaiak

Behin legegintzaren eta oinarrizko kontzeptuaren inguruko kokapena eginda, aurrerantzean landuko diren betebeharrak eta klausula ezberdinak ulertu ahal izateko, kontratu mota hauen oinarrizko osagaien definizioa ekarriko dugu hizpidera⁹.

Orokorrean, baieztatu daiteke bi direla kontratu hauetan parte hartzen duten alderdiak: mailegu-emailea eta mailegu-hartzailea. Lehenengoari dagokionez, modu profesionalean, bizitegi-erabilerako ondasun higiezinaren gaineko hipotekaren bidez bermatutako maileguak, edo eraikitako edo eraiki gabeko lursailak edo higiezinak eskuratzea edo kontserbatzea xede duten maileguak ematen dituen pertsona fisiko edo juridiko oro litzateke. Mailegu-hartzailea ostera, aurretik deskribatutako maileguen zordun den edozein pertsona fisiko litzateke.

Kontratugileok mailegu-kontratu bat adosten dute, non mailegu-emaileak mailegu bat ematen dion mailegu-hartzaileari, edo emateko konpromisoa hartzen duen, ordainketa geroratuaren, kredituaren edo antzeko beste ordainketa-erraztasun baten bidez. Kasu honetan, berezitasuna da mailegu-hartzaileak, berme bezala, eskuratutako ondasun higiezinaren gainean hipoteka bat eratzen duela. Aitortu beharra dago

⁸ 5/2019 Legearen 1. eta 2. artikulua.

⁹ Definizio gehienak 5/2019 Legearen 4. artikuluan jaso dira, baina “zor-tasa” edo “euskarri iraunkor” kontzeptuen kasuan, berriz, 16/2011 Legea igortzen da.

legegintzak ez duela definizio argirik ematen hipotekari dagokionez, ordea, 1946ko otsailaren 8ko Dekretuak, Hipoteka Legearen idazketa ofizial berria onartzen duenak¹⁰ (hemendik aurrera, “Hipoteka Legea”), 104. artikuluan hurbilpen bat egiten du esanez “hipotekaren bidez, ondasun batzuk betebeharrak bat betetzeari lotuta geratzen dira zuzen-zuzenean, ondasun horien edukitzailea edozein izanik ere, betebeharrak hori bermatzeko eratzten baita hipoteka”. Hortaz, uler genezake ondasun higiezin horren berme funtzioa, mailegu-hartzaileak mailegua ordaindu dezan.

Kontratu horrek sortutako kredituaren zenbateko osoa nola zehazten den jakiteko, ostera, 16/2011 Legea egiten da igorpena, kopuru hori izanik kreditu-kontratu baten esparruan kontsumitzailearen esku jarritako kopuru guztien batura edo gehieneko zenbatekoa¹¹. Hala ere, zenbateko oso horretaz aparte, mailegu-hartzaileak kreditua eskuratzegatik kostu jakin batzuei egin behar dizkio aurre 16/2011 Legearen arabera: kreditu-kontratua dela-eta kontsumitzaileak ordaindu behar dituen eta mailegu-emaileak ezagutzen dituen gastu guztiak, korrituak, komisioak, zergak eta beste edozein gastu, notariotza-gastuak izan ezik¹². 5/2019 Legeak beste bi gastu baztertzen ditu baita ere: ondasun higiezinaren jabetzaren eskualdaketa erregistratzeko tasak eta kreditu-kontratuan hartutako konpromisoak ez betetzegatik mailegu-hartzaileak asumitutako gastuak¹³.

Aurreko paragrafoan azaldutako kredituaren zenbateko osoak eta kredituak kontsumitzailearentzat duen guztizko kostuek osatzen dute kontsumitzaileak zor duen guztizko zenbatekoa¹⁴.

¹⁰ 1946ko otsailaren 8ko Dekretua, Hipoteka Legearen idazketa ofizial berria onartzen duena. Estatuko Aldizkari Ofizialaren 58. zk., 1946ko otsailaren 27koa, 2453. or.

¹¹ 16/2011 Legearen 6.c. artikulua.

¹² 16/2011 Legearen 6.a. artikulua.

¹³ 5/2019 Legearen 4.12. artikulua.

¹⁴ 16/2011 Legearen 6.b. artikulua.

Atal honetan argitutako kontzeptuez aparte, beste bi gehiago ekarri behar dira hizpidera, hurrengo atalak behar bezala ulertu ahal izateko: zor-tasa eta urteko tasa baliokidea. Lehenengoa, 16/2011 Legean honela jasotzen da: “erabilitako kredituaren zenbatekoari urtero aplikatutako ehuneko finko edo aldakor gisa adierazitako korritu-tasa”¹⁵. Hori dela eta, uler daiteke zor-tasa finkoa edo aldakorra izan daitekeela. Bigarrena, aitzitik, maileguaren kostu osoa mailegu-hartzailearentzat izango litzateke, emandako maileguaren zenbateko osoaren urteko ehuneko gisa adierazita, gehi kostu erantsiak, halakorik balego, eta urteko oinarri baten gainean litzateke, laburbilduz¹⁶.

IV. HIPOTEKA-MAILEGUETAKO HARTZAILEAREN BABESA

Aldez aurreko sekzioan mahaigaineratutako gastuek eta zor-tasek eragin zuzena eduki dezakete mailegu-hartzailearen esparru ekonomikoan, izan ere, kontzientzia nahikoa eduki gabe, edozein kontsumitzailek edo pertsona fisikok onar ditzake asumitu ezingo dituen klausulak. Horregatik, doktrinak garatutako kontzeptu esanguratsuenen artean kreditu arduratsuen ematea dago. RODRÍGUEZ DE ALMEIDA irakaslearen esanetan, kreditua “ziurtasunez hitzartu, kontratatu eta ematen da, bere helburua betez, hau da, itzulketa eginez. Beraz, kreditu arduratsua « a priori » itzuliko dela uste dena izango da”¹⁷. Ondorioz, ez da bakarrik beharrezkoa izango mailegu-hartzailearen kaudimen ekonomikoa, baizik eta ordaintzeko adostasuna benetakoa eta egiazkoa izatea ere.

¹⁵ 16/2011 Legearen 6.e. artikulua.

¹⁶ 5/2019 Legearen 4.14. artikulua.

¹⁷ GOÑI RODRIGUEZ, María. «Los deberes de información precontractual en los contratos de préstamo». Ondoko lanean: *La prevención del sobreendeudamiento privado: Hacia un préstamo y consumo responsables*. Nafarroa: Thomson Reuters Aranzadi, 2017. 525. or.

Aurrekoa betetzen dela ziurtatzeko gardentasunaren kontrol bikoitza existitzen da: alde batetik, baldintza orokor guztietarako sartzeko-kontrolak edo kontrol formalak klausulak sartu ahal izatea ahalbidetzen du, haien ezagutza eta ulermena bermatzeko; bestalde, gardentasun indartuak edo materialak, aukera eman behar dio kontsumitzaileari jakiteko kontratuaren karga ekonomikoa eta karga juridikoa, arriskuen banaketari dagokionez¹⁸.

Ildo horri ekinez, eta VAZQUEZ irakasleak nabarmendu bezala, “gardentasun materialaren funtsezko oinarria kontratua egin aurretik kontsumitzaileari eta mailegu-hartzaileari emandako informazioa da, kontratua sinatu ondoren bere gain hartuko duen karga ekonomikoa eta juridikoa benetan ulertu ahal izateko oinarri gisa; gainera, merkatuak eskaintzen dizkion kreditu-produktuen arteko konparazioa egin ahal izango du, eta kontzienteki eta borondatez erabaki ahal izango du zein produktu auke-ratzen duen, bere interesentzat hobea izateagatik”¹⁹.

Beraz, gardentasunarekin bat egiteko asmoz, 5/2019 Legeak zenbait betebeharrak esleitzen dizkie mailegu-emaileei, ziurtatzeko mailegu-hartzaileak kontratua onartzen duela klausula arazotsuez jakitun izanda. Haratago joanda, hori guztia betetzen dela ziurtatzeko, fede-emaile publikoari ere eragin behar batzuk ezartzen zaizkie.

4.1) Mailegu-emailearen informazio-betebeharra

Oro har, baieztatu daiteke informazio-betebeharra mailegu-emaileak edo hartzekodunak bere etorkizuneko zordunaren gain hartzen duena

¹⁸ MARTOS CALABRUS, María Angustias. «Análisis del cumplimiento de los deberes de transparencia en los contratos de crédito inmobiliario». *Revista chilena de derecho y ciencia política*, Txile, 2022, 13. liburukia, 1. zk., 35. or.

¹⁹ MADRIÑAN VÁZQUEZ, Marta. «Información precontractual y transparencia en la ley de contratos de crédito inmobiliario». *Boletín del Ministerio de Justicia*, Madrid, 2020, 74. liburukia, 2231. zk., 28. or.

dela, eta eskainitako maileguaren edo produktuaren baldintzak, arriskuak eta kostuak azaltzean datzana. Are gehiago, agerikoa da 5/2019 Legearen bitartez informazio betebeharrak zehatza finkatu dela mailegu-emailearen gain, kontratazioa egin aurretik eskaini beharrekoa. Izan ere, kontratu aurreko informazioa funtsezko zutabea da, mailegu-hartzaileak benetan ulertu ahal izan dezan benetako karga, ekonomikoa zein juridikoa.

Hori onartu du Auzitegi Gorenak 2017ko ekainaren 8ko epaiaren bidez²⁰: “kontratu aurreko informazioak aukera ematen du eskaintzen arteko konparazioa egin eta kontratatzeko erabakia hartzeko. Ezin da eskaintza desberdinen arteko konparazio funtsaturik egin, konparazioa egiteko unean kontsumitzaileak ezin badu benetako ezagutzarik izan konparazioaren xede diren kontratuen garrantzi ekonomikoa eta juridikoari buruz, ezin izan duelako ulertu kontratuko klausula jakin batek zer esan nahi duen, zeinak kontratuaren funtsezko elementu bati eragiten dion, gainerakoekin alderatuta, eta klausula horrek kontratuaren garapenean zer ondorio izan ditzakeen”.

Aipatutako kontratu aurreko informazioaren baitako betebeharrak bi faseetan banaturik ezartzen da 5/2019 Legean: lehenengo fasea orokorragoa da, eta informazioa eskatzen duen edozein bezerorentzat dago eskuragarri; beste fasea, berriz, espezifikoa edo pertsonalizatuagoa da bezeroarentzat, eta erakundeak ematen dituen finantza-zerbitzuak ezaugu eta bere kaudimena ebaluatu ondoren, beste fase partikular batean interesa agertzen du bezeroak.

a) *Informazio orokorra*

5/2019 Legeak xedatzen du zein den kontratu mota horietan zehaztu beharreko informazio orokorra, mailegu-emaileek edo, hala badagokio,

²⁰ 2017ko ekainaren 8ko Auzitegi Gorenaren Epaia, 367/2017. zk. Aranzadiko erreferentzia: 2017/2509.

lotutako kredituaren bitartekariak edo izendatutako ordezkariak eman beharko dutena, modu argi eta ulergarrian, paperezko euskarrian edo beste edozein euskarri iraunkorretan edo formatu elektronikoa²¹.

b) *Informazio pertsonalizatua*

Informazio pertsonalizatua aldiz, 5/2019 Legearen 10. artikuluan jasota dago. Bertan informazio pertsonalizatua emateko betebeharra esleitzen zaio mailegu-emaileari, helburua izanik mailegu-hartzaile potentzialak finantza-produktuen ezaugarriak alderatzea eta aztertzea, kreditu-kontratuaren egokitasunari buruzko erabaki arrazoitua hartu ahal izateko. Informazio hori, EINF: Europako Informazio Normalizatuaren Fitxaren (“*FEIN: Ficha Europea de Información Normalizada*”) bitartez eman beharra dago, artikulua beraren bigarren paragrafoari jarraiki.

Lege beraren 14. artikuluan, berriz, gardentasunari buruzko arauak jaso dira. Lehenik eta behin, mailegu-hartzaileari eta, hala badagokio, fidatzaile edo bermatzaile gisa diharduenari Europako Informazio Normalizatuaren Fitxa emateko eskatzen zaio, mailegua sinatu baino hamar egun lehenago, 2014/17/EB Zuzentarauak II. eranskinean eskatzen duen moduan eta edukiarekin.

Fitxa horretaz gain, eta osagarri gisa, OEF: Ohartarazpen Estandarizatuaren Fitxa (“*FIAE: Ficha de Advertencias Estandarizadas*”) helaraztea exijitzen da baita ere, hamar eguneko aurrerapen berarekin. Fitxa horretan ostera, mailegu-hartzaile potentzialari jakinarazi behar zaio mailegu-kontratuan klausula edo elementu garrantzitsu batzuk daudela. Horretarako, Ohartarazpen Estandarizatuaren Fitxak, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: “hala badagokio, aplikatu beharreko korritu-tasa finkatzeko erabilitako erreferentziazko indize ofizialak; korritu-tasa aplikagarrian gutxienerako mugak egotea, korritu-tasa horri dagozkion indizeen be-

²¹ 5/2019 Legearen 9. artikulua.

heranzko aldagetaren ondorioz; maileguaren mugaeguneratze aurreratu gertatzeko aukera, ez-ordaintzearen eta horren ondoriozko gastuen ondorioz; maileguak emateari lotutako gastuen banaketa, eta mailegua atzerri-dirutan dagoela” (14.1.b. artikulua). Beraz, Ohartarazpen Estandarizatuen Fitxak Europako Informazio Normalizatuaren Fitxa osatzen du, kredituaren kostuan eta, beraz, mailegu-hartzaileak kontratatzeke erabakian eragina izan dezaketen gutxieneko alderdiak biltzen baititu.

Gainera, 14.1. artikulua bestelako eginbeharrak zehazten ditu egoera jakin batzuk gertatzen diren kasurako, nahiz eta atal honetan azalduko ez diren.

Adierazitakoaz gain, mailegu-emaileak azalpen egokiak eman behar dizkio mailegu-hartzaile potentzialari. Zehazki, emandako dokumentazioaren edukari, esanahiari eta garrantzi praktikoari buruz egiten zaizkion galdera guztiei erantzun beharko die. Azalpen horiekin batera, finantza-klausulen aplikazio praktikoaren adibideak emango dira (14.2. artikulua). Horrela, kontsumitzaileak balioetsi ahal izango du ea sinatu nahi duen kontratua eta haren zerbitzu osagarriak bere beharretara eta finantza-egoerara egokitzen diren. Era berean, kontratuaren xede nagusiari eragiten dioten klausulen existentzia eta irismen ekonomikoa ezagutzea lortu ahal izango da, klausula horiek gardentasun materialaren kontrola gaindi dezaten²².

Ondoren, mailegu-hartzaile potentzialak adierazpen bat sinatu behar du, dokumentuak jaso dituela eta profesionalak azalpen egokiak eman dizkiola adieraziz.

²² MARÍN LÓPEZ, Manuel Jesús. «El control de transparencia material». Ondoko lanean: *Comentario a la Ley de contratos de crédito inmobiliario*. Nafarroa: Thomson Reuters Aranzadi, 2019. 295-296. or.

Berriro ere, gardentasun materialaren auziari hartuta, eztabaida interes-garria piztuko litzateke kontratu aurreko informazioaren gainean fokoa jarritz gero. Izan ere, mailegu-hartzaileak sinatutako dokumentu horrek ez du berez egiaztatzen klausula horrek gardentasun materialaren kontrola gaintitzen duenik, mailegu-hartzaileak legeak eskatutako informazioa jaso duela eta mailegu-emaileak informazio-dokumentuen edukia azaldu diola adierazteak ez duelako esan nahi ulertu dituenik. Gainera, baliteke sinatutako adierazpen hori mailegu-emaileak alde aurretik egindako dokumentu bat izatea, agian kontsumitzaileak irakurri ez duena²³.

Horri dagokionez, Auzitegi Gorenak 2018ko martxoaren 23ko epaian²⁴ zehaztu du frogaren zama mailegu-emaileari dagokiola, eta mailegu-emaileak frogatu behar duela informazio kualifikatu guztia eman zuela, helburua lortzeko beharrezkoa zena. Azken batean, mailegu-hartzaileak klausularen edukia eta irismena ezagutzen zituela egiaztatu ezean, eta hori soilik gertatzen da hark nolabait onartzen badu; klausula gardena ez dela ulertu beharko da.

4.2) Notarioaren aholkularitza

5/2019 Legearen 15. artikuluan adierazi bezala, aurreko azpiatalean azaldutako dokumentuak entregatzeko eskakizunak bete direla egiaztatuko da notario-akta baten bidez, gutxienez mailegu-eskritura publikoa egiletsi baino egun bat lehenago, mailegu-hartzailea edo haren ordezkaria bertan dela.

Kontratuaren aurreko informazioaren araubidea 15.2. artikuluan aurreikusitako gardentasun materialaren printzipioa betetzeari buruzko notario-kontrolarekin osatzen da. Horretarako, notarioak egiaztatu eta

²³ MADRIÑAN VAZQUEZ, Marta. «Información precontractual (...)», *op. cit.*, 30. or.

²⁴ 2018ko martxoaren 23ko AGE, 170/2018. zk. Aranzadiko erreferentzia: 2018/1892. zk.

jasota utzi behar du, 14.1. artikuluan aipatzen diren dokumentuak ezarritako epean entregatzeaz gain, mailegu-hartzaileak planteatu dizkion gaiak eta horri buruz eman dion aholkularitza, bai eta EINFn eta OEFn jasotako klausula espezifikoei buruz banaka eman duen aholkularitza ere.

Akta nahitaezkoa denez, bidalitako dokumentaziotik, edo agerraldian interesdunek egindako adierazpenetatik, 14.1 artikuluan adierazitako betebeharrak garaiz eta behar bezala bete direla egiaztatzen ez bada, edo interesduna aholkularitza jasotzeko agertzen ez bada, notarioak aktan jasoko du, eta ezin izango da eskritura publikoa baimendu²⁵.

Baldintza horiek bete ondoren, aktaren edukia egiazkoa eta osoa dela ulertuko da, eta notarioak emandako aholkularitzaren eta mailegu-hartzaileak deskribatutako dokumentuen edukia ulertu eta onartzen duela dioen adierazpenaren frogaz izango da²⁶.

Aldiz, jurisprudentzia- doktrina finkatua²⁷ da notarioak gardentasunaren esparruan jarduteak ezin duela baztertu edo ordeztu mailegu-emai-leak legez esleituta dituen eta gardentasun materialaren oinarria diren kontratu-aurreko informazio-betebeharrak betetzea.

Laburbilduz, CÁMARA LAPUENTE²⁸ irakasleak adierazten duen bezala, 5/2019 Legeak gardentasuna indartzeko sistema berri bat ezartzen du higiezin gaineko kreditu-kontratuen eremuan, notarioak funtsezko tokia baitu, egin-eginean ere, aholkularitza ez ezik, “gardentasun materialaren

²⁵ 5/2019 Legearen 15.5. artikulua.

²⁶ MADRIÑAN VAZQUEZ, Marta. «Información precontractual (...)», *op. cit.*, 20. or.

²⁷ 2014ko irailaren 8ko AGE, 464/2014. zk. Aranzadiko erreferentzia: 2014/4660. zk.; 2018ko maiatzaren 22ko AGE, 291/2018. zk. Aranzadiko erreferentzia: 2018/2387. zk.; 2018ko irailaren 12ko AGE, 487/2018. zk. Aranzadiko erreferentzia: 2018/3993. zk.

²⁸ CÁMARA LAPUENTE, Sergio. «Transparencia material y función notarial en la Ley 5/2019 ¿Control, carga o trampa?». *El notario del siglo XXI: revista del Colegio Notarial de Madrid*, Madrid, 2019, 84. zk., 19. or.

printzipioa betetzen dela egiaztatzea” ere esleitzen baitzaio, 15. artikuluan adierazitako baldintzetan. Hala ere, CARRASCO PERERA²⁹ irakasleak ondo adierazi duenez, “notarioaren eskumena ez da egiaztatzea erakunde finantzatzailearen jokabideari buruzko gardentasun-baldintzak bete direla bezeroarekiko”.

Egia esan, ezin da frogatu mailegu-hartzailearen eremu intimokoa den zerbait. Hala ere, horrek ez du esan nahi notario-lanak ez duenik balio egiaztatzeko mailegu-emaileak, gutxienez, Legeak ezartzen dion kontratu-aurreko betebeharra bete zuela; beraz, lan hori baloratzeko elementua izan daiteke.

4.3) Korritu-tasaren aldaketen kontrola

Kontratu aurreko informazioaren atala ixteko xedez, 5/2019 Legeak korritu-tasaren aldaketen baitako kontrola aipatzea geratuko litzateke, beti ere, informazio zehatz horri begira. Izan ere, lege horrek 14.1.c. artikuluan adierazten du korritu aldakorra duten maileguen kasuan, aurretik jasotako betebeharretaz aparte, mailegu-emaileak dokumentu bereizi bat aurkeztu beharko duela, korritu-tasen bilakaera-egoera desberdinetan mailegu-hartzaileak ordaindu beharreko aldizkako kuotak bereziki aipatuta.

Horrek adierazten du, legegileak interes berezia zuela mailegu-hartzaile babesteko, kontuan hartuta, legearen erredakzioaren aurreko urteetan emandako “lurzoru-klausulen” fenomenoak. Hala ere, “lurzoru-klausulen” auzia hurrengo atalean landuko da bereziki, kontratu aurreko informazioaren inguruko betebeharretaz aparte, bestelako mugapenak jaso dituztelako mailegu-emaileek ere bai.

²⁹ CARRASCO PERERA, Ángel. «Funciones notariales en la comprobación de la transparencia y en la titulación del contrato». Ondoko lanean *Comentario a la Ley de Contratos de Crédito Inmobiliario*. Nafarroa: Thomson Reuters Aranzadi, 2019, 341. or.

V. KLAUSULA ARAZOTSUAK

Aipatu babes a gorabehera, kontratu hauetako klausulen legezkotasunari buruzko zalantzak sortu ziren krisi ekonomikoaren ondorioz hipoteka-betearazpen prozedurak hasi zirenean, eta horregatik, azkenengo hamar urteetan milaka erreklamazio eman dira higiezin gaineko kreditu-kontratuen inguruko klausulen deuseztasuna eskatuz. Izan ere, testuan zehar azaldu bezala, argi geratu da mailegu-hartzaileek, kasu askotan, modu akritikoan eta, hein batean, kontratu aurreko informazio faltagatik justifikatuta, kontratu horiek sinatzen dituztela banketxeak alde aurretik prestatuta zituen klausulen irismena ulertu gabe.

Horren ondorioz, hamaika aldiz posizionatu dira epaietan Espainiako Auzitegi Gorena zein Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. Bestek beste, lurzoru-klausulen, hipoteka-gastuen, aurretiaz mugaeguneratzeko klausulen eta irekiera-komisioen inguruan mintzatu dira. Hortaz, hurrengo azpiataletan klausula zehatz horien inguruko azterketa jurisprudenziala zein legegintzaren arlokoa egingo da.

5.1) Lurzoru-klausulak

Klausula hauek mugatzen dute korritu aldakorreko maileguen korritu-tasa, diferentziala gehi ordainketa-korritua ehuneko jakin bat baino txikiagoa izan ez dadin, praktikan “lurzoru” gisa funtzionatzen duena. Mailegu-hartzaileek maileguaren kostuaren murrizketari etekina ateratzeko aukera galtzen dute, erreferentzia-indizea ezarritako gutxieneko tasa baino txikiagoa denean. Ondorioz, korritu-tasa aldakorra izan baino, tasa finko bihurtuko da, erreferentzia-indizeak maileguaren indizea gainditzen ez duen aldi.

2014. urtean adibidez, Euribor tasa beste urte batzuetan baino txikiagoa izan zen, eta mailegu-hartzaileek gainkostu bat jasan zuten, Euri-

bor tasa ordaindu beharrean, maileguan ezarritako minimoa ordaintzen ari zirelako. GENTO MARHUENDA³⁰ egileak adierazten du, 2014. urtean lurzoru-klausula onartu zuten mailegu-hartzaileentzat korritu-tasa %3,22koa izango litzatekeela, eta aldiz, lurzoru-klausula izan ezean, %1,55koa. Beraz, %1,67ko ezberdintasuna legoke. Ekonomikoki alde nabaria suposatzen du horrek duda-izpirik gabe.

Orain, azterketa jurisprudentzialari helduta, nabarmentzekoa da Auzitegi Gorenak 2013ko maiatzaren 9an³¹ ezarritako aurrekaria, lurzoru-klausulen deuseztasuna adierazi baitzuen lehenengoz. Auzitegi Gorenak ulertu zuen banketxeek informazio egokia ematen ez zutenean, kontsumitzaileek ez zutela baloratzen zer eragin ekonomiko eta juridiko zuen maileguan horrelako estipulazioak sinatzeak. Are gehiago, adierazi zuen horrelako klausulek zaildu egiten dutela eskaintzak alde-ratzea, eta, gainera, oztopatu egin dezaketela haien eragina, baldin eta «sabai-klausula³²» bat badute, oro har amu gisa balio duena. Hala ere, epai horrek emandako ondorioek ez zuten atzeraeraginik eduki. Hori dela eta, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko abenduaren 21ean³³ kontrakoa adierazi zuen, Auzitegi Gorenak ezarritako denbora-mugape-nak kontsumitzaileei babes mugatua, osatugabea eta eskasa ematea zeka-rrela, ebazpena argitaratu aurretik ezarritako klausulen erreklamazioa murrizten baitzuen. Ondorioz, Auzitegi Gorenak Europar Batasuneko

³⁰ GENTO MARHUENDA, Pedro. «El final de las cláusulas suelo en España: una visión retrospectiva». *Revista CESCO de Derecho de consumo*, Gaztela Mantxa, 2014, 10. zk., 31. or.

⁵¹ GOBIERNO VASCO. “Proceso para la elaboración del PTS de las Energías Renovables en Euskadi. Diciembre 2023. Disponible en: <https://www.euskadi.eus/proceso-para-la-elaboracion-del-plan-territorial-sectorial-de-las-energias-renovables-en-euskadi/web01-a2energi/es/> (Última consulta 16 de abril de 2024).

⁵² GOBIERNO VASCO. “PTS de Energías Renovables en Euskadi – Documento para la Aprobación Inicial”. P.39. Disponible en: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/proceso_elaboracion_ptser/e_def/adjuntos/INICIAL_DOC-1-MEMORIA.pdf (Última consulta 16 de abril de 2024).

12 en Gipuzkoa, repartidos en un total de 57 municipios⁵³. En contraposición, el texto prohíbe⁵⁴ este tipo de instalaciones en parques y monumentos naturales, zonas de patrimonio cultural o las reservas naturales entre otros, entre los cuales destacan Gorbeia, Urdaibai y Artikutza.

Si bien es cierto que el texto da respuesta a muchas de las manifestaciones que se han hecho a lo largo de los años con el fin de mejorar la ordenación de las instalaciones de energías renovables y cubre muchas de las lagunas que existían, no se han de pasar por alto, las alegaciones que han presentado, en el marco de la participación ciudadana, organizaciones ecologistas, sociales y de varios ayuntamientos. En total, suman más de 4.000 alegaciones entre los cuales se plantean medidas de mayor protección para las zonas de especial protección y se insiste en que el PTS se sigue basando en un modelo basando en el modelo actual de grandes proyectos que se debe cambiar⁵⁵.

IV. REFLEXIONES

Si bien el presente trabajo podría concluirse con reflexiones de diverso tipo, a continuación se exponen aquellas que se consideran más relevantes en cuanto al contenido e hilo principal de la materia estudiada.

⁵³ GOBIERNO VASCO. “PTS de Energías Renovables en Euskadi – Normas de Aplicación”. Arts. 20 y 21. Disponible en: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/proceso_elaboracion_ptseres/es_def/adjuntos/INICIAL-DOC-2-NORMAS-APLICACION.pdf (Última consulta 16 de abril de 2024).

⁵⁴ GOBIERNO VASCO. “PTS de Energías Renovables en Euskadi – Normas de Aplicación”. Art. 16. Disponible en: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/proceso_elaboracion_ptseres/es_def/adjuntos/INICIAL-DOC-2-NORMAS-APLICACION.pdf Artículo 16 (Última consulta 16 de abril de 2024).

⁵⁵ ECOLOGISTAS EN ACCIÓN. “Presentan 27 alegaciones al PTS de energías renovables”. Disponible en <https://www.ecologistasenaccion.org/297750/presentan-27-alegaciones-al-plan-territorial-sectorial-de-energias-renovables/> (Última consulta 18 de abril de 2024).

4.1) Sobre la necesidad de las AAPP de motivar adecuadamente las calificaciones de interés público superior

Quizás uno de los aspectos más relevantes a la hora de marcar el curso de un procedimiento de implantación de un nuevo parque eólico sea la determinación o no de interés público superior del proyecto en cuestión.

En este sentido, y teniendo en cuenta todo lo dispuesto en el presente trabajo en relación al interés público superior, se considera de extrema importancia que las Administraciones Públicas competentes motiven adecuadamente las calificaciones de interés público o superior. Si bien es cierto que dicha calificación se lleva a cabo de forma individualizada por cada solicitud, quizás se debería de implementar un procedimiento para ello, sobre todo con el fin de evitar incurrir en cualquier tipo de arbitrariedad por parte de la administración.

En relación al artículo 9.3 CE que garantiza, entre otros, los principios de legalidad, la seguridad jurídica y la interdicción de la arbitrariedad, así como con el artículo 106.1 CE, que de cuya interpretación se puede determinar que la actuación administrativa debe estar suficientemente justificada y ajustada a la legalidad; se puede establecer que no debería bastar con una mera declaración política del interés, si no que éste debe razonarse en base a motivaciones ambientales, técnicas, sociales y económicas.

Esto es, antes de determinar el interés público superior de un proyecto, la Administración debería analizar y evacuar los informes pertinentes en diversas materias, que, por lo general, y según se ha expuesto en el presente trabajo, se suelen llevar a cabo en momentos posteriores de la tramitación.

4.2) Sobre el procedimiento de implantación de nuevos parques eólicos en la CAPV

A modo de reflexión del apartado más central del trabajo no cabe duda sobre la necesidad de encontrar un equilibrio entre la implantación de las energías renovables y el desarrollo económico que ello conlleva con la protección del medio ambiente y una adecuada gestión del suelo.

a) Aspectos medioambientales

Se debe recalcar la importancia de considerar el impacto ambiental de un proyecto a lo largo de todo su ciclo de vida y garantizar la protección de los ecosistemas. A lo largo del trabajo se ha subrayado que el equilibrio de los intereses involucrados es complejo y que debe de ser objeto de análisis individual de cada proyecto.

Es sumamente importante, asimismo, estudiar de cerca la fragmentación de los proyectos, y negarlo en el caso de que sea una estrategia para obtener evaluaciones ambientales más favorables. Y esto lo debe de hacer la Administración Pública. Una fragmentación indebida puede conllevar que el proyecto produzca efectos negativos en el medio ambiente. Con ello se plantea de igual manera la responsabilidad que pueda tener la administración de los proyectos indebidamente fragmentados.

b) Aspectos urbanísticos

Otro de los principales focos en la tramitación de los parques eólicos recae en la necesidad de una correcta gestión del suelo. En este sentido, cabe matizar que existe una necesidad, debido al alcance supramunicipal de este tipo de proyectos, de herramientas que permitan homogeneizar los planeamientos de distintos términos municipales.

Se considera que es un punto a mejorar de la actual tramitación de los parques eólicos, como se ha establecido en el apartado correspondiente,

ya que no se exige la elaboración de Planes Especiales o Planes de Compatibilización.

A modo complementario, se ha de decir que el nuevo PTS de las Energías Renovables puede ayudar a mejorar la tramitación en este aspecto.

4.3) Sobre el componente social, la participación ciudadana

Si bien es cierto que el presente trabajo no ha tratado a fondo la cuestión de la participación ciudadana, de los temas que se han tratado derivan a la reflexión acerca de este componente más social de la tramitación administrativa de los parques eólicos. En el mismo sentido que expone DEL VALLE, uno de los pilares fundamentales en la implantación de las energías renovables⁵⁶. De cierta manera, el éxito de los nuevos modelos energéticos que se pretenden implementar, dependen de la participación ciudadana, sobre todo en aquellos aspectos relacionados en el uso de recursos naturales, cohesión social o crecimiento económico.

Debido a la relevancia que tiene la participación ciudadana en todo procedimiento administrativo (así lo establecen la Constitución en su artículo 105; la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común; y la Ley 27/2006 por la que se regulan los derechos de acceso a la información de participación pública y acceso a la justicia en materia de medio ambiente), la audiencia pública cobra especial importancia, en la tramitación de los nuevos parques eólicos.

De una forma general, la reflexión que realiza este trabajo sobre el asunto recae en la importancia que tiene que la ciudadanía tenga información suficientemente clara acerca de los proyectos que se pretendan

⁵⁶ DEL VALLE, C.; PRADOS M^a J. “La participación pública en los procesos de implantación de las energías renovables en España y Portugal”. *Universidad de Sevilla*, 2022. Disponible en: https://grupo.us.es/terryer/uploads/images/Actas-Congreso-Conclusiones-AGE-VLC2019_Comunicación.pdf (Última consulta 24 de abril de 2023).

llevar a cabo. Incluso saliendo de un contenido estrictamente jurídico, la transparencia en el proceso y un acercamiento a la ciudadanía pueden ayudar a lograr esa aceptación social. En el mismo sentido, se considera conveniente que, además de la audiencia pública requerida por el procedimiento (periodo de alegaciones), los promotores, en colaboración de la Administración Pública, informen acerca del proyecto en todo el proceso, mediante reuniones abiertas, comunicaciones etc.

V. REFERENCIAS Y BIBLIOGRAFÍA

5.1) Doctrina-Artículos jurídicos

BAÑO LEÓN, J.M., “La obsolescencia de la idea del Plan General”. *REALA*. 2020, pp. 6-21. Disponible en: Enlace (Última consulta 19 de abril de 2024).

DEL VALLE, C.; PRADOS M^a J., “La participación pública en los procesos de implantación de las energías renovables en España y Portugal”. *Universidad de Sevilla*, 2022. Disponible en: Enlace (Última consulta 24 de abril de 2023).

GARCÍA URETA, A., “Evaluación de impacto ambiental y proyectos de parques eólicos: balance de intereses, red natura 2000 y aspectos procedimentales”. *Actualidad Jurídica Ambiental*. 2014, pp. 7-44. Disponible en: Enlace (Última consulta 17 de marzo de 2024).

LASAGABASTER HERRARTE, I., “Ordenación del territorio, evaluación ambiental estratégica y planificación de parques eólicos”. En: *La directiva de la Unión Europea de evaluación de impacto ambiental de proyectos: balance de treinta años*. 2016. ISBN 978-84-9123-071-7, pp. 91-116.

ORTEGA BERNARDO, J., “Intervención local en la implantación de parques eólicos. Reflexiones a partir de las últimas novedades adoptadas en este sector con el objetivo de simplificación del procedimiento administrativo”. *Fundación Democracia y Gobierno Local*. 2020, pp. 137-151. Disponible en: Enlace (Última consulta 19 de abril de 2024).

PALOMAR, A.; FUERTES, J., “Planes Especiales”. Disponible en: Enlace (Última consulta 14 de abril de 2024).

ROCA SAGARRA, J., “Sobre el interés general y el interés público superior”. *RocaJunyent Abogados*. 23 de julio de 2020. Disponible en: Enlace (Última consulta 25 de marzo de 2024).

RODRÍGUEZ SEGURA, F. J.; FROLOGA IGNATIEVA, M., “Aceptación social de las energías renovables en Europa. *Anales de Geografía de la Universidad Complutense*. 43(1) 211-236. Disponible en: Enlace (Última consulta 17 de marzo de 2024).

5.2) Legislación

a) *Legislación Europea*

DIRECTIVA DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO por la que se modifican la Directiva (UE) 2018/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo, el Reglamento (UE) 2018/1999 del Parlamento Europeo y del Consejo y la Directiva 98/70/CE del Parlamento Europeo y del Consejo en lo que respecta a la promoción de la energía procedente de fuentes renovables y se deroga la Directiva (UE) 2015/652 del Consejo. Disponible en: Enlace.

b) *Estatal*

Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental. BOE núm. 296, de 11 de diciembre de 2013. Disponible en: Enlace.

c) *Legislación Autonómica y Sectorial*

Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi. BOE núm. 18, de 21 de enero de 2022, pp. 6323-6416. Disponible en: Enlace.

Decreto 115/2002, de 28 de mayo por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. BOPV núm. 108 de 10 de junio de 2002. Disponible en: Enlace.

Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco. BOE núm. 266 de 4 noviembre de 2011. Disponible en: Enlace.

Ley 1/2021, de 8 de febrero, de Transición Ecológica y Cambio Climático. BOPV núm. 38 de 8 de febrero de 2024. Disponible en: Enlace.

d) *Planeamiento Territorial*

PTS de la Energía Eólica en la CAPV. Documento I – Memoria. Disponible en: Enlace. (Última consulta 18 de abril 2024).

PTS de la Energía Eólica en la CAPV. Documento II – Normas de Aplicación. Disponible en: Enlace. (Última consulta 18 de abril de 2024).

PTS de Energías Renovables en Euskadi – Documento para la Aprobación Inicial. Disponible en: Enlace. (Última consulta 16 de abril de 2024).

PTS de Energías Renovables en Euskadi – Normas de Aplicación. Disponible en: Enlace. (Última consulta 16 de abril de 2024).

5.3) **Jurisprudencia**

STS de 5 de mayo de 2017, sala 3ª (Contencioso Administrativo) nº 786/2017. Disponible en: Enlace. (Última consulta 3 de marzo de 2024).

Fägerskiöld v. Suecia, decisión sobre la admisibilidad de 26 de febrero de 2008, demanda 37664/04.

STSJ Cataluña de 24 de junio de 2011, recurso 133/2009

STC de 14 de marzo de 2013, núm 69/2013.

STSJ Castilla y León de 10 de junio de 2009, rec. Núm. 767/2008.

STC 69/2013: La sentencia reconoce la prioritaria atención que merece la protección del medio ambiente, en su dimensión específica de protección del patrimonio natural y de la biodiversidad.

STSJ Extremadura, de 28 de abril de 2011, núm. 347/2011. Disponible en: Enlace.

STS 31 octubre 1984.

5.4) Informes de instituciones

“Alegaciones al Anteproyecto y Estudio de Impacto Ambiental correspondiente al Parque eólico Buruzai, así como sus infraestructuras asociadas, en los términos municipales de Azkoitia, Azpeitia, Ezkio-Itsaso y Zumarraga” – Documento obtenido a través de fuente primaria.

ANUNCIO de 4 de diciembre de 2023, del Delegado Territorial de Administración Industrial de Gipuzkoa, por el que se someten a Información Pública las solicitudes de Autorización Administrativa Previa y Declaración de Impacto Ambiental del proyecto «Parque eólico Buruzai» (20 MW), así como sus infraestructuras asociadas, en los términos municipales de Azkoitia, Azpeitia, Ezkio-Itsaso y Zumarraga (Gipuzkoa). Disponible en: Enlace. (Última consulta 16 de abril de 2024).

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA. “Ordenación Territorial, Planes Territoriales”. Disponible en: Enlace. (Última consulta 10 de abril de 2024).

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA. “¿En qué consiste un Plan Territorial Parcial?”. Disponible en: Enlace. (Última consulta 10 de abril de 2024).

GOBIERNO VASCO. “Plan Territorial Sectorial”. Disponible en: Enlace. (Última consulta 10 de abril de 2024).

GOBIERNO VASCO. “Proceso para la elaboración del PTS de las Energías Renovables en Euskadi. Diciembre 2023. Disponible en: Enlace. (Última consulta 16 de abril de 2024).

GOBIERNO VASCO, DPTO. DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD. *Estrategia energética de Euskadi 2030*. Vitoria-Gasteiz, 2016. Disponible en: Enlace. (Última consulta 18 de abril de 2024).

IHOBE. “Inventario de Emisiones de Gases de Efecto Invernadero en Euskadi” Disponible en: Enlace. (Última consulta 17 de marzo de 2024).

IKERLAN, “Una encuesta muestra el nivel de aceptación social de las comunidades energéticas en Europa”. Disponible en: Enlace. (Última consulta 18 de febrero de 2024).

MITECO. “El IPCC”. Disponible en: Enlace. (Última consulta 18 de abril de 2024).

5.5) Otros artículos difundidos en Internet

ADMINISTRATIVANDO ABOGADOS “¿Qué es un PGOU?” Noviembre 2022. Disponible en: [Enlace](#).

ECOLOGISTAS EN ACCIÓN. “Presentan 27 alegaciones al PTS de energías renovables”. Disponible en: [Enlace](#) (Última consulta 18 de abril de 2024).

LA LEY. “Planes especiales en derecho urbanístico”. Disponible en: [Enlace](#) (Última consulta 14 de abril de 2024).

NOTICIAS JURÍDICAS. “Ley 1/2024: El País Vasco establece un marco jurídico estable para alcanzar la neutralidad climática en el año 2050”. Febrero 2024. Disponible en: [Enlace](#) (Última consulta 19 de abril 2024).

VECTOR RENEWABLES “El efecto NIMBY y las energías renovables”. *Vector Renewables Trends*. Disponible en: [Enlace](#) (Última consulta 23 de marzo de 2024).

ZABALA, A. “Alegaciones conjuntas de los pueblos afectados por Buruzai”. *Noticias de Gipuzkoa*, 18 de enero de 2024. Disponible en: [Enlace](#) (Última consulta 5 de abril de 2024).

ZULIANI, F. “¿Energías verdes? No en mi jardín.” *VOXEurope*. Disponible en: [Enlace](#). (Última consulta 17 de marzo de 2024).

ANEXO I

EL PANORAMA DE LOS PARQUES EÓLICOS EN EUSKADI



Fig.: [Elaboración propia]

Eskubide historikoak eskumen-iturri gisa: analisi historikoa, doktrinala eta jurisprudentziala*

Iñaki RUIZ DE GORDEJUELA AGIRRE

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 10/12/2025

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 10/03/2026

Laburpena: Euskal Laburpena: Lan honek eskubide historikoak eskumen-iturri gisa aztertzen ditu, ikuspegi historiko, doktrinal eta jurisprudentzial batetik. 1978ko Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak eskubide historikoak babestu eta onartu zituen, haien "eguneratzea" marko konstituzionalean galdatuz. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak interpretazio murriztailea egin ohi du, eskubide historikoak eskumen-titulu autonomo gisa ukatuz. Ekonomia Ituna eta Hitzarmena dira eskubide hauen adierazle praktikoa nagusiak, foru-lurraldeei finantza-autonomia handia esleitzen dietenak. Gaur egun, oraindik eskumen ugari transferitu gabe daude, eta horrek egungo sistema juridiko-politikoarekiko mesfidantza areagotu du. Irtenbide gisa, Estatuaren eta foru-lurraldeen arteko aldebikotasun eraginkorra eta itun-printzipioa berreskuratzea proposatzen da.

Gako-hitzak: eskubide historikoak; transferitu gabeko eskumenak; Konstituzio Auzitegia.

* “Legelari gazteentzako Adrián Celaya Saria”ren X. Edizioan saritutako lana, Akademia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2025ean emana.

Academia Vasca de Derecho
Zuzenbidearen Euskal Akademia
ISSN: 2173-9102
D.L./L.G.: BI-1677-03

Ilustre Colegio Notarial del País Vasco
Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua

Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua

Boletín *JADO*. Bilbao. Año XX. Nº 33. Enero-Diciembre, 2025, pp. 223-274
JADO Aldizkaria. Bilbo. XX. urtea. 33 zk. 2025, Urtarrila-Abendua, 223-274 or.

Los derechos históricos como fuente de jurisdicción: análisis histórico, doctrinal y jurisprudencial

Resumen: Este trabajo analiza los derechos históricos como fuente de competencia desde una perspectiva histórica, doctrinal y jurisprudencial. La Disposición Adicional Primera de la Constitución de 1978 ampara y reconoce los derechos históricos, exigiendo su “actualización” en el marco constitucional. Sin embargo, el TC suele hacer una interpretación restrictiva negando los derechos históricos como títulos competenciales autónomos. El Concierto Económico y el Convenio son los principales exponentes prácticos de estos derechos, que atribuyen a los territorios forales una elevada autonomía financiera. En la actualidad, aún quedan numerosas competencias sin transferir, lo que ha incrementado la desconfianza en el actual sistema jurídico-político. Como solución, se propone recuperar la bilateralidad efectiva y el principio de pacto entre el Estado y los territorios forales.

Palabras clave: derechos históricos; competencias no transferidas; Tribunal Constitucional.

Historical rights as a source of jurisdiction: historical, doctrinal and jurisprudential analysis

Abstract: This paper analyzes historical rights as a source of competence from a historical, doctrinal, and jurisprudential perspective. The First Additional Provision of the 1978 Constitution protects and recognizes historical rights, requiring their “updating” within the constitutional framework. However, the Constitutional Court (TC) often adopts a restrictive interpretation, denying historical rights as autonomous sources of competence. The Economic Agreement (Concierto Económico) and the Convention (Convenio) are the main practical examples of these rights, which grant the chartered territories (Territorios forales) a high degree of financial autonomy. Currently, numerous powers remain untransferred, which has increased distrust in the current legal and political system. As a solution, the paper proposes restoring effective bilateralism and the principle of agreement between the State and the chartered territories.

Key words: historical rights; untransferred powers; Constitutional Court.

AURKIBIDEA: LABURDUREN ZERRENDA. SARRERA. I.- BILAKAERA HISTORIKOA: 1.1) Sorreratik konstituzionalismo espainiarrera arte: eskubide historikoen jatorria; 1.2) Foruak eta Espainiako lehenengo Konstituzioak: foru-erregimenaren gain-behera; 1.3) Foru-berrintegrazioaren aldeko aldarrikapen-garaia. II.- ESKUBIDE HISTORIKOAK 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN, EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUAN ETA NAFARROAKO FORU HOBEKUNTZAN. III.- ESKUBIDE HISTORIKOEN EGIKARITZEA ETA JURISPRUDENTZIA ALDI AUTONOMIKOAN. IV.- ESKUBIDE HISTORIKOEN EUSKAL BIZIKIDETZA POLITIKOAN JOKA DEZAKETEN PAPERARI BURUZKO HAUSNARKETA. V.- ONDORIOAK. VI.- BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK: 6.1) Bibliografia; 6.2) Legeria: a) *Indarreko legeria*; b) *Legeria historikoa*; 6.3) Jurisprudentzia.

LABURDUREN ZERRENDA

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAJ	Euzko Alderdi Jeltzalea
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
ed.	Edizioa
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EHAE	Euskal Herriaren Autonomia Estatutua
EK	Espainiako Konstituzioa
etab.	eta abar
FHL	Foru Hobekuntzaren Legea
KA	Konstituzio Auzitegia
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
LHL	Lurralde Historikoen Legea
LXG	Lehenengo Xedapen Gehigarria
or(r).	orrialdea(k)
TAOL	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
zk.	zenbakia
ZO	Zuzenbideko Oinarria

SARRERA

Foru Lurraldeen Eskubide Historikoak, Espainiako Erresumaren antolamendu juridikoaren esparruari dagokionez, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroari —izenak iradoki gisa— Historiaren kariaz datxezkien eskubide politikoak dira, lurraldeon eraentza instituzionalaren oinarri direlarik.

Eskubideok Erdi Aroan lurraldeetako bakoitzean errotzen eta zabal-tzen joan ziren ohiturazko arauetan dute jatorria, gerora “foruak” zeri-tzoten lege-kodeetan jaso egin zirenak. Arau hauek, Zuzenbide zibil eta penal propioa ez ezik, Zuzenbide publikoa ere eratzen zuten, lurralde hauek zeukaten autogobernuaren egikaritzea barnealdera zein kanpoal-dera definituz.

Kontuan hartu beharra dago, lehenik eta behin, harreman soziokul-tural eta linguistiko estua izan arren, politikoki lotura eskasa izan dutela haien artean orain dela denbora erlatiboki gutxira arte; XVIII. eta XIX. mendeetan jatzotako eskubide historikoen aurkako oldarraldiaren au-rrean hasi ziren, hain zuzen ere, elkarren arteko erlazioa garatzen, foruta-sunari euste aldera. Halaber, lurralde bakoitzaren antolaketa ere ezberdina zen: Araba eta Gipuzkoa Probintziak ziren; Bizkaia eta Nafarroa, aldiz, Jaurerria eta Erresuma, hurrenez hurren, burujabetza handiagoa onartzen zitzaielarik. Beraz, eskubideen bilakaera ez da homogeneousa izan.

Eskubide historikoen esanahia aldatzen joan da denboran zehar. Hala, foru-sistemak ikasi eta intepretatu dituztenen artean, Aita Moret, Aita Larramendi edo Sabin Arana azpimarra daitezke, den-denak iritzi ezber-

dinekin. Gaur egun ere, eskubide historikoak 1978ko Espainiako Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian aitortuta dauden eta Foru Lurraldeen autonomiaren funts diren honetan, gizartean sentsibilitate ugari daude eskubideon mugen inguruan, autonomia hori handitzea ahalbidetzen dutela, hain zuzen egungo autonomia-eraentzan datzatela eta autonomia eskubideen mugetatik haratago joan dela diotenen arteko eztabaida juridiko sutsua piztu delarik. Egungo autoreen artean, Miguel Herrero, Juan Porres edota Pablo Lucas dira, besteak beste, esanguratsuenak.

Hala, eskubide historikoon zehazgabetasunak interpretazio ezberdinak egiteko bidea zabaltzen du, azken mende erdiko doktrina zein jurisprudentzia zabal-zabalean ikus daitekeen gisa. Hala, eztabaida juridiko sutsua piztu da, batez ere Konstituzio Auzitegiak bere interpretazio-lerro murriztailea eratzen joan ahala.

Horrexetan datza, hain zuzen, lan hau: egungo autonomia-sisteman eskubide historikoek lurralde hauek bil dezaketen eskumenen iturri-funtzioa zein izan den aztertzea eta etorkizunean izan dezakeen paperari buruzko hausnarketa egitea, azkenik zenbait ondorio atera direlarik. Xede horretarako erabilitako metodologia legeria, jurisprudentzia eta doktrina aztertzea eta jasotzea izan da, besteak beste EAO, Océano eta Dialnet datu-baseak erabilirik.

I. BILAKAERA HISTORIKOA

1.1) Sorreratik konstituzionalismo espainiarrera arte: eskubide historikoen jatorria

Arestian aipatu legez, gaur egun Eskubide Historikotzat ezagutzen dugun figurak Erdi Aroan du jatorria. Izan ere, euren edukia garai hartan hasi zen eratzen, lurralde bakoitzak zituen usadio eta ohiturak finkatzen joan ziren heinean. Ohitura hauek herritarren arteko bizikidetzara arautzen

zuten alde batetik, baina baita Jaun edo Erregearekiko harremanak. Hala, azken hauen botereak mugatu egiten zituzten, lehenik eta behin foruen edukia (hau da, herriaren eskubideak) errespetatuko eta betearaziko zituela zin eginarazten baitziren herriak fideltasun-zina egin aurretik eta bigarrenik lurraldearen eraentza politikoa antolatzen baitzuten, lurraldea gorpuzten zuten erakundeei egitura arautuz eta eskumenak esleitzuz.

Gerora, ohitura eta usadio hauek idatziz jaso egin ziren, eta testu juridikoa izatera igaro ziren. Lehenego lurraldea Nafarroa izan zen: JIMENO ARANGURENEK azaltzen duen arabera, 1238an, tronura Xanpainako dinastia atzerritarra heltzean, foruak zin eginarazi zizkioten, ohiturak jasotzen zituen testu baten bidez. Testu hau izan zen Nafarroako Foru Zaharraren oinarria¹. Ondoren, Bizkaiak bere Foru Zaharra idatzi zuen (1453), eta urte batzuk geroago berriztu (1526); garai berekoak dira Arabako Lege eta Ordenantzen Koadernoak (1463) eta Gipuzkoako Ermandadearen Ordenantzen Koadernoak (1457 eta 1463), azken lurralde honen kasuan arauak behin betiko 1696ko Gipuzkoako Foru Bilduman jaso zirelarik.

Ondorioz, foru-lurraldeek orain dela bost mende inguru Zuzenbide Publikoko zein Pribatuko lege orokorrak zituztela esan liteke. Laurak zeuden, XVI. mendetik aurrera, Monarkia Hispaniarraren eremuan, baina bakoitzak bere erakundeak eta autogobernua mantentzen zituen. Horri esker, Zuzenbide espainiarrarekiko desberdintasun nabarmenak aurki litezke, entzutetsuenak kaparetasun unibertsala, salbuespen fiskalak, aduanak eta Zuzenbide Zibil propioa direlarik. Autogobernuaren harira, bereziki azpimarragarria da foru-pasearen (Nafarroan, sobrekarta) figura. Honen bidez, Batzar Nagusiek, Gorteeak eta Aldundiek eskubidea zuten erregeak edo jaunak emaniko aginduak baliogabe uzteko foru-legeen aurkakoak (eta, ondorioz, kontraforuak) baldin baziren, *onartzen da baina*

¹ JIMENO ARANGUREN, R. *Los fueros de Navarra*. 1. ed. Madril: Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado, 2016, 19. or.

ez da betetzen esapidea erabiliz. Hala, lege orokor hauek bazuten nolabaiteko defentsa-mekanismo bat, jaun- edo errege-boterearen gehiegikeriengandik babesteko.

Foru-pasearen auzia garrantzia handia hartzen hasi zen batez ere XVII. mendetik aurrera. Testuinguru honetan jazo zen, hain zuzen ere, espreski foru-sistemaren defentsa arrazoï izan duen indarkeriazko gatazka bakarra: Gatzaren Matxinada. 1631an, Espainiako Filipe IV.ak eta bere balido Olivaresko Konde-dukeak gatzaren estankoa agindu zuten Bizkaian, Jaureriaren legeen aurka, zeinen arabera Errege Ogasunak ez zuen eskumenik. Bizkaitarrek liskar ugari sortuz erantzun zuten. Hasieran haserrea gatzaren prezioaren igoera soilak izan bazen ere, gerora foruen defentsa eta berauak indargabetzeko saiakerai aurre egitea bihurtu ziren muina; hau da, bizkaitarrek bazuten foru-sistema berezkoa zuten eta lege eta arau propioak kanpoko injerentzietatik at gordetzeko eskubidea zuten kontzientzia.

Kontzientzia hau, halaber, gero eta maizago eta argiago agerraraziko da, Espainiako erregeen oldarraldi zentralista-uniformista areagotzearekin batera. Lau lurraldeetako aldundien kexak eta jatorrizko foru-boterearen gorapamenak ugariak dira XVII. eta XVIII. mendeetan zehar. Garai honetan hasi ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (baita Nafarroa ere, nahiz eta, bere erresuma-estatusa zela-eta, ez gainerako hiru lurraldeak beste) foruen defentsan elkartzen. Izan ere, erregimen desberdina eduki arren, antzekotasun handiak zituzten haien artean, Zuzenbide Publikoan batez ere. Gainera, denek ala denek argudiatzen zuten foru-sistemaren hitzarmen-izaera, hau da, lurraldeen eta errege edo jaunaren arteko parekotasuna eta aldebiko harremana. Hala, esanguratsuak dira Moret eta Larramendiren ikuspuntuak. Lehenengoak, *Nafarroako Erresumaren urte-liburuak* (1684), Nafarroa subjektu politiko burujabea izaten jarraitzen duela eta, beraz, bere foruak eta legeak Nafarroak berak berezko dituen arauekin bat etorri baino ezin dituela aldatu baieztatzen du. Beste era batean esanda, Nafarroak eskubidea du bere burua gobernatzeko

eta arautzeko, Historian zehar hala izan delako eta ez diolako hala izaten jarraitzeari uko egin. Larramendi gipuzkoarrak, bere aldetik, antzeko ondorioak atera zituen. Moreten ia garaikidea izan arren, testuingurua ez zen zeharo berdina: Espainiako Ondorengotza Gerraren ondorioz, Borboitarrek eskuratu zuten tronua, zentralismoak nabarmendutako aldi bat hasi zelarik. Izan ere, Aragoiko Koroako erakunde eta Zuzenbideak bertan behera utzi zituen ia osoki 1707ko Planta Berriko Dekretuen bidez. Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako foru-sistema ez zen dekretuotan barnebiltzen, aipatutako gerran eman zioten babes eskertze aldera, baina Austriatarrek abian jarritako foruen higadura-prozesua aurrera eramane zuten, are intentsitate handiagoarekin. Hala, aduanak Ebro ibaitik Piriniora lekualdatzeko saiakera egin zen, bertakoen haserrearen aurrean azkenik atzera egin behar izan zelarik.

Testuinguru horretan, Larramendik arrisku larrian zekuskien Gipuzkoako eta, hedaturaz, gainerako foru-sistemak, eta irmoki defendatzeko zenbait lan idatzi zituen, esanguratsuen *Sobre los fueros de Guipúzcoa* delarik. Bertan, kontzeptu guttiz berritzaile bat ematen du aditzera, aurretik zegoen forutasunaren kontzepzioaz haratago doana. Izan ere, Espainiaren foruen aurkako oldarraldiaren aurrean, ordura arte planteatu gabeko ideia bat plazaratzen du: Gipuzkoa eta gainerako foru-lurraldeak (Pirinioetako ipar zein hegoko magaletakoak) nazio independente bihurtu eta errepublika batean batu. Independentziaren proposamena gorabehera, garrantzitsua da konturatzea jaun edo erregearen figura bertan behera uzten dituela Larramendik eta, hala eta guttiz ere, foruak aurrera jarraituko luketela, euren horretan. Era horretan, lurralde bakoitzak bere burua gobernatzeko ahalmena eta eskumen guzti-guztiak lituzke, foru-erakundeen eta jaun edo erregearen arteko eskumen-banaketa eze-rezean utziz. Azterketa sakonagoa eginez, Larramendiren pentsamoldean foru-erakundeen boterea jatorrizkoa dela antzematen da: erakundeok dira boterearen titularrak, nahiz eta jaun edo erregeari eskumen eta fun-

tzio batzuk laga zaizkion, betiere lurraldeari komenigarriagoa zaiolakoan. Alabaina, horiek egoki ez betetzekotan, foru-erakundeek legitimitatea lukete utzitako botere hori berreskuratzeko. Hementxe aurki dezakegu Larramendi eta bere aurrekoen arteko desberdintasun nabaria: aurrekoen ustez, foru-erakundeen erantzuna jaun edo erregez aldatzea baino ez litzateke izango, figura horrek jarraitu egingo lukeelarik, dena den; Larramendik, ostera, erakundeek botere osoa berriz ere euren gain hartzeko eskubidea dutela deritzo.

Ildo horretatik, foru-lurraldeen eta Espainiaren arteko harremana ere era bertsuan deskribatzen zuen: Gipuzkoa (eta, implizituki, Araba, Bizkaia eta Nafarroa ere) Gaztelarekin eta gerora Espainiarekin lotuta bazegoen, komeni izate hutsagatik baino ez zen, lurraldeek askatasun osoa luketelarik lotura hori deusezteko Espainiak ez bazituen gipuzkoarren lege eta bizimodu tradizionalak errespetatzen. Larramendiren ideia honen adierazlerik garbiena hurrengoa da: 1794an Konbentzio Gerran, Espainiaren eraso antiforalez gogaituta eta gudaroste frantziarra mugan zegoelarik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Espainiarengandik banatu eta Frantziaren babespeko errepublika independente aldarrikatu zuten lurraldea, Larramendik erabilitako argudio berberak erabilia: Gipuzkoa 1200. urtean Gaztelako erregeari (eta ez, berez, Gaztelari) lotu zitzaion bere foruak babesteko; babes horren faltan, Gipuzkoak harremana eteteko eskubidea zuen, erregeari utzitako eskumenak berreskuratuz. Nabarmena da baze-goela foru-lurraldeak burujabe izateko eta, beraz, nahi beste eskumenen titular izateko eskubide osoa zuten pentsaera hedatua.

Alabaina, Gipuzkoaren burujabetza-egikaritze burutugabe hori ez zen ondoriorik gabekoa izan. XIX. mendean sartzearekin batera, Espainiako Karlos IV.a eta bere ministro Manuel de Godoy foruen aurkako erasoak intentsitate handiagoaz egiten hasi ziren, Estatuaren uniformizazio- eta zentralizazio-prozesua azkartzeko asmoz. Horretarako, aipatu berri dugun foruen nortasuna ukatu eta pribilegio hutsa baino ez zirela argudiatzen

zuten lanak bultzatu zituzten. Hala, aurrerapenarekin eta berdintasun-printzipioarekin bateraezinak lirateke foru-lurraldeen legeria propioak mantentzearekin, eta ezereztea beharrezkoa litzateke Espainiaren interes orokorra gordetzeko. Gainera, foruak Espainiako erregeek emaniko pribilegioak izanik, hauei legozkieke foruak aldebakarrez indargabetzeko ahalmena.

1.2) Foruak eta Espainiako lehenengo Konstituzioak: foru-erregimenaren gainbehera

Une historiko honetan hasten da, hain zuzen ere, Espainiako Historia Konstituzionala; zehazki, 1808. urtean, Baionako Estatutuarekin. Bertan, Historian lehen aldiz Espainiako arau juridiko batean foruen auzia beren-beregi aipatzen zen.

Baionako Estatutua Josef I.aren erregealdian emaniko lege gorenaren izan zen. Estatutua eztabaidatzeko eta onartzeko, erresuma osoko lurraldeen ordezkariak dei egin zitzaizkien, Baionako Asanblada eratuz. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkariak ere deialdia luzatu zitzaizkien. Lehenengo aldiz, foru-lurraldeek asanblada politiko espainiar batean parte hartu zuten.

Lau lurraldeetako ordezkariak foru-erregimena babesteko eta mantentzeko agindua jaso zuten foru-erakundeengandik. Horretarako, jarraitu zuten estrategia bateratua foruekiko zeukaten kontzepzioarekiko koherenteak izatean zetzan: hasteko, asanbladan parte ez hartzea eta entzule soilak izatea erabaki zuten, hogeitau urte lehenago (Behe) Nafarroako Erresumaren ordezkariak 1789ko Frantziako Asanblada Konstituziogilean egin zuten tankeran. Izan ere, lurraldeak Monarkia espainiarrarekiko harremana “batasun pertsonala, eta ez erreala”² zen. Ondorioz, foruen edo,

² MONREAL ZIA, G., “Los Fueros Vascos en la Junta de Bayona de 1808”. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 2009, 4. zk., 262. or.

erabiltzen zuten lexikoa errespetatuz, “Konstituzio berezien” inguruan eztabaidatzeko legitimitatea zuena ez zen asanblada, Bonaparte bera baizik.

Xede horrekin, enperadoreari lau idazki luzatu zizkioten, lurralde bakoitzak bana, foru-sistema errespetatuz ezan eskatzen eta hala egitearen komenigarritasunaren aldeko argudioak eskaintzen. Idazki bakoitzak lurralde bakoitzaren berezitasunak jasotzen zituen, baina, orokorrean, antzekotasun handiak daude. Lehenik eta behin, Konstituzio berri baten beharrik ez dutela diote, jadanik bazutelako euren: foruak. Garrantzitsua da foru eta konstituzio terminoak baliokidetzat erabiltze honi erreparatzea. Izan ere, konstituzioek, definizioz, lege gorenaren izaera dute, eta burujabetasunaren adierazle garbienteko bat dira, ezin baita konstituziorik aldarrikatu subjektu politiko autonomoa izan gabe.

Bestetik, aipatu berri denarekin lotuta, erresuma osoan Espainiako Gorteak erakunde legegile bakar gisa ezartzearen (Estatutuaren aurreproiektuaren 60. artikulua) eta Kode Zibil bakarra aplikatzearen (87. artikulua) aurka agertzen dira bereziki. Nafarroaren kasuan, erresuma-estatusaren ondorioz Gorte propioak dituztela gogorarazten diote enperadoreari, Espainiakoengandik bereizita. Bizkaiak eta Gipuzkoak ere Gorte espainiarretan parterik hartzen ez dutela azpimarratzen dute, legeak foruerakundeek onartzen dituztelarik. Gainera, lege zibil propioak badituztela esaten dute, erresumako gainerako lurraldeen araukiko oso desberdinak (nahiz eta lau lurraldeen artean antzekotasunak daudela dioten espreski). Bizkaiak bere “independentziari” eragingo liokeela deritzo, gainera. Erresumako gainerako lurraldeen pareko tributu-betebeharren ezarpenaren aurka ere azaltzen dira, foru-itunaren aurkakoa izateagatik eta, diotenez, materialki betepena ezinezkoa izateagatik, lurraldeen egoera ekonomikoa aintzat harturik.

Bonapartetarrek ordezkariak aurkeztutako txostenak kontuan hartu zituzten, eta, lehenengo aldiz, testu juridiko espainiar batean foruak be-

ren-beregi jorratzen dira. Hain zuzen ere, Baionako Estatutuaren 144. artikulua, urte batzuk geroago 1839ko urriaren 25eko Legeak erabiliko zuena gogorarazten duen formula batekin (lan honetan geroago aztertuko den legez), hurrengoa dio: “Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako foru partikularrak lehenengo Gorteetan aztertuko dira, probintzia berberen eta nazioaren intereserako komenigarritzat jotzen dena zehazteko”³. Alde batetik, foruak ez ezerezteko helburua lortua zen, xedapen hori gabe Estatutua zuzenean aplikatuko bailitzateke foru-lurraldeetan foru-eraentza ordezkatzuz eta deuseztuz. Hala, foruen bizirautea erdietsi zen. Alabaina, foruak “nazioaren interesaren” menpe geratu ziren, ordenamendu oso eta propioa izatetik espainiar ordenamenduan txertatuta geratzearen arrisku garbiarekin.

Urte horretan bertan piztu zen Espainiako Independentzia Gerraren ondorioz, Estatutuaren indarraldia mugatua izan zen, eta ezin izan zen 144. artikulua agindutako foruen azterketa egin. Dena dela, foru-lurraldeetan ordezkariak eginiko alegatuak txit interesgarriak dira, foru-erregimenaren legitimitatearen eta izaera konstituzionalaren inguruko pentsamoldea zein zen erakusten baitigute, hain zuzen ere, Historian foruen papera inoiz baino gori-goriago egon zen mendearen atarian.

Izan ere, Espainian ezarri zen ezegonkortasun politikoak foruengan eragin zuzena izan zuen. Liberalismoaren eta tradizionalismoaren arteko gatazkan, foru-sistema puntu zentralerako bat izan zen. Liberalen ustez, Godoyk sustatutako pentsamolde bera jarraituz, foruak Antzinako Erregimeneko pribilegioak ziren, espainiarren arteko berdintasunaren aurkakoa. Cádizko 1812ko Konstituzioan, Baionako Estatutuan ez bezala, ez zen foruen inguruko aipamenik jaso, *de facto* euren deuseztasuna zekarrena. Legeria bakarra ezartzen zen erresuma osoan, eta botere legegilea Gorte espainiarrei besterik ez zitzaien esleitzen. Foru-lurraldeetan aur-

³ 1808ko Baionako Estatutua. *Gaceta de Madrid*, 1808ko uztailaren 27koa.

kakotasuna nabaria izan zen: Batzar Orokorrek Konstituzioa zin egitean, zenbait gorabehera jazo ziren. Bizkaian, eztabaida sutsuak egon ziren, eta foru-erakundeen eskumen-hustutzea zekarren Konstituzioari men egiteari muzin egin zioten, baina azkenik bortxaz behartu zituzten batzarkideak. Gipuzkoan, Konstituzioa onartu zuten batzarrek, euren “konstituzio historikoaren eredugarritasuna” eta Gipuzkoak foruen aurkako erasorik ez zuela onartuko aipatuz akta ofizialean. Berriz ere, foruei konstituzio deitzen zaie. Nafarroari dagokionez, dekretuak ez zituen Gorte nafarrak aipatzen, hala eginez gero bere legitimitatea onartuko litzateke-eta. Horren aurrean, Aldundiak Gorte nafarrak batzeko eskatu zuen, baina Cádizko Konstituzioaren aldekoek ez zuten baimendu, Gorteetan azkenik Konstituzioari men egin ordez konstituzio nafarraren eta espainiarraren arteko bateragarritasuna nola gauzatu ikertzen hasiko ote ziren beldur.

Cádizko Konstituzioak, dena dela, ez zuen askorik iraun indarrean (1814ra arte baino ez, 1820tik 1823rako Hirurteko Liberalarekin batera), eta, Baionako Estatutuarekin gertatu bezala, ezin izan ziren foru-lurraldeetan egon litezkeen ondorio guztiak antzeman. Fernando VII.aren itzulerarekin batera, foruak berrezarri ziren, eta erregeak zin egin zituen.

Hala ere, Fernando VII.a zentzean Lehenengo Gerra Karlista lehertu zen bi erregegaien artean. Foruzaleen gehiengoak Karlos erregegaiaren alde egin zuen, Elisabetek foruen aurkako liberalen babesa jaso baitzuen. Foru-lurraldeetan, gatazkaren muina foru-erregimenaren bizirautean zetzan. Bien bitartean, liberalek 1837. urtean Konstituzio berri bat onartu zuten, 1812koaren tankerakoa. Honetan ere foruak aipatu gabe uzten ziren, praktikan desagertzea esan nahi zuena.

Une honetan, interesgarria da existitzen ziren euskal liberal foruzale bakanen ikuspuntua, Jose Antonio Muñagorrik bere *Foruak eta bakea* egitasmoan gorpuztu zuena. Aldarri hartan, erregegai baten edo bestearen alde borrokatzeak zentzurik ez zuela zioen, “Nafarroa eta beste hiru pro-

bintziak hainbeste adiskidetasun, odol, ohitura eta eskubidez elkartuak, beti beren buruaren jabe”⁴ izan baitira eta, hortaz, ez zegoen jauntxoan aldeko borroka egiteko arrazoirik, “foruak gordez gero, berdin baitzaigu edozein [errege]”⁵. Beraz, karlistek amore ematearen aldekoa zen, uste baitzuen liberalak, era horretan, foruei eustea onartuko zutela. Dakusagunez, bazeuden erresuma berean Konstituzio bat baino gehiago egotea eta Antzinako Erregimena atzean uztea bateragarri zeritzoten liberalak.

Alabaina, Muñagorriren ideiek ez zuten arrakasta handirik izan, gerran karlistek ere izan ez zuten gisa. Gerra 1839ko Bergarako Itunarekin bukatu zen, zeinaren 1. artikulua arabera Espartero buruzagi liberalak Gorteei foruak mantentzeko eskatzeko konpromezua hartzen zuen. Hala ere, bi hilabete eskasen buruan, Espainiako Gobernuak 1839ko urriaren 25eko Lege sonatua onartu zuen, honako hau zioelarik:

“1. art: Euskal probintzietako eta Nafarroako foruak berresten dira, monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe.

2. art: Gobernuak, aukera izan bezain laster eta Euskal Probintziei eta Nafarroari entzun ondoren, lehen aipatutako foruetan haien interesa aldarrikatzen duen nahitaezko aldaketa proposatuko dio Gorteei, nazioaren eta Monarkiaren Konstituzioaren interes orokorrenekin bat eginez eta, aldi baterako eta lehen adierazitako moduan eta zentzuan, sortu litezkeen zalantzak eta eragozpenak ebatziz eta Gorteei horren berri emanaz”⁶.

Legeak itxuraz foruak mantentzen dituen arabera, mamia lehenengo artikuluko bigarren zatian dago: foruak “monarkiaren batasun konstituzionalaren” menpeko egoera juridikora igarotzen dira, ordenamendu

⁴ AURKENERENA BARANDIARAN, J., “Muñagorri, bakea eta foruak”. *Zuzeu*. <https://zuzeu.eus/euskal-herria/munagorri> (Azken kontsulta 2025eko apurilaren 2an).

⁵ AURKENERENA BARANDIARAN, J., “Muñagorri...”, *ibid*.

⁶ 1839ko urriaren 25eko Legea, Foruak berresten eta eraldatzen dituen. *Gaceta de Madrid*, 1812. zk., 1839ko urriaren 26koa.

autonomo izateari utzita. Lorenzo de Arrazola garaiko Espainiako Grazia eta Justizia Ministroaren esanetan, “batasuna lotura handietan, hala nola errege konstituzionalean, botere legegilearen batasunean eta ordezkari-tza nazional erkidea izatean” zetzan batasun konstituzional hori⁷. Hala, ikuspegi godoyzalea gailentzen zaio Moretek, Larramendik edota Baionako Asanbladan ordezkariak azaldutako eta foru-lurraldeetan gehiengoarena zen interpretazioari. Foru-erregimenak eskaintzen zituen eskubideen titular zirenek, lau lurraldeetako herritarrek, ez zioten inoiz uko egin eskubideoi, lege horrek gaurdaino zabalik iritsi den eta oraindik konpondu ez den gatazka sortu zuelarik. LARRAZABAL BASAÑEZEK dioen gisa,

“foru-indargabetzeak antzinako itun baten aldebakarreko haustura eragin zuen, eta ziur nago zauria ez dela oraindik erabat itxi. Ordutik, eta etengabe, Euskal Herrian foru-berrezarpen osoa eskatu zen, Euskal Herriak ez baitie inoiz uko egin Foruetatik eratorririko eskubide historikoei, etengabeko autogobernu-nahiaren adierazpen gisa”⁸.

Izan ere, foru-erakundeak euren burujabetza babesteko zeukaten tresna juridikoaz gabetuak izan ziren era honetan: foru-pasea ezerezean geratu zen. Formalki, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 1841eko urriaren 29ko Errege Dekretuak indargabetu zuen arren (“8. artikulua: Legeak, Gobernuaren xedapenak eta auzitegien probidentziak Euskal Probintzietan inolako murrizketarik gabe betearaziko dira, Erresumako gainerako probintzietan egiaztatzen den bezala”⁹), 1839ko Legeak ezarritako bata-

⁷ ORELLA UNZUÉ, J. L., “Convenio navarro o Ley paccionada de 1841”. *Eusko Ikaskuntza*. <https://www.euskonews.eus/0706zbk/gaia70603es.html> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 5ean).

⁸ LARRAZABAL BASAÑEZ, S., “Ley de 25 de octubre de 1839, una historia de fueros y desafueros”. *Deia*. 2014ko urriaren 25a. <https://www.deia.eus/actualidad/2014/10/25/ley-25-octubre-1839-historia-5185104.html> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 5ean).

⁹ 1841eko urriaren 29ko Errege Dekretua. Gaceta de Madrid, 2581. zk., 1841eko azaroaren 3koa.

sun konstituzionalarekin bateraezina zen jada. Errege Dekretuak zehaztu baino ez zuen egin. Foru-lurraldeetan ez zen onartu foru-erregimena bertan behera uzteko Espainiako Gorteek eskumena zutenik. Izan ere, Joaquín Ignacio Mencos liberal (bistan denez, liberalen artean ere zalan-tzak zeuden) eta Gendulaingo Kondeak honakoa zioen Nafarroari (eta, hedaturaz, gainerako foru-lurraldeei ere) buruz:

“Herrialde benetan konstituzional bat, 1833. urtera arte forma eta egin-tza politiko guztien jabe izan zena, hala nola legeak egitea eta bere go-bernuan esku hartzea, ez zen soilik forala, eta, beraz, ezin zuen bere oinarritzko legea gainditu eta beste lege batean urtzeko eskubidea eta eskumena aitortu, baizik eta bere gorteetan Erregearekin”¹⁰.

1839ko Legearen 2. artikulua edukiari helduz, Nafarroak eta gainerako foru-lurraldeek, lehenengo aldiz, estrategia desberdinak hartu zituzten euren foru-erregimenaren defentsan. Alde batetik, Nafarroak Espainiako Gobernuarekin foruen eta Espainiako Konstituzioaren arteko bat etortzea eztabaidatzeko ordezkariak bidali zituen, eta 1841ko Foruak Eraldatzeko Legea (gerora Lege Hitzartuaren izena hartu izan duena) onartu zen negoziazioen ondorioz. Legearen arabera, Nafarroak bere erresuma-estatusa eta, harekin batera, eskumen legegileak eta judizialak eta foru-erakundeak galdu zituen, probintzia hutsa bihurtuz, zerga-arloan nolabaiteko autonomiaren trukean (25. artikuluan Nafarroari urtean 1.800.000 erreale ordaintzeko betebeharra ezartzen zitzaion, gaintzekoan bere kabuz jardun ahal zuelarik¹¹). Ondorioz, Nafarroak eskumen ia guztiak galdu zituen, zenbait ahalmen administratibo eta fiskal izan ezik.

¹⁰ ORELLA UNZUÉ, J. L., “Convenio navarro...”, *op. cit.*

¹¹ 1841ko abuztuaren 16ko Legea, Nafarroako foruei buruzkoa. *Gaceta de Madrid*, 2498. zk., 1841eko abuztuaren 19koa.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak, ostera, 1839ko Legea ez onartzea eta ordura arteko foru-erregimenari kalte egin ziezaiokeen edozein aldaketa negoziatzeari uko egitea erabaki zuten. Hala ere, Espainiako Gobernuak aurretik aipatutako 1841ko urriaren 29ko Errege Dekretuaren bidez lurralde hauen eskumenak nabarmen murriztu zituen, Nafarroan baino era neurritsuagoan izan zen arren: Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak deuseztu ziren eta Probintzia Aldundiek ordezkatu zituzten, arestian esan bezala foru-pasea indargabetzeaz eta aduanak Ebrotik itsasora lekualdatzeaz gain¹². Hala ere, bestaldetik, salbuespen fiskalak eta militarrek ez ziren ukituak izan, bere horretan mantendu zirelarik¹³.

Hurrengo urteetan, Espainian moderatuen eta liberalen arteko gatazkak eragindako ezegonkortasun soziopolitikoak arau ugari ekarri zituen foruen auzia jorrazteko. Hala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa eskumenak jasotzen eta galtzen joan ziren, boterean nor egon arabera, baina ez ziren inoiz itzuli 1839aren aurreko egoerara eta ez zuten foru-pasea inondik inora ere berreskuratu. Azpimarragarria da urte hauen artean 1869ko Konstituzioa, Aldundiek foruen aurkakotzat jo zutena eta, hargatik, aldarrikapen-ekitaldira ez joatea erabaki zuten, baita aurkako jarrera hori erakusten zuen agiri bat Gobernuari helaraztea, ez zedin ez joatea isilpeko onarpentzat interpretatu. Oraindik ere, foru-erakundeek zegozkien eskumen guztiak berreskuratzea galdatzen jarraitzen zuten irmoki.

Eskumen horiek hein handi batean berreskuratzeako aukera egon zen 1873ko Konstituzio Federalaren proiektuarekin. Onartu ez zen arren, ia bi mendeko zentralizazio-prozesuari 180 graduko bira eman nahi zitzaion. Hala baloratzen du LARRAZABAL BASAÑEZek:

¹² 1841eko urriaren 29ko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 2581. zk., 1841eko azaroaren 3koa.

¹³ 1841eko urriaren 29ko Errege Dekretua, *op. cit.*

“Gaurko pentsamoldearekin erakargarriak irudi dakizkiguke proiektu konstituzionalaren zenbait ideia, hala nola Federazioko Estatukideen autonomia politiko eta ekonomiko-administratiboa (92. art.); Eskualde Baskongadoak Estatutzat jotzea (1. art.), XX. mendeko lehen hereneko autonomia-estatutuen garaiari nabarmen aurreratzen zitzaion hiru Lurraldean antolaketa bateratua; Estatuak euren buruari Konstituzio politiko bat emateko aukera (93. art.); Estatuaren eskumen propioak (96. art. eta hurrengoak), etab.”¹⁴.

Ikusteke legoke 93. artikulua nola aplikatuko zuketena foru-lurraldeek, bi ardatz aintzat hartuta: batetik, Estatuaren Konstituzioa foruak izatekotan (eta foru-erakundeek foruen aurkako jo ezean), zenbateraino izango lirateken aplikagarri, Konstituzio Federalarekin talka egin gabe; eta, bestetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, nola uztartuko lirateken hiru foru-sistemak bakar batean, hiru lurraldeek Estatu bakarra eratuko bailukete. Eztabaida hau mende bat geroago erreproduzitu zen, ikusiko dugunez, egungo Euskal Autonomia Erkidegoa eratzean.

Dena dela, 1873ko Konstituzioaren proiektua oso garai latzetan aurkeztu zen. Izan ere, urte bat lehenago Bigarren Gerra Karlista piztu baitzen. Lehenengoan bezala, foru-lurraldeetan, erregegaiaren auziaz gain, foru-erregimenaren bizirautea zegoen jokoan, aurrekoan baino era argiagoan, VÁZQUEZ DE PRADAK esan bezala, “amore emate masiborik egon ezean, [foruak] abolituak izango ziren”¹⁵ eta. Hala izan zen: berriz ere, karlisten bandoak galdu zuen gerra, eta 1876ko uztailaren 21eko

¹⁴ LARRAZABAL BASÁÑEZ, S., “Evolución de los regímenes forales de las Provincias Vascongadas hasta 1876: desarrollo foral en la interinidad en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa”. *Iura vasconiae*. 2012, 9. zk., 456. or. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4194082> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 7an).

¹⁵ VÁZQUEZ DE PRADA, M., *Negociaciones sobre los fueros entre Vizcaya y el poder central, 1839-1877*. Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1984, 303. or., hurrengo lanetik hartua: LARRAZABAL BASÁÑEZ, S., “Evolución de los regímenes forales...”, *op. cit.*, 457. or.

Legearen bidez behin betiko indargabetu ziren foru-erregimenen azken apurrak¹⁶.

Dena dela, Espainiako Gobernuak, giroa baretze aldera eta foru-lurraldeetan zergak jasotzeko estrukturarik ez zeukanez, 1878an Ekonomia Itunak egin zituen hiru aldundi probintzial berriekin, 1841ko Lege Hitzartuan Nafarroarentzako jasotako zerga-sistema antzekoa ezarritz.

1.3) Foru-berrintegrazioaren aldeko aldarrikapen-garaia

Momentu honetatik aurrera, foruzaleek foru-berrintegrazio osoa izango dute helburu politiko, eta xede horrekin gauzatuko dute euren egitasmo politikoa. Kontzeptu hori, bakarra izan arren, berau defenditzen zuten ideologia bakoitzak era desberdinean interpretatuko du; batez ere, eusko abertzaletasunaren sorrera eta hedatzearen ostean.

Izan ere, Sabin Arana abertzaletasunaren aitzindariak, aurreko mendean nagusi zen pentsamoldearekin bat etorritz, foruak lurraldeen berezko konstituzioak zirela zioen, eta indarrean zeuden bitartean foru-lurraldeak burujabeak zirelakoan zegoen. Beraz, foru-lurraldeek (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa) nazio bat eratzen zutenenez, eskubidea zeukaten euren burua independente aldarrikatzeko. Horretarako, 1839ko urriaren 25eko Legearen indargabetzea zen nahitaezkoa, hura izan baitzen burujabetza galtzearen arrazoi nagusia. Doktrina horren eraketa eta zabalkuntzaren ostean, Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) gidatu zuen foru-berrezarkuntza osoaren aldeko borroka, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan (Arabaren eta Nafarroan, karlistak ziren gehiago, berrezarkuntza ere eskatzen zutelarik baina abertzaletasunarekiko oso ikuspuntu ezberdina edukirik). José Antonio Agirre diputatu jeltzaleak, gerora Euzkadiko

¹⁶ 1876ko uztailaren 21eko Legea, Foruak abolitzen dituen. *Gaceta de Madrid*, 205. zk., 1876ko uztailaren 25ekoa.

Jaurlaritzako Lehendakari izango zenak, honela adierazi zuen Diputatuen Kongresuan, 1935eko abenduaren 5eko osoko bilkuran:

“Eusko abertzalea naiz eta beraz euskal naziotasuna aldarrikatzen dut. Euskal naziotasuna, Euzkadi, bere patuaren gaineko burujabetzarekin. [...]

Gure jomuga politikoa —Euzko Alderdi Jeltzalearena, errepara ezazue, Diputatu Jaunak—, Estatu espainiarrekiko, honetan gauzatzen da: 1839ko legearen indargabetzea. Eusko abertzaletasunak asmoa du, orden honetan, Euzkadiren egoera politikoa bere Konstituzio politikoarekiko xedapen erasotzaile hori aldarrikatu aurreko garaietan egitatea zenera atzera eramatea”¹⁷.

Agirreraren hitzaldiaren atal honetan garbi geratzen da abertzaletasunak foruak, Konstituzioa eta burujabetza baliokidetzat jotzen dituela, XIX. mendean gorpuzten joan zen ideia jasoz. Beraz, foruen kontzepzioan abertzaletasunak ez zuen berrikuntza handirik egin, karlistek ere oso antzeko postulatuak defendatzen zituzten. 1919an, Jesús Etayo *El pensamiento navarro* egunkari karlistaren zuzendariak honakoa zioen:

“Nafarroa eta gainerako herriak Espainiako errege-botere erkideari men egin zioten? Barne-bizitza osoki gobernatzeko askatasuna mantendu zuten eta Nafarroak, uler ezazue ongi, botere orokorrari, hau da, artean, errege-botereari gainerako erresumekiko batasunak betiko iraun zezan beharrezkoa zena baino ez zion laga eta batasunak iraun zezan nahitaezkoak zirenak baino betebeharrak gehiagorik ez zuen hartu. Hala bizi izan zen Nafarroa mendeetan zehar, hala bizitzeko eskubidea du eta hala biziko da baldin eta guk, nafarrok, benetan nahi badugu hala bizitzea. Eta hori izango da, eta ez besterik, foru-berrintegrazioa. Erdiesterako era juridikoa 1839ko legearen eta bere ondorengo 1841koaren indargabetzea

¹⁷ MEES, L. et al., *La política como pasión*. 1. ed. Madril: Tecnos, 2014, 241. or.

da, aurreko Zuzenbide Estatura itzuliz [...]. Hau lorturik, Nafarroak bere askatasuna berreskuratuko du eta hori da, funtsean, berrintegrazioa. [...] Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremana mantentzeko nahitaezko aldaketa guztiak ezin ditu Estatuak aldebarrez inposatu, Nafarroak Estatuarekin era askean adostu baizik, orain eta beti”¹⁸.

Espainiako II. Errepublikan, foru-berrintegrazioaren aldarrikapena autonomia-estatuaren aldeko borrokan kanalizatu zen hasieran, abertzaleen eta karlisten koalizioan, baina Espainiako Gorteek onar ezazaten beharrezkoa zen laikotasuna estatuari atxiki zitzaionean, karlistek estatutua eta foruak kontrajarri zituzten, abertzaleek estatutua foruen egunetzea zela defendatzen zutelarik.

1931ean izan zen lehenengo estatutu-proiektua, Lizarrako Estatutuaren izenaz ezaguna. Aurrehitzaldian Historiaren kariaz foru-lurraldeek eskumenak bereganatzeko eskubidea aipatzen zen (“ahalmenak galdatzen ditu ordena materialean”¹⁹), eta 15. artikuluan Euskal Estuari (hala zertizon lau foru-lurraldeek osatutako eskualdeari) eta Estatu espainiarri zegozkien eskumenak zerrendatzen ziren, beren-beregi esleitutakoak edozein kasutan Euskal Estuarentzat egokituta ulertu behar zirelarik. Eskumen oso zabalak gordetzen ziren azken honentzat, “eskubide historikoen aldarrikapena bizirik mantenduz”²⁰; tartean, gudarostea antolatzea edo Vatikanoarekiko harremanak, azken hau izan zelarik Espainiako Gorteek estatutua ez onartzearen arrazoi nagusia. Halaber, foru-lurralde

¹⁸ ETAYO ZALDUENDO, J., *La reintegración foral de Navarra. Conferencia en el Círculo Carlista, dada el 31 de enero de 1919*. Iruñea: Casa Editorial Huarte, 1919, 6-7 orr. <https://lealtadalalealtad.wordpress.com/wp-content/uploads/2023/08/1919-la-reintegracion-foral-de-navarra-jesus-etayo.pdf> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 10ean).

¹⁹ 1931ko Euskal Estatuaren Estatutu Orokorren proiektua. <https://revistasonline.inap.es/index.php/DA/article/view/4237/4291> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 14an).

²⁰ 1931ko Euskal Estatuaren Estatutu Orokorren proiektua, *ibid.*

bakoitzarentzako eskumenak estatutuan beren-beregi Euskal Estatuari esleitu gabekoak eta lurralde bakoitzaren estatutu partikularrean zehaztutakoak izango zirela zioen 20. artikulua.

Azkenean, estatutua 1936an onartu zen, Gerra Zibilean bete-betean murgilduta. Bizkaian eta Gipuzkoako eta Arabako herri gutxi batzuetan baino ez zen aplikatu, gainerako lurraldea ordurako frankisten menpe baitzegoen. Gerra-egoera zela-eta, oso estatutu sinplea zen, 1931koak ez bezala eskubide historikoei eta foru-erregimenei erreferentziarik egiten ez ziena. Aitortutako eskumenak ere 1931koan baino murriztagoak ziren, baina Euzkadiko Jaurlaritzak, gerra-egoerak eragindako isolamenduaz baliatuz, testu estatutarioan jasotakoak baino askoz ere handiagoak egikaritu zituen, hala nola gudarostea eratzea, moneta lantzea, mugen kudeaketa edota kanpo-harremanak²¹. Hala izaterik baieztatzen duen lehen mailako iturririk egon ez arren, zentzuzkoa da pentsatzea Agirre, abertzalea izanik, eskumen horiek Euzkadiri eskubide historikoen kariaz zegozkion iritzikoa izatea. Espainiako Gobernuak ez zegoen konforme, adostutakoa traizionatzen hartzen baitzuten Jaurlaritzaren aktibitatea.

Abertzaleek eta errepublikazaleek gerra galdu izateak, dena dela, estatutua indarrean bederatzi hilabete eskas baino ez egotea ekarri zuen. Hortik aurrera, frankismoan, foru-lurraldeen eskumenak Araban eta Nafarroan Ekonomia Itunen bizirautera mugatu ziren. Nafarroari, halere, 1841ko Lege Hitzartuaren ondorioz, eskumen gutxi batzuk onartu zitzaizkion, eskumen horiek definitzen zituzten erregelamenduek ahalbidetzen zituzten Estatuko Legeen bidez²².

²¹ MEES, L., et al., *La política como...*, op. cit., 297. or.

²² LARUMBE BIURRUN, P. M., "El régimen navarro en el franquismo". *Gerónimo de Uztariz*. 1988, 2. zk., 52. or. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4813897> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 16an).

Frankismoak ezarritako politika uniformistak, beraz, autonomia apuraren bat baino ez zien aitortu Araba eta Nafarroari (ez Bizkaiari ezta Gipuzkoari, erregimenak “probintzia traidore” baitzeritzen, gerran Errepublikaren alde agertu izateagatik). Foruaren aldeko aldarrikapenak gutxi izan ziren, batez ere Francok karlistak alde batera uzten zihoan ahala, falangisten mesedetan. Berrogei urte igaro behar izan ziren berriz ere foru-lurraldeek autonomia izateko eta eskumenak jasotzeko eskubideari buruzko eztabaida politikoa askatasunez plazaratu ahal izateko.

II. ESKUBIDE HISTORIKOAK 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN, EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUAN ETA NAFARROAKO FORU HOBEKUNTZAN

1978ko Espainiako Konstituzioak, balio gorentzat jotzen duen pluralismo politikoa eta Estatu barruko sentimendu nazional ezberdinak aintzat hartu nahian, 2. artikuluan “nazionalitate” hitza jasotzen du, isilbidez Euskadiri, Galiziarri eta Kataluniarri erreferentzia eginez, eta autonomia izateko eskubidea aitortzen die, VIII. Tituluan garatzen duelarik. Dena dela, Euskadiren kasuan, EKak beste aipamen garrantzitsu bat dauka: Lehenengo Xedapen Gehigarria (aurrerantzean, LXG). Xedapenak honakoa dio:

“Konstituzioak babestu eta onartzen ditu foru-lurraldeetako eskubide historikoak.

Foru-erregimenaren eguneratze orokorra, dagokionean, Konstituzio eta Autonomia Estatutuen barnean egingo da”²³.

Era honetan, konstituziogileak foru-lurraldeetan mendez mende indarrean egondako foru-sistemak aintzatetsi zituen. Aurrekoak zirela onar-

²³ 1978ko Espainiako Konstituzioa.

tzen zituen eta Estatuko gainerako lurraldeei ez zegokien estatusa zutela errespetatzen zuen. Hala ere, foru-erregimena aplikatzeko modukoa izateko, Konstituzioak “eguneratzea” bere barnean egitea galdatzen du, hierarkikoki azken hau gorago kokatzen dela adieraziz inplizituki; RAZQUÍN LIZARRAGAREN hitzetan, “foru-erregimenaren muga batasun konstituzionala da”²⁴. Autonomia-estatutuen barnean eginez, 30eko hamarkadako ikuspuntua jasotzen da, hau da, autonomia zela foruak eguneratzeko bidea. Berebiziko garrantzia du Xedapen Gehigarriak. Izan ere, gure inguruan eskualdeen autonomia onartzen duten Estatuetako konstituzioek (italiarrak, portugaldarrak edota alemaniarrek) testuinguru historikoari baino ez diote erreferentzia egiten, autonomia zuzenean konstituzioetatik eratortzen delarik. Espainiakoa, aldiz, autonomia Konstituzioaren aurreko egoera zehatz baten jarraipena dela aitortzen da, nahiz eta foru-lurraldeetan baino ez izan eta gainerako lurraldeei xedapen hau ezin aplikatu, 76/1988 KAE, 1988ko apirilaren 26koak adierazi gisa (“[Xedapenak] Monarkia hispanikoaren lurralde batzuei egiten die erreferentzia, zeinek [...] euren berezko foruak mantendu zituzten. [...] Kasu hori Probintzia Baskongadetako bakoitzarena eta Nafarroarena da”)²⁵.

Lehenengo Xedapen Gehigarria, halaber, Xedapen Indargabetzailearen bigarren puntuarekin lotu behar da:

“2. Nolabaiteko indarra izan lezakeen neurrian, behin betiko indargabeturik geratzen da 1839ko urriaren 25eko Legea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziei dagokienez.

²⁴ RAZQUÍN LIZARRAGA, J.A., “La doctrina constitucional sobre los derechos históricos de los territorios forales: de la negación al reconocimiento”. *Revista Vasca de Administración Pública*. 1991ko urtarrila-apirila, 124 zk., 270. or. <https://www.cepc.gob.es/sites/default/files/2021-12/237331991124263.pdf> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 17an).

²⁵ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1988ko apirilaren 26koa, 76/1988 zk., 2. ZO.

Era berean, behin betiko indargabeturik geratzen da 1876ko uztailaren 21eko Legea²⁶.

Esanguratsuak dira bi ñabardura. Batetik, “nolabaiteko indarra izan lezakeen neurrian” esatean, xedapenaren balioa batez ere simbolikoa dela adierazten da. PEÑARANDA RAMOSEN ustez,

“Argi dagoela dirudi, beraz, indargabetzearekin ez zela inolako eragin juridiko zehatzik lortu nahi, baizik eta eusko abertzaleak plano erabat afektiboan gogobetetzea. Konstituzio-eztabaidaren beste protagonista batek handik gutxira ondorio hau berretsi zuen, Lehenengo Xedapen Gehigarriarekiko ere gogoeta hauek luzatuz, bi-biekin lortu nahi zena euskal herriarekiko ulermen-keinu historiko sinple bat, Konstituzioaren urguritasuna eskubide historikoekiko edo, nahiago bada, errespetu-adierazpen sakratu edo ia erlijioso bat zela adieraztean²⁷.”

Bestetik, xedapena ez zaiela foru-lurralde guztiei aplikatzen, Nafarroa ez delako aipatzen. Izan ere, arestian azaldu gisa, Nafarroak 1839ko Legearen ondorioak onartu eta 1841ko Legea adostu zuen. Beraz, indarrean zeukan foru-erregimena xedapenak indargabetzen duen arautik zeratorrenez zuzenean, kalterakotzat jo zen xedapenaren aplikazio-eremua Nafarroara hedatzea.

Dena dela, argi dago Konstituzioak eskubide historikoak aitortzeak badaukala esanahi juridikorik, foru-lurraldeen berezitasuna onartzen baitu. Berezitasun horiek eskumenetan gauzatzen dira; izan ere, RAZQUÍN LIZARRAGAK adierazi legez,

²⁶ 1978ko Espainiako Konstituzioa.

²⁷ PEÑARANDA RAMOS, J. L., “Disposición Derogatoria. Constitución y ordenamiento preconstitucional”. Ondoko lanean: ALBALADEJO GARCÍA, M. (koord.), *Comentarios a la Constitución Española*. XII. liburukia, 159. art. aurrera. Madril: Edersa, 2006, 780-781. orr. <https://app-vlex-com.proxy-oceano.deusto.es/vid/339755> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 18an).

“Foru-erregimenak plus kompetentzial bat dakar, Estatuak zehaztutako oinarrien legeriaren edo oinarritzko legeriaren muga negatiboa gaindi dezakeena EKren 150.2 artikuluan diseinatutako zentzuko batasun konstituzionalaren mugara arte, kontzeptu tradizional hori osatzen duten beste konstituzio-mugei kalte egin gabe”²⁸.

HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓN haratago doa, eskumenak eskuratzeko titulu bat baino are gehiago direla defendatuz: “Eskubide Historikoen aitortpena gorputz politiko ezberdin, berezi eta suntsiezin batzuen aitortpenaren baliokidea da, zeinen izatetik erakunde- eta eskumen-hartzeko bat eratorriko den”²⁹.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari (EHAE) dagokionez, eskumen gehigarri hauek 16. eta 17. artikuluetan gauzatzen dira. Artikulu haue-
tan, Euskal Autonomia Erkidegoari hezkuntza- eta polizia-eskumenak dagozkiola jasotzen da, hurrenez hurren, Espainiako Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren kariaz. Halaber, nahiz eta xedapen hau berariaz ez aipatu, 41. artikulua Estatuaren eta EAEn arteko tributu-harremanak foru-sistema tradizionalaren bidez, hau da, Ekonomia Itunaren bidez gauzatuko direla dio, LXGaren edukiaz baliatuz³⁰.

Nafarroako Foru Hobekuntzaren Legearen (FHL) kasuan, bestaldetik, azpimarratu beharra dago, lehenik eta behin, ez dela autonomia-estatutu bat eta Nafarroa bera ez dela autonomia-erkidego, foru-erkidego baizik. Beraz, bere eskumen-iturria ez da EKren VIII. Titulua, ezpada, Foru Hobekuntzaren Legeak 2. artikuluan zehaztu bezala, 1839ko urriaren 25eko Legea eta 1841ko Hitzartutako Legea, Foru Hobekuntzaren Legea bera

²⁸ RAZQUÍN LIZARRAGA, J. A., “La doctrina constitucional...”, *op. cit.*, 271. or.

²⁹ HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M., *Derechos Históricos y Constitución*. Madril: Taurus, 1998, 104. or.

³⁰ Abenduaren 13ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena. EAOaren 306. zk., 1979ko abenduaren 22koa, 29357-29363 or.

eta EKren Lehenengo Xedapen Gehigarria. Artikulu berak, lehenago iradoki den gisa, “batasun konstituzionala” jartzen du mugatzat bigarren puntuan. Hori dela-eta, Foru Hobekuntzaren Legeak 49. eta 50.1 artikuluetan “bere foru-erregimenaren ondorioz” hainbat eskumen Nafarroarentzat gordetzen ditu. Hala ulertzen da, esate baterako, 49. artikulua Nafarroari trafikoaren arloan eskumenak esleitzea, nahiz eta EKren 149. artikulua eskumen eskusiboa Estatuari dagokiola zehaztu³¹.

Biek ala biek, gainera, bakoitzaren LXGan adierazten dute Estatutuan edo Foru Hobekuntzan, kasuan kasu, eraturako erregimenak onartzeak ez duela esan nahi uko egiten zaielarik izan ditzaketen gainerako eskubide historikoei, eta eskubideok erregimenotan barnebil litezkeela ordenamendu juridikoak jasotakoarekin bat etorririk.

Honekin lotuta, GARCÍA PELAYOK ohartarazi zuen eskubide historikoak aitortzearen formulak Konstituzioaz besteko edukia balute bezala interpretatzeko bidea zabaltzen ziela ideologia jakin batzuei, azken honen maila berean jarrita. Intepretazio honekin, foru-lurraldeak Espainiako Estatuan sartzeko ezinbestekoa litzateke eskubideon onarpena, bere ustez biziki arriskutsua litzatekeena³². CORCUERA ATIENZA ere antzematen du eskubide historikoen aldarrikapenak ez zuela helburu eduki juridikoak berrezartzea, baizik eta oinarri ideologiko-politiko bat ezartzea euskal autonomia-estatutu mamitsua onartzeko³³. Beste autore batzuek, ordea,

³¹ Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa. EAOaren 195. zk., 1982ko abuztuaren 16koa, 22054–22060 orr.

³² GARCÍA PELAYO, M., “El proyecto constitucional y los derechos históricos”, *El País*, 1978ko irailaren 24, 12–13. orr., hurrengo lanetik hartua: LARRAZABAL BASÁÑEZ, S., *Contribución a una Teoría de los Derechos Históricos Vascos*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1996, 478. or.

³³ CORCUERA ATIENZA, J., “La constitucionalización de los derechos históricos. Fueros y autonomía”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 1984, 11. zk., 38. or., hurrengo lanetik hartua: LARRAZABAL BASÁÑEZ, S., *Contribución...*, *op. cit.*, 480. or.

eskubide historikoei XVIII. eta XIX. mendekoen pareko kontzepzioa ematen diote: LUCAS VERDÚren hitzetan, EKren LXGak zein EHAEaren eta NFHaren Xedapen Gehigarriek foru-lurraldeen “Konstituzio substantziala” eratzen dute³⁴. PORRES AZKONAK, bere aldetik, EHAEak forutasunaren berme konstituzionalaren papera jokatzeko duela esaten du, Estatuari forutasuna aldebakarrez eraldatzea eragozten baitio³⁵. Azkenik, LOJENDIO IRUREREN ustez, eskubide historikoak orain dela bi mende eskas bere burua gobernatu duten lurraldeok osatutako “konstituzio edo sistema juridiko-politikoaren” ondoriozko askatasun eta autogobernu-eskubideak dira³⁶.

III. ESKUBIDE HISTORIKOEN EGIKARITZEA ETA JURISPRUDENTZIA ALDI AUTONOMIKOAN

EAE eta Nafarroa eskumenak bereganatzen joan ziren Estatuak transferentziak egin ahala, eta euren autogobernua gorpuztuz joan ziren (dena dela, aipagarria da 45 urteren ondoren, lerro hauek idazterako unean, oraindik ere 25³⁷ eskumen daudela EAERI transferitu barik, Nafarroaren

³⁴ LUCAS VERDÚ, P., “Los Derechos Históricos como Constitución sustancial del Pueblo Vasco”. *II Euskal Kongresu Mundiala. Euskal eskubide historikoei buruzko kongresua*, Herri Ardularitza Euskal Erakundea, Oñati, 1988, 304. eta hurrengo orr., hurrengo lanetik hartua: LARRAZABAL BASAÑEZ, S., *Contribución...*, *op. cit.*, 480. or.

³⁵ PORRES AZKONA, J., *Política y Derecho*. Los derechos históricos vascos. Oñati: Herri Ardularitza Euskal Erakundea, 1992, 143. or.

³⁶ LOJENDIO IRURE, I. M., “La Disposición Adicional Primera y los derechos históricos”. *Revista Vasca de Administración Pública*. 1985, 12. zk., 112. or.

³⁷ MARTÍNEZ, M., “Euskadi asume las competencias de permisos de trabajo para extranjeros y meteorología”. *El Economista*. 2025eko martxoaren 6a. <https://www.economista.es/economia/noticias/13253440/03/25/euskadi-asume-las-competencias-de-permisos-de-trabajo-para-extranjeros-y-meteorologia.html> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 19an).

kasuan kopurua 8koa³⁸ delarik). EA Eren kasuan, gainera, bere baitan foru-lurralde bat baino gehiagoz eratuta dagoenez, foru-lurraldeen edo Lurralde Historikoen eta Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketa egin zen, azaroaren 25eko Autonomia-Elkarte osorako erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremani buruzko 27/1983 Legearen (LHL, Lurralde Historikoen Legea izenez ezagunagoa) bidez. Izan ere, hiru lurraldeen artean erakunde erkidea eratzean, lurraldeek forutasuna Estatuarekiko ez ezik autonomia-erkidegoarekiko ere egikaritzen dute.

LHLan garbi ikusten da foru-lurraldeei esleitzen zaizkien eskumenak erregimen orokorreko probintzietatik askoz haratago doazela. Erakuslerik argiena lurralde bakoitzaren Foru Ogasunak dira, Ekonomia Itunaren bidez finantza-autonomia oso handia eskeintzen dietenak. Eskumen hauek eskubide historikoetan dute oinarri, itunok 1878an baitute jatorria, foruen abolizioaren ostean Espainiako Gobernuak lurralde historikootan zergak biltzeko modua berori izatea ezarri baitzen. Bistakoa denez, probintziek ez dute halako eskumenik. Gainera, foru-lurraldeek, aldundiak ez ezik, parlamentu propioak ere badituzte: Historian zehar izan dituzten Batzar Orokorrak. Batzarrotan onarturiko arau fiskalak, halaber, lege-lerruna izan ez arren, KAren aurrean baino ez dira aurkaragarri, Konstituzio Auzitegiari eta Botere Judizialari buruzko lege organikoen eraldaketari buruzko 1/2010 Lege Organikoak, otsailaren 19koak, ezarri legez, zeinak administrazioarekiko auzien ordenatik at utzi zituen.

Bestalde, EAE foru-lurraldeez osatuta egonik, zalantza piztu liteke eskubide historikoen titulartasunaren inguruan: lurralde historikoei baino

³⁸ ENCINAS, J. eta ORTEGA, A., “Navarra acuerda el traspaso de más competencias 20 años después”. *Noticias de Gipuzkoa*. 2021eko apirilaren 21a. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/politica/2021/04/21/navarra-acuerda-traspaso-competencias-20-3700080.html> (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 19an).

ez dagozkie, ala autonomia-erkidegoari eskualdatu zaizkio autonomia egikaritze aldera? 11/1984 KAEan aurki daiteke erantzuna:

“Lurralde historikoen eskumenen iturriak, alde batetik, eta Autonomia Erkidegoenenak, bestetik, ezberdinak behar dute izan. Foru-lurraldeak Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren markoan errespetatuak, babestuak eta eguneratu beharrekoak diren ‘eskubide historikoen’ titularrak dira, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak xedatutakoaren arabera; hortaz, lurralde horien eskumenen mugatzeak ‘eskubide’ horiek zeintzuk diren inguruko ikerketa historikoa galda dezake. Autonomia Erkidegoen eskumenak hauek, Konstituzioak ezarritako markoan, bakoitzaren Autonomia Estatutuen bidez bereganatutakoak direlarik, Konstituziora, Autonomia Estatutueta eta aurrekoen markoan emandako eskumenak mugatzen dituzten beste balizko arauetara jo beharko da, hortaz, Erkidego bakoitzari dagozkionak zeintzuk diren ezagutzeko”³⁹.

HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓN ez dator bat KAren interpretazioarekin:

“Eskubide historikoak, Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian aurrekotzat onartuak, Estatutuak eta beste ondorengo arauak eguneratzen dituzte eta haietan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari Eskubide horien eguneratze gisa eskumenak onartzen zaizkien eran, EAE Foru Lurralde berri gisa eratzen da, Eskubide Historiko propioen titular”⁴⁰.

Egile berak dioen bezala, EHAEaren aurretik hiru lurraldeon eskubide historikoak ezberdinak izaki, logikoagoa litzateke Estatutuak lurralde bakoitzarenak fusionatu dituela eta, beraz, eskubide historikoen titularrak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa zein EAE direla.

Sor litekeen hurrengo ezbaia eskubide historikoek gaur egun izan dezaketan norainokoa da. Izan ere, EKak ez ditu definitzen zeintzuk di-

³⁹ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1984ko otsailaren 2koa, 11/1984 zk., 4. ZO.

⁴⁰ HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. *Derechos Históricos y Constitución. op. cit.*, 143. or.

ren foru-lurraldeei eskubide historikoen kariaz dagozkien eskumenak, LHLak eta Foru Hobekuntzaren Legeak zerrendatu behar izan dituztelarik. Pentsa liteke, EKren LXGaren eta Xedapen Indargabetzailearen interpretazio zabal bat eginez eta EHAEaren zein FHLaren xedapen gehigarriekin lotuz, XIX. mendean foruzaleek eta XX.ean abertzaleek zeuzkaten tesiak bete zitezkeela eta foru-lurraldeei burujabetza aitortzen zitzaizela. Alabaina, Konstituzio Auzitegiak, bere apirilaren 26ko 76/1988 Epaian, halakorik ez dagoela ematen du aditzera:

“[Eskubide historikoak] eduki aldakorreko foru-erregimenetan datzate, Antzinako Erregimeneko Monarkiaren berezitasunak (foru-pasea, aduana-erregimena, kinta-salbuespena, antolamendu judizial propioa) ez direlarik, logikoa den moduan, konstituzio-erregimenean mantendu zirenekin alderagarriak”⁴¹.

Ondorioz, eskubide historikoen kontzeptua era murriztaileagoan interpretatu da, foru-lurraldeek ezin izango lituzketelarik EKren baitan Historian zehar edukitako eskumen guztiak berreskuratu. Epaia berean, KAK, foru-lurraldeen eraentza eta finantza-arloan duten autonomia kontuan hartuta era harrigarrian, eskubide historikoak eskumen-iturri direla ere ukatzen du:

“EKren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren gogoeta osoki eginda, konstituzio-aginduekin eta Konstituzioak aurreikusten duen lurralde-egitura berriarekin lotuta, ondorioztatzen da Konstituzioak egiten duen foru-lurraldeen eskubide historikoen bermea edo, literalki, babesa eta errespetua ezin dela legezki historikotzat jo daitekeen edozein eskumenen bermetzat hartu; Auzitegi honek bere 123/1984 KAE, abenduaren 18koan, 3. zuzenbide-oinarrian adierazi zuen bezala, eskubide historikoen ideia ezin daiteke eskumen zehatzak eman ditzakeen titulu autonomotzat hartu. Konstituzioak babesten eta errespetatzen duena ez da historikoki

⁴¹ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1988ko apirilaren 26koa, 76/1988 zk., 2. ZO.

egikaritutako botere, ahalmen edo pribilegioen batura bat, lurralde-korporazioen eskubide subjektibo eran, Historiak babestutako titulartasun- edo egikaritze-eskumenetan eratoritzeko modukoak. EKren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren bigarren paragrafoan dioenez, bermatzen dena foru-erregimen baten existentzia da, hau da, lurralde historiko bakoitzaren lurralde-autogobernuko erregimen propio batena, hots, bere forutasunarena, baina ez historikoki bereizgarri izan dituzten eskubide guztiena. Konstituzio-bermeak esan nahi du forutasunaren edukiak antolamendu-ezaugarrietan zein bere botere-eremu propioan foru-erregimen tradizional horren irudi identifikagarria mantendu behar duela⁴².

Beraz, forutasuna erregimen berezian datzala aitortzen du Konstituzionalak, baina inola ere ez Historian zehar eduki duen esanahiarekin. Gainera, geroago, konstituzio-berme horren edukia zehazten du:

“Foru-berme horren edukia, Autonomia Estatutuaren xedapenen aplikaziorako eta interpretaziorako beharrezko erreferentzia-puntutzat agertzen dena, bere 37. artikuluan dator zehaztuta. Eta hau inolaz ere “azalpen hutsekotzat” edo adibidezkotzat jo ezin daitekeen eran burutzen da, errekurtsogileek argudiatu gisa. Aitzitik, lurralde historikoei dagozkien bi eskumen-mota zehazten ditu:

a) Zuzenean Estatututik eratorritako eskumen eskusiboak: 3. atalaren a)-tik e)-ra arteko azpialetan berariaz zerrendatutakoetan eta 1. azpialetaren lehenengo tartekian, “Estatutu honetan zehaztutako guztiak”, barnebildutakoetan datzate.

b) Erkidegoaren botereen jardun zehatzaren bidez zehaztu beharreko eta “transferituak izan daitezkeen” eskumen eskusiboak, Estatutuak nork transferitu zehazten ez duelarik, zein “Eusko Legebiltzarrak adierazitako arloen garapen normatiboa eta betearazpena, euren lurralde barruan” (37.4 art.) barnebiltzen dituztelarik.

⁴² KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1988ko apirilaren 26koa, 76/1988 zk., 4. ZO.

Hala, preskripzio estatutarioagatik, foru-erregimenaren nukleo eztabaidezin bat —eta gutxienekoa, berau gabe forutasunaren irudia bera desagertuko litzatekeelarik— eta, gainera, erregimen horren hedapen-eremu bat, beste organo batzuen jardunaren araberakoa, agertzen dira. Forutasunaren nukleoari eskumen gehigarriak transferitzeko edo esleitzeko aukera ikus daiteke, beraz, eskumenok Autonomia Estatututik zein Konstituzioaren 150.1 eta 2 artikuluan aurreikusitako prozeduretatik eratorri daitezkeelarik”⁴³.

RAZQUÍN LIZARRAGAK horrela aztertzen du aipatu berri den foru-berme horren edukia:

“Eskumen «foralak» legegile arruntarentzat, estatala edo autonomikoa, ezezagunak ezin izan daitezkeen eskumenak dira, bere berme instituzionala eratzen duen forutasunaren nukleo eztabaidezinaren barruan sartzeagatik. Aitzitik, gutxieneko nukleo identifikatzaile horretatik kanpo esleitutako eskumenak aldakorrak dira, Legegilea baita momentu oro Lurralde Historikoei zein eskumen eslel dakizkiekeen erabaki dezakeena. Ondorioz, gehitu, aldatu edo ezabatu daitezkeen eskumenak dira, horrek forutasunaren nukleoari eragitea esan nahi ez duelarik. Eta hala Arbitraje Batzordeak erabaki du Eusko Legebiltzarrak Lege bidez baino ezin dituela eskumen horiek (forutasunaren nukleoari ez datzekiote-nak) murriztu, halaber LHLaren aurretiazko edo une bereko aldaketaren bidez eta ez era implizituan egin behar delarik”⁴⁴.

⁴³ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1988ko apirilaren 26koa, 76/1988 zk., 6. ZO.

⁴⁴ RAZQUÍN LIZARRAGA, M. M., “La organización interna de los territorios forales”. *Documentación administrativa. Nueva época*. 2016ko urtarrila/abendua, 3. zk., 73. or. https://app-vlex-com.proxy-oceano.deusto.es/search/jurisdiction:ES+content_type:4+aplicaley:79729668/*/p2/vid/675609069 (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 20an).

FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ bat dator KAREN iritziarekin: LXGaren edukia forutasunaren erakunde-bermean datza⁴⁵. Bere tesia ondo azaltzen du LARRAZABAL BASÁÑEZek:

“Errespetua ez dagokio eskubide-multzo bati, sistema bati baizik: foru-erregimena. Bermatu behar dena forutasunaren irudi zehatz bat da, funtsezko hiru osagairi eragiten diena: antolamendu zehatz bat (Batzar Orokorrak eta Foru Aldundiak), eskumen-eduki jakin bat (erreferetzia Konstituzioa idazteko unean Arabak zuen erregimena zelarrik) eta erakunde mugakideekiko harreman-sistema bat, goitik Estatua eta Autonomia Erkidegoa eta behetik, Udalerria”⁴⁶.

PORRES AZKONAK, alabaina, forutasunaren erakunde-bermearen teoriari ahultasun bat aurkitu dio: forutasunaren kontzientzia soziala lausotu heinean, bere edukia botere legegile arruntaren menpe geratzen da, eskubide historikoak deuseztuz⁴⁷.

Zenbait urte beranduago ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako forupoliziak Ertzaintzan batu zirenean, kolokan jarri zen hala egiteak ez ote zuen foru-erregimena hausten. Izan ere, eskumen hauek EKren LXGan zuten jatorria. Konstituzio Auzitegiak, ordea, ez zuen halakorik ikusi, marko autonomikoan foru-erregimenaren eguneratzearen barneko jarduntzat joz, bere 159/1993 Epaian, maiatzaren 6koan, dioenagatik:

“Xedapen horrek ([EHAren] 37.2 artikulua [“Estatutu honetan xedatutakoak ez du ekarriko lurralde historiko bakoitzak bereak dituen foru-araubidearen izaeraren zein bakoitzak bereziak dituen araubidearen eskumenen aldaketarik”]) ez du esan nahi Estatutuak ez dakarre-

⁴⁵ FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, T. R., *Los derechos históricos de los Territorios Forales. Bases constitucionales y estatutarias de la Administración Foral Vasca*. Madril: Civitas/Centro de Estudios Constitucionales, 1985, 45-112. orr.

⁴⁶ LARRAZABAL BASÁÑEZ, S., *Contribución...*, *op. cit.*, 484. or.

⁴⁷ PORRES AZKONA, J., *Política y Derecho...*, *op. cit.*, 119. or.

nik historikoki zehaztutako foru-erregimenaren eta dagokion eskubide historikoen multzo zehaztugabearen inolako mugarik. Hala balitz, Estatutuak ezin izango luke, noski, inolako eguneratzerik burutu, EHAE 37.2 artikulua, beraz, berme- eta interpretazio-klausula bat delarik, foru-erregimenak bere estatutu-definizioan, errespetu eta babesarekiko, lehenasunezko tokian jartzen dituena, EAeko erakunde erkideekiko zein Estatuaren botere zentralakiko; Estatutuak berak zehazten dituen foru-erregimenak euren funtsezko edukiarekiko, ukiezina botere autonomiko edo estatalentzako⁴⁸.

Hurrengo urteetan, jurisprudentzia eskubide historikoen irismena definituz joan zen, prozesu autonomikoaren garapenaren markoan. Izan ere, zenbait erkidegok eskubide historikoen kontzeptua erabili nahi izan zuten eskumenak bereganatzeko argudiotzat, eta KAK xedapen horien konstituziotasunari buruzko azterketak egin behar izan zituen. Hala, nahiz eta ez zituzten foru-lurraldeak ukitzen, prozesu ugaritan foru-erregimena eztabaidatua izan zen. Adibide garbia da 88/1993 KAE, martxoaren 12koa, zeinean Espainiako Gobernuak konstituzio-kontrakotasuneko helegitea jarri zuen Aragoiko lege baten aurka ustez EK 149.1.8 artikularen arabera Estatuak legegintza zibilean duen eskumena urratzeagatik. Eskubide historikoak jorratzen dituen epaiaren atala hurrengoa da:

“EKren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren zentzua ez da forutasun zibilaren konstituzio-erregimena bermatzea edo ordenatzea (149.1.8 artikuluan eta EKren Bigarren Xedapen Gehigarrian baino ez aurreikusia), baizik eta, aipatutako Xedapenak jarritako mugekin, iraganean Nazioaren lurraldeko zenbait zati jakin batzuk nabarmendu zituzten berezitasun juridiko-publiko batzuk Konstituzio osteko ordenamenduan integratzea eta eguneratzea ahalbidetzea⁴⁹.”

⁴⁸ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1993ko maiatzaren 6koa, 159/1993 zk., 6. ZO.

⁴⁹ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1993ko martxoaren 12koa, 88/1993 zk., 1. ZO.

Beste adibide bat aurki dezakegu 214/1989 KAEan, abenduaren 21koa. Galiziak eta Kataluniak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) artikulua batzuk aurkaratu zituen, erkidegoen eskumenak inbaditzeagatik Konstituzioaren aurkakoak zirelakoan. Argudioetako bat foru-lurraldeetan manu horiek ez aplikatzeak (TAOLaren bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrien kariaz) artikulua horiek oinarritzakoak ez zirela esan nahi zuela izan zen. Honela ezetsi zuen KAK argudioa:

“Errekurtsogileek erabilitako argudioa ezin da onartua izan, zeren eta, nahiz eta salbuespenezko erregimen bat aurreikusten duten arauak oinarri-izaerarik izan ezin dezaketela azpimarratu nahi duten, [...] kontuan hartu behar da salbuespen hori, kasu honetan, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian oinarriturik dagoela. [...] TAOLak, 2. xedapen gehigarrian, beraz, konstituzio-agindua aitza hartu baino ez du egin, antolamendu-arloan foru-erregimen horren berezitasuna gordez, Konstituzioarekin berarekin guztiz bateragarriak diren termino eta irismenean. Horregatik, errekurtsogileek ezin dute eskatu Lurralde Historikoei aitortutako eskubideak Kataluniako eta Galiziako Erkidegoei hedagarriak izatea toki-erregimenaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumen berberak bereganatu izate hutsagatik, Lurralde Historikoei aitortutako izaera partikular edo salbuespenezkoa dela-eta”⁵⁰.

Epairen garrantzia dela-eta, AURTENECHÉ GOIRIENAK “KAK foru-lurraldeen eskubide historiko eguneratuek oinarri-izaerako xedapen estatutalen aplikagarritasuna mugatzen dutela argi eta garbi onartzen duen lehenengo epaia”⁵¹ dela dio. Azken urteetan, gainera, KA zenbait aldiz

⁵⁰ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1989ko abenduaren 21ekoa, 214/1989 zk., 26. ZO.

⁵¹ AURTENECHÉ GOIRIENA, J. L., “La jurisprudencia del Tribunal Constitucional sobre los Derechos Históricos de los Territorios Forales: aspectos generales y proyección sobre las competencias estatutarias de raíz histórica”. *Iura Vasconiae*. 2019, 16. zk., 272. or. <https://>

mintzatu da eskubide historikoen norainokoaz eskumen-iturri gisa. Aipatu berri dugun KAre iritziaren ildotik, esate baterako, auzitegi berak honakoa zioen 65/2024 Epaian:

“[Nafarroaren] eskumena kontratazio-arloan bere foru-erregimenetik eratorritako eskumen esklusibo bat da, kontuan hartu behar delarik, hortaz, kontratazio publikoari buruzko oinarrizko legeriaren xedapen guztiek ez dutela Nafarroako Foru Erkidegoak eskumena egikaritzearekiko eragin mugatzailea luzatuko, baizik eta arlo horretan Estatuko oinarrizko legeriaren funtsezko printzipioak gorpuzten dutenek baino ez”⁵².

173/2014 KAEan, urriaren 23koa, Nafarroaren kasuan eskumen historiko batek halakotzat hartzeko bete behar dituen ezaugarriak zehaztu zituen:

“Nafarroak eskumen legegile bat izan dezan [...], Konstituzioaren lehengo xedapen gehigarriak babestutako eskubide historiko batean oinarrituta, hiru baldintza bete beharko lirateke: eskumen hori historikoki foru-erregimen nafarraren zati izatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren bidez bereganatu izatea eta bere bizirautea Konstituzioarekin bateragarri izatea”⁵³.

Halaber, garrantzizkoa da ere 118/2016 KAE, ekainaren 23koa. Bertan, 1/2010 Lege Organikoak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-erakundeei “foru-autonomiaren defentsarako gatazka” erabiltzeko beta ematen diena eskubide historikoen babeserako, balizko esku-

dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7172093 (Azken kontsulta 2025eko apirilaren 20an).

⁵² KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 2024ko apirilaren 11koa, 65/2024 zk., ECLI:ES:TC:2024:65, 4. ZO.

⁵³ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 2014ko urriaren 23koa, 173/2014 zk., ECLI:ES:TC:2014:173, 3. ZO.

men-inbasioa dakarten arauak KAren aurrean aurkaratuz. Probintziekiko pribilegio bat zelakoan errekurritu zen xedapen hori, baina KAK ezetsi egin zuen, hurrengoa argudiatuz:

“Euskal lurralde historikoek erregimen erkideko probintzienarekiko desberdina eta zabalagoa den eskumen-esparru batean gauzaten den berezitasun bat dute, konstituzional eta estatutarioki bermatutako foru-erregimenetik datorrena [...]. Berezitasun horren babeserako sortu da foru-autonomiaren defentsarako gatazka, “legegile estatalaren balizko erasoan aurrean bide konstituzionaletik bere foru-erregimena defendatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoei errekonozimendu-gabeziaren ondoriozko euskal forutasunaren konstituzio-babesaren defizita” ebazteko modu bezala”⁵⁴.

Hala ere, KAK, 2382/2016 Epaian, foru-erakundeei lege-lerruneko arauak onartzeko eskumenik ez dutela dio (euren kabuz autonomia-erkidego izan ezean):

“Begi-bistakoa da EHAEak ez dituela Batzar Orokorrak ganbera legegiletzat eratzen eta, era berean, argia da ezin dituztela lege-lerruneko arauak egin. Konstituzio-sistema espainiarrean, [...] Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan, Eusko Legebiltzarra baino ez da botere legegilea egikaritzen duena [...]. Eta, ildo honetatik, [LHLak] ezartzen du lege-lerruneko arauak emateko eskumena eksklusiboki Legebiltzarrari dagokiola”⁵⁵.

Azken baieztapen hau gorabehera, argi geratzen da foru-lurraldeei Estatuko gainerako lurraldeei edo probintziei baino eskumen gehiago dagozkiela Ekonomia Itunaren esparrutik haratago, foru-lurraldeok euren

⁵⁴ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 2016ko ekainaren 23koa, 118/2016 zk., ECLI:ES:TC:2016:118, 4. ZO.

⁵⁵ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 2016ko urriaren 28koa, 2328/2016 zk., ECLI:ES:TS:2016:4674, 1. ZO.

kabuz autonomia-erkidegoan eratu zein ez, EKren VIII. Tituluaren kariaz autonomia-erkidegoek bereganatu ditzaketen gainerako eskumenei kalte egin gabe.

IV. ESKUBIDE HISTORIKOEN EUSKAL BIZIKIDETZA POLITIKOAN JOKA DEZAKETEN PAPERARI BURUZKO HAUSNARKETA

Azaldu denez, foru-erregimenak eta horietatik eratorritako eskubide historikoak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan ondo errotutako kontzeptu juridikoak dira, euren autogobernuaren oinarri. Halaber, euren egitate nazionalaren edo, nahiago bada, gutxienez, bereziaren funtsezko atal dira. Hori dela-eta, eta orduko egoera soziopolitiko kontuan hartuta, itxaropenez hartu zen EKren Lehenengo Xedapen Gehigarria, uste baitzen hiritargoak galdatzen zuen autogobernu-maila zabalari bide emango zion tresna juridikoa izango zela.

Izan ere, aintzat hartu beharrekoa da ildo honetan HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓNEN iritzia eskubide historikoek betetzen duten funtzioaren inguruan:

“Konstituzioak aitortutako eta babestutako Eskubide Historikoek, beraz, nazioaniztasun espainiarra adieraziko lukete. Nazioaniztasun heterogeneoa eta, hala izanik, asimetrikoa Espainiako gainerako lurraldeekiko. Espainian Eskubide Historikoen titularrekiko orain dela mende bat Europa erdialdean zentralismo austriarraren aurka entitate historiko-politikoekiko baieztatzen zena errepika liteke [...]. Horrexegatik, Nafarroako Foru Erkidegoa ez da Autonomia Erkidego bat, ezta Bizkaiko Lurralde Historikoa probintzia bat [...]. Frogatzeko argudio juridikoak, euren egitura eta eskumenei erreparatuz, ugariak eta boteretsuak dira, baina egitateen arau-indarra, are eztabaidaezinagoa. Han berezko nortasunaren

kontzientzia zabal egonkorra eta errotua existitzen da, tartean hizkuntzan, zuzenbidean, tradizio politiko eta instituzionalean oinarritua, eta hala sentitze hutsa nahikoa da ezberdina izateko. Egitate berezi batzuen historikotasunak, denboran zehar hedatuak eta afektiboki kargatuak, Eskubide Historikoak funtsatzen ditu⁵⁶.

Alabaina, XVIII. mendetik aurrera Espainiako botereek foru-erregimenari buruzko interpretazio murriztaileari jarraipena emanez (era leunagoan bada ere), eskubide historikoon edukia mugatzen joan da Estatuko legeria eta KAREN jurisprudentzia, EHAEaren eta FHLaren izpirituen aurka. CLAVERO SALVADORrek gaitzetsi egina du:

“Konstituzioa jada ez da abertzaletasun espainiarraren presuntzio historiografikoekin bakarrik irakurri behar, Nazio bakar baten aurrezistentziarekin, foru-abertzaletasunaren berezkoekin batera baizik, Nazio ugariaren koexistentziaren postulatuarekin [...] Konstituzionalismo espainiar askok euskal publizismoarekiko ezjakintasun larriegia du⁵⁷.

Hain zuzen, izpiritu hori “konstituzio-funtzio” bezala definitzen du Eusko Jaurlaritzak, eta bere galera salatzen du Gernikako Estatutua ez betetzearen ondorio kaltegarriari buruzko txostenean:

“[Estatuko lurralde-ereduaren] hondatze hori proiektatzen da, Euskal Herriaren identitate politiko eta juridikoaren aitortzearen ez ezik, berezitasun horretatik sortu eta Estatutuan jaso ziren ahalmen eta eskumenen multzoan, gure autogobernua hutsaldu nahian. Horrek guztiak Estatutu aldatua ekarri digu, babesik gabe hondoratu. [...] Izan ere, toki hori ez dagokio, ez izaera juridiko konstituzionalagatik, ez onartzeko

⁵⁶ HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M., “Los Derechos Históricos y el principio pactio”. *Ius Fvgit.* 2007–2008, 15. zk., 40. or.

⁵⁷ CLAVERO SALVADOR, B., “Derecho Histórico (vasco) y Derecho Constitucional (español)”. Ondoko lanean: HERRERO RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. eta LLUCH MARTÍN, E. (zuz.), *Foralismo, Derechos históricos y Democracia*, Bilbo: Fundación BBV, 1998, 282. or.

prozedura bereziagatik, ez herritarren behar beharrezko berrespenagatik, ez Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriarekin duen loturagatik”⁵⁸.

Halaber, berrogei urte baino gehiagoren ostean EHAEan eta FHLan jasotako eskumenak oraindik ere EAERI eta Nafarroari guztiz transferitu gabe egoteak hiritargoak testu horiekiko (eta EKrekiko) mesfidantza handitu du; batez ere, EAEko lurraldeetan.

Mesfidantza horrek eskubide historikoetan oinarritutako Estatuaren eta foru-lurraldeen arteko harreman berria eskatzen du, sentsibilitate politiko guztiak asebeteko dituena. Izan ere, eskubide historikoez eta LXGak, lan honetan adierazi den bezala, Estatuaren egitura asimetrikoa ahalbidetzen dute, KAren jurisprudentziak berak aitortu duen bezala. Bi abantaila nagusi izango lituzke bide honek: batetik, gizartearen hein handi batek errespetatutako figura erabiltzeak beste aukerek baino aurkakotasun txikiagoa izango luke, adostasuna erraztuz; bestetik, jada ordenamenduak jasota egonik, ez litzateke beharrezkoa izango Konstituzioa eraldatzea, 168. artikuluan aurreikusitako prozedura luze eta konplexua saihestuz.

Alabaina, bide honek desiragarriak diren emaitzak emateko, behar-beharrezkoa litzateke Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia-lerroan 180 graduko bira bat. Izan ere, foru-erakundeen eta EAEko erakunde erki-deek azken urteotan eman dituzten ebazpen eta arau ugarien deuseztatpenak (esate baterako, funtzio publikoan lan egiteko euskararen eskakizuna gehiegizkotzat jotzeagatikoak) tirabirak eta haserrea piztu ditu gizartearen zati ez txikien baitan.

⁵⁸ EUSKO JAURLARITZA. *Gernikako Estatutua ez betetzearen ondorio kaltegarriei buruzko txostena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2015, 175-176. orr.

Hala, aukeretako bat foru-lurraldeek, euren eskumenen egikaritzean Estatuaren oinarrizko legeriaren aurka egiten badute, salbuespeneko erregimen bat eratzea izan liteke, TAOLaren kasuan egin bezala, historikoki egikaritutako eskumenen arloan foru-lurraldeek askatasunez arauak eman ahal ditzaten. Halaber, EHAEaren zein FHLaren xedapen gehigarriak kontuan harturik, egungo erregimena onartzeak Historiaren kariaz legozkiekeen eskubideei uko egiterik esan nahi ez duela diotenak, forutasunaren esentziara itzultzea funtsezkoa litzateke; hau da, Estatuaren eta foru-lurraldeen arteko itun-printzipiora, aldebiko harremanera itzulita. Aldebiko harreman hori azken bi legeen bidez gauza liteke, beharrezkoa izatekotan eraldatuz. Testu horiek onartzeko unean izan zuten itun-izaera berreskuratu behar dute, foru-lurraldeetako hiritargoak, eta ez besterik, erabakiz zein eskumen esleitu nahi dizkien foru-erakundeei, zeintzuk erakunde autonomiko erkideei (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, gaur egun, eta Nafarroarenean, EAERI batzekotan), zeintzuk Estatukoei eta zeintzuk europarrei.

Azkenik, aldebikotasun eraginkorra orokorrean zein eskumen-banaketa hau zehazki bermatuta egon daitezen, komenigarria litzateke eskumen-arazoak ebazteko Konstituzio Auzitegiaren sala berri bat eratzea, Estatuko erakundeek, euskal erakunde autonomiko erkideek eta foru-erakundeek era parekidean izendatutako kideez osatua, kasuan kasuko erakundeek izendatutako kideek hartuko luketelarik parte.

Era honetan, foru-lurraldeetan dagoen gatazka politikoa gainditzeko urrats emankorrak emango lirateke, eskubide historikoen figurari zor zaion errespetua gordeta eta Estatuaren eta foru-lurraldeen arteko errespetuzko harremana eratuz.

V. ONDORIOAK

LEHENA.— XVIII. mendetik aurrera, Estatuak eta foru-lurraldeek foru-erregimenarekiko zuten kontzepzioen arteko arrakala era espontzialean handitu zen, zentralismoaren eta forutasunaren arteko gatazka piztuz. Konstituzionalismo espainiarrak foruak pribilegiotzat jo zituen, nahitaezkoa omen zen batasun konstituzionalarekin bateraezina zelakoan. Foru-lurraldeetan, aldiz, pribilegioen ordez jatorrizko legeria propioak zirela defendatzen zen, bertan errege edo jaunarekin ituntzen zelarik zein botere utziko zitzaion eta zein eskumen gordeko zituzten foru-erakundeek. XIX. mendean, Espainiako Gorteek foru-erregimenak eskumen gehienez gabetu zituzten, 1839ko urriaren 25eko Legearen eta ondorengo bidez. Nafarroak autonomia adostu zuen 1841ko Hobe-kuntzaren Legean, baina Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak uko egin zioten Estatuarekin negoziatzeari, eta 1876ko uztailaren 21ko Legean euren foruak guztiz abolitu ziren. Alabaina, 1878an hiru lurralde horietarako lehenengo Ekonomia Ituna ezarri zen, autonomia fiskala onartuz.

BIGARRENA.— Eskubide historikoak foru-lurraldeen autogobernuaren oinarri juridikoa osatzen dute. Izan ere, Historian zehar izan dituzten erakunde propioek jarraikortasuna dute gaur egun, eta lurraldeek eskumenak bereganatu ahal dituzte eskubide historikoen kariaz, 1978ko Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren babespean. Halaber, xedapenak araubide aurrekonstituzional bati erabateko izaera inperati-boa ematen dio, foru-erregimenen babesa halabeharrez bete beharreko agindu konstituzionala bihurtuz, botere publikoek haiekiko errespetuz jardun behar dutelarik.

HIRUGARRENA.— 1978ko Konstituzioak eskubide historikoak aitortzen eta babesten ditu, baina eguneratzea galdatzen du. Beraz, foru-lurraldeek dagozkien eskumenak egikaritu ahal izan ditzaten, eskubide historikoak eguneratu behar dira, autonomia-estatutuen eta Konsti-

